

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-10-28  
ASTELEHENA  
427. ZENBAKIA  
10. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## Emakume trikitilariari omenaldia

Oñatiko Santa Ana bete egin zen | 30



Maixa eta Alaitz. | A.ARANBURUZABALA

Bailarako taldeetatik, bakarrik Bergarak irabazi zuen (1-0) | 22



Beste indusketa-eremu bat izango da Santa Barbaran | 15



Oñatiko gaztelekua, bizirik Su Ta Garren kontzertuan, barikuan | 29



### "Beti pentsatuko dut diferente"

Lope de Agirrereren gainean hitz egitera etorri zen Oñatira Jesus Egiguren, PSE-EEko presidentea; baina, GOIENARI emandako elkarrizketan, egoera politikoaz, bake prozesuaz, Fagor Etxetresnetaz, PSOEko buruzagitzaz eta alderdien arteko itunaz ere berba egin zuen, beste gai batzuen artean. PSE-EEen "gaizki pasatu" izan duela esan digu, baina honakoa gaineratu zigun: "Ni ez naiz Ezkerraldekoa, sozialista gipuzkoarra naiz eta beti pentsatuko dut diferente". | 8

Jesus Egiguren, Oñatiko kultur etxean, Lope de Agirrereren irudiaren aurrean. | IJURE EIZAGIRRE

## Bi herri txikiren arteko laguntasun handia

Aiherrako lagunak bisitan izan zituzten atzo antzuolarrek | 11



Senidetutako herriak. | JA








## Barandiaranen legatua ezagutaraziko dute 2014an

Velez de Mendizabal da berriz Fundazioko presidentea | 5

# Dagoeneko Fagorreko hamar bat bazkide birkokatu ditu Mondragonek

Inguruko kooperatibetan birkokatu ditu dagoeneko Fagor Etxetresnetako "hamar bat langile" Mondragon Korporazioaren Enplegu Bulegoak. Azaroan birkokatze gehiago izango direla aurreratu digute arduradunek. Bestalde, korporazioan negozio berriak sortzeko lanean dabilta. | 2

### SINADURAK

-  ANARTZAGIRRE | 7
-  7 | LARRANTZ ZEBERIO
-  OIHAN ZUBIZARRETA | 14
-  MAITE IRIZAR | 18
-  OLATZ PAGALDAI | 19
-  OIHAN VEGA | 37
-  IXIDOR SOLUPE | 40

## Jon Odriozola, euskal txirrindularitza proiektuko buru

Euskadi Fundazioaren taldeko zuzendaria izango da | 26



Jon Odriozola. | GOIENA

## Villanueva nafarrak jantzi zuen Euskadiko squash txapela

Arrasateko AKEko squash taldeak antolatu zuen | 26



Xabier Gorosabel. | JOSETXO ARANTZABAL

# Mondragon hasi da dagoeneko bazkideak birkokatzen

- ▶ Taldeko kooperatibetan birkokatu dituzte 10 lagun
- ▶ Elkartasuna adierazi dute Arrasateko Udaletik
- ▶ Indarrak batzea beharrezko ikusi zuten Tertulian

I.G./Z.V.D.M. | ARRASATE

Fagor Etxetresnen gaineko albiste eta erreakzioak eguneroko jasotzen dira. Azkenetarikoa bat Mondragon Taldeak egin zuen jakinarazpena izan zen.

## Langileen lehen birkokatzeak

Ohar bidez, Mondragon Taldeak jakinarazi du, agindu bezala, Enplegu Bulegoa abiarazi dutela eta GOIENARI korporaziotik adierazte eman diotenez, hamar bat dira "inguruko kooperatibetan" birkokatutako langileak. Enplegu Bulegoaren egitekoa kooperatiba hartzaileen beharrak zehaztu eta profil profesionalak definitzea izango da.

Honekin batera, oharrean azaltzen dutenez, abiarazi dituzte jada "mekanismoak kooperatiben sustapen unitateen artean negozio berriak sustatzeko dinamika", enplegu berriak sortzeko helburuz. Osasuna, energia eta ekonomia berdea izango dira landuko dituzten sektoreak eta Mondragon taldeko kooperatiba guztietako sustapen unitateak batera arituko dira lanean.

Oharrean berretsi egiten da Korporazioak eredu kooperati-

boarengan ezarria duen konfiantza. Fagor Etxetresnek sortutakoa "ezohiko arazoa" dela diote, baina "betiko ildo historikotik" egingo zaiola aurre: "elkartasun mekanismoetan oinarrituta (Enplegurako Laguntzaren prestazioaren bitartez), kooperatiben arteko lankidetzan oinarrituta (bereziki, bazkideak birkokatuz) eta erantzukizun kolektiboan oinarrituta".

## Elkartasun adierazpenak

Bestalde, Arrasateko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, Bildu, EAJ, PSE-EE eta Aralar taldeek osatua, aho batez onartu duen adierazpen instituzionalean "bere kezka eta elkartasuna" adierazten die Fagor Etxetresnetako langileei eta kooperatibistei, eta baita bere burua arriskuan ikusten duten hornitzaileei ere.

Horrez gain, konpromisoa hartzen dute, "talde kooperatiboarekin batera, egungo egoera birbideratzea beste erakundeekin batera", hala taldearen jarraipena bermatzeko.

Adierazi dute beharrezkoa dela Fagor Taldeak eta Mondragon Korporazio osoak bideraga-

rritasun plan bat egitea. "Plan hori bat etorri behar da egoeraren larritasunarekin. Planaren helburua izan behar da balio erantsi handiena duten jarduerak mantentzea eta ahalik eta lanpostu gehien bermatzea".

## Tertulia Goiena Telebistan

Hilaren 23an Goiena Telebistan tertulia berezi bati esker gaiari zabalago heldu zioten. Pedro Iturbek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Garapeneko zuzendariak; Mariasun Pagoaga Fagor Etxetresnetan 42 urte lan egindakoak; Lourdes Idoiaga Lagun Aron lan egindakoak eta Oñatiko EAJko zinegotziak; eta Adrian Zelaia Ekai Centerreko zuzendariak hartu zuten parte. Fagor Etxetresnen eteteak sortu dituen zalantzak mahai gainera atera, horiek argitu eta itxaropenerako mezua ere zabaldu zuten gonbidatuek.

## Ez zen kolpean etorri

"Gabeziak zeudela bagenekien arren, arazoaren dimentsioa horrenbestekoa zenik ez nuke pentsatuko", esan zuen Iturbek, eta gainerako gonbidatuek ere ildo beretik egin zuten. Urteetan



Eguaztenean Eneko Azkaratek gidatutako Tertulia saioan izan ziren Zelaia, Pagoaga, Itur...

zehir egoera larriei buruz entzun arren horrelako kolperik ez zutela espero, eta Zelaia, oster, gai gogorra izan arren, ez dela "horrenbesteko ezustea izan" azaldu zuen, "zantzuak egon, bazeudelako".

## 15 urte inguru dituen arazoa

Arazoaren jatorria zein den jakiteko, denboran atzera egin behar dela esan zuten. Zelaia horrela azaldu zuen: "Batzuek krisiari egotziko diote, eta besteek duela 10-15 urtetatik datorren arazoa dela esango dute. Eta hala pentsatzeko arrazoiak daude".

Hala, gogora ekarri zuen estatuko merkatuek bizi duten krisiak zerikusia daukala egoerarekin: "Espainian eraikuntzaren arlotik sartu da krisia, eta eragina zuzena izan da".

Zabalkunde garaiez ere egin zuten berba: "Beti entzun da Taldean Fagor Etxetresnen etekinak oso txikiak zirela eta egoera arriskutsuan zegoela momenturen baten krisia etorriz gero". Horri aurre egiteko kudeatzaile batzuek hazkundearen atzetik joatea erabaki izanak kanpoko filialen erostetak bultzatu zituela, eta "galerak oso garrantzitsuak" izan

direla azaldu zuen Ekai Centerreko presidentek.


Ekai Centerreko presidentek azaldu zuen erabaki batzuek testuinguru berezietan hartu zirela. "Finantziarioa errazegia zen eta operazio estrategiko handiak egiteko baliabideak eskuratzea errazagoa zen. Dirua lortu, enpresa bat erosi, neurritz handitu eta arazo guztiak konpontzen zirela uste zen".

Pagoagak gogora ekarri zuen kanpo merkatuetan sartzea kostatu egin zela. "Esan ziguten oso emaitza onak izango genituela, baietz esan zen, baina ez ginen kontziente zer nolako arriskueta sartzen ginen".

## Komunikazio faltaz

Fagor Etxetresnetako inork hedabideen aurrean azalpenik eman ez izanaz, Taldetik kanpo dagoen inpresioa, erabaki okerra dela gaineratu zuten. "Arrazoi objektiboren bat egongo" dela uste duten arren, titular batzuen falta igarri dute; zifrak barik, "behintzat ildo batzuen berri ematea" funtsezkoa izango litzatekeela.

Besteen artean, bazkideen diru-ekarpenen inguruko zalan-



/baieuskarariziurtagiria



@baieuskarari



www.baisarean.org



ziurtagiriaren elkartea

Bai Euskarari Ziurtagiria,  
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak  
www.baieuskarari.org

laguntzailea: **goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA





be eta Idoiaga. | GOIENA

MARTIN GARITANO | AHALDUN NAGUSIA

## "Politikeriak alboratu eta ahaleginak uztartu behar ditugu norabide berean"

**Malgutasunez jokatu behar da Fagor Etxetresnen kasuarekin?**

Nik uste dut malgutasunez jokatu behar dela, bai Fagorrekin eta baita Gipuzkoan arazo latzak pairatzen dituzten beste enpresekin ere; lanpostuak arriskuan dauzkaten enpresekin. Niretzako garrantzitsuak dira, eta maitasun guztiarekin hitz egiten dut kooperatibez, baina gipuzkoar guztiak jakin behar dute instituzioek lana sortzearen alde ez dutela bereizketarik egiten. Ez da talde bat mimatua eta beste batzuk ahaztuak. Mondragon guretzako oso garrantzitsua da, baina Azpeitian Corrugados ere oso garrantzitsua da. Guk bailara guztiak, seme-alaba guztiak bezalaxe, berdin maitatzen ditugu. Orduan, malgutasun guztiarekin, baina horrekin batera berdintasun guztiarekin.

**Aldunditik nola lagundu diezaioketue Fagorri?**

Ez guk ezta Jaurlaritzak ere ez daukagu makila magikorik. Nik uste dut Fagorren etorkizuna Fagorrek berak, edo Mondragon berak bermatu behar duela eta energia barrutik sortu behar dela. Instituzioek baditugu, ordea, eskumenak laguntzeko eta ibilbidea beraiekin batera egiteko. Gipuzkoako Foru Aldundi bezala, bi tresna ditugu: Ogasuna (ogasunean sortu daitezkeen arazoetan malgu jokatzeko) eta berrikuntzaren arloan laguntzak eman ditzakegu. Jaurlaritzak ditu, baina, eskumen nagusiak. Bestalde, udalek zuzenean ez dute ahalmenik, baina lagundu dezakete herrietan sor daitezkeen ondorioei aurre egiten (merkataritzan, ostalaritzan...). Hiru maila horietako instituziook bide komuna hartzen badugu eta Fagorrek edo Mondragonek hartzen badu erabaki sendo bat plangintza estrategiko sinesgarria egiteko, horiek uztartuta etorkizuna ez da urdina eta zoriontsua izango, baina bai askoz argiagoa. Norberak bere aldetik egiten badu lan besteengan nola eragiten duen jakin gabe, ez gara ondo ariko. Horregatik kasu honetan, *politikeria* alboratu behar dugu eta uztartu guztion ahalbideak hondamendi bat gerta ez dadin.

**Baduzue Gipuzkoan izan dezakeen ondorioen kalkulurik?**

Ni ez naiz aditua, baina eurek diote Mondragoneko lanpostu batek suposatzen dituela hortik kanpo beste bost. Horietatik hiru Euskal Herrikan kanpora egongo lirake eta bi Euskal Herrian bertan. Beraz, mila izango balira, hiru milaz hitz egiten ariko ginatke.

**Bailarako alkateekin batu zara.**

Guk planteatu genuena izan zen azterketa sakona egitea udalari bakoitzean garapen agentziaren laguntzarekin, hala, udalari bakoitzean krisiak izan dezakeen eragina ikusteko. Hori guztia ezagutzeko, ikusi beharko genuke gizarte politikak



LEIRE KORTABARRIA

nola bideratu bai herrietan eta baita Diputaziotik ere. Aste honetan berriro egingo dugu beste bilera bat lehenengo datuak batzeko.

**Mondragon Taldearekin ere bildu zara. Zein mezu helarazi dizute?**

Harreman normalizatuak ditugu Fagorrekin eta Mondragonekin. Nik uste dut ekonomian, politikan eta maitasunean bezala, badagoela egia guztiak esaten ez diren une bat, baina iristen da egia guztiak mahai ganean jarri behar den beste une bat, aurrera egin nahi bada. Momentu horretara iritsi garea uste dut. Ez dago disimulatzerik, ez dago egoera latza makilatzerik. Kaltetu asko daude eta egiaren babesean egin behar dugu lan.

**Arantza Tapiarekin ere batu zineten eguean?**

Gure kezkek agertu genizkion eta informazioa trukatu genuen. Azken finean, pentsatzen dugulako hemen sarritan politika munduan lehia izaten dela eta kasu hauetan lehia albo batera utzi behar dugu eta elkarlanean aritu behar gara irtenbidea bilatzeko. Tresnak uztartu eta ez norbera bere bidetik ibili energia galtzen.

**Kooperatibismoaren ereduak ona izaten jarraitzen duela nabarmendu duzu.**

Bai, zalantzarik gabe. Ni oso zalea naiz. Ni bergararra naiz eta oso gertutik bizi izan dut betidanik kooperatibismoa. Kapitalismoaren barruan dagoen irla txikia dela uste dut. Eta kanpoan eredu ere bada. Ereduak berak ez du kale egin. Langileek enpresa sortzeak eta parte-hartzeak ez du kale egin. Kale egin du beste egoera batean bizi galerako, eta beste egoera horretan erabaki batzuk hartu direlako.

**"Aurrera egin ahal izateko mahai ganean jarri behar dira egia guztiak"**

tza ugari daudela azaldu zuten. Bi motako ekarpenak daudela esan zuen Zelaiak, batzuk kapitalera eginikoak –ziurrenik lehia-ketan galduko direnak– eta besteak borondatezkoak. Eta Idoia-gak aditzera eman zuen: "Zabaldu da ekarpenez ez ezik, euren ondasun propioekin ere erantzun beharko zutela. Hor izugarritzko zurrumurrua egon da eta korporazioek hori argitu beharko lukete".

Fagor Ederlanen edo Copreciren kapitalean langileek jarritako diruaz erantzun beharko ote den galdetuta, printzipioz ez dela horrela izango argitu zuen Zelaiak. "Taldea hitza erabiltzen dugu, baina elkarrekin edo agrupazioak gara. Enpresa independenteak dira, baina hitzarmen baten bidez sortzen dituzte egitura edo fondo komun batzuk. Egitura horretan enpresa bako-

tzak arrisku propioak hartzen ditu bere gain".

Lagun Aroren inguruan ere zalantza ugari sortu direla esan zuten. Hala, Lagun Aroko sisteman pentsioen diruari ez diola ukitzen esan zuen Idoia-gak, eta alarguntza zein erretiroko diruak kaxa jakin batetan daudela gaineratu zuen.

Baina langabezia kontuei dagokienez, honakoa esan zuen: "Lanerako laguntza deitzen diogu. 93ko krisian horrelako krisi egoerarako fondo bat sortzea erabaki zen. Kuotak metatzen joan da langabezia gutxi zegoenean. Baina krisiaren eraginez aurretiko erretiroak egon dira, eta fondoa gutxitzen joan da".

Idoiagaran esanetan, Mondragoneko koooperatiba guztiak ekarpen handiagoak egin beharko dituzte, "zenbatekoak izango diren jakin ez arren".

4. orrialdean, jarraipena.

## BIARK STUDIO arkitektoak

Aholkularitza eta laguntza tramitazioan: aukera tekniko desberdinen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisisa, obra zuzendaritza...

**Komunitateak**



**Fatxaden isolamendua**



**Erreformak**



**Igogailuak**



**Etxebizitzak**



**Lokalak**



**Baserriak**



**ZIURTAGIRI ENERGETIKOA**  
(Etxea alokatu edo saltzeko beharrezkoa)

**EIT-ITE**  
(Eraikinen Ikuskapen Teknikoa)



Informa zaitez urte bukaera arte ditugun eskaintza bereziet!

Eskatu zure aurrekontua konpromisorik gabe

**www.biark.net**

Usaetxe plaza 1, behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 - e-maila: biark@arquired.es

## 3. orrialdetik dator.

**Arazoei aurre eginez**

"Enplegua sortzea eta elkartasuna Mondragon taldearen nor-tasunaren zutabe nagusiak dira", Iturberen esanetan. Eta Zelaiak gaineratu zuen oso garrantzitsua dela ere sinesgarritasuna edukitzea: "Elkartasun hori aplikatzerako orduan oso garrantzitsua izango da egingo den plana sinesgarria izatea".

Foru Aldunditik bideragarritasun planean indarra egin behar dela azpimarratu zuen Iturbek: "Hori oinarria izan behar da bertako enplegurik gehiena aurrera ateratzeko. Instituzioen arteko elkarlana sustatu behar dugu".

Bestalde, gaur egun zein negozio diren bideragarriak eta zeintzuk ez jakin beharko litza-tekeela esan zuten tertulian. "Orain langileak etxean daude langabe, baina *impasse* bat da", esan zuen Idoiak. Aurretiko erretiroa hartuko dute batzuek, eta beste batzuentzat lana bilatuko da kooperatibetan birko-katuta. "Baina esandakoa; Lagun Arok zer egin behar duen jakiteko bideragarritasun plana ezagutu behar da".

Bestalde, Iturbek udaletxeetatik Fagor Etxetresnen egoeraren eragina zenbatekoa izango den ikusi beharko luketela esan zuten, "beharrak identifikatu, bai komertzioekin, bai enpresa txiki eta ertainekin lanketa berezi bat eginez".

Eusko Jaurlaritza ere mahai horretan sartu eta denak norabide berean joan beharko lirateke-

la gaineratu zuen Iturbek, "beharre erantzuteko bide bat markatzeko". Mekanismo guztiak martxan ipintzea garrantzitsua dela esan zuen, "etorriko denari erantzuteko, baina baita izan gura dugun hori eraikitzeke ere".

Hori horrela, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Mondragon eta Fagor elkarlanerako dinamikan txertatzea gurako luke-tela esan zuten. "Alde guztietatik laguntzeko prest daudela ikusten dugu, horregatik hemendik eskaera hori kontuan hartzea gurako genuke", gaineratu zuen Pagoagak. "Denok gara kooperatiba, denok daukagu eskubidea jakiteko eta, erabakiak hartu behar badira, eta gogor-ak badira, hartu egin beharko".

**Lau hilabete aurretik**

Hartzekodunen aurre-lehiaketan daude Fagor Etxetresnak; lau hilabete epea daukate orain, akordioak lortu eta irtenbide posibleak aurkitzeko. Orain arte negoziazio estrategikoak zeuden zenbait aliatuekin, hainbat enpre-sarekin gauza bat edo beste egiteko, Zelaiaren arabera.

"Lan teknikoa neurri handi batetan eginda dagoela uste dut. Negoziazio prozesu bat zabaldu beharko da, baina solaskideak ezagunak dira, txinatarrekin eduki beharreko negoziazioa aurreratuta egongo da, ziurrenik. Ez da asko luzatuko".

**Erreportaje osoa:**

eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## ESANAK



**"Lagun Aroko pentsioen diruari ez dio ukitzen"**

LOURDES IDOIAGA  
LAGUN AROKO LANGILE OHIA



**"Instituzioen arteko elkarlana sustatu behar da"**

PEDRO ITURBE  
ALDUNDIKO LURRALDE GARAPEN ZUZENDARIA



**"Hainbat enprekin lan teknikoa egina dago"**

ADRIAN ZELAI  
EKAI CENTERREKO ZUZENDARIA



**"Gertatutakoa jakin behar dugu denok gara-eta kooperatiba"**

MARIASUN PAGOAGA  
FAGOR ETXETRESNETAKO LANGILE OHIA



Maite Aristegi. | GOIENA

## UNEDeko ikasle izanak erakutsi dionaz jardungo du Maite Aristegik

Maite Aristegik egingo du UNED Bergararen ikasturte-irekitze hitzaldia, eta bere mezua hau izango da: "Laguna dela eta zaindu behar dugula"

## LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Azaroaren 8an egingo da UNED Bergararen 2013-2014 ikasturtearen hasiera ekitaldia, eta Maite Aristegik egingo du aurten irekitze-hitzaldia. Zuzenbidean lizentziadun, baserriar eta Espainiako Diputatuen Kongresuko kidea da, eta *UNED Bergara: bizi-lagun ordezkazina* izeneko berbaldia egingo du.

Hitzaldi horren nondik norakoak aurreratu dizkigu Aristegik. Bera UNEDen ikasitakoa da, eta bere esperientziak hitz egingo duela esan digu: "Institutua bukatu nuenean, baserria dela-eta, ez nuen kanpora joaterik izan;

orduan, ikasteko aukera bertan neukala ikusi eta UNEDen hasi nintzen". Aristegik helarazi nahi duen mezua hau da: "Oso lagun-garria dela, bertan dagoela eta zaindu egin behar dugula; baita beraz baliatu ere".

Maite Aristegiren iritziz, "eskola presentzialek garrantzi handia dute", baina, bere kasuan, UNEDen egin zituen lagunekin "taldetxoak egin" eta "eskola presentzialen falta elkarren laguntzarekin" osatu zuten.

Urrutiko hezkuntza unibertsitatean ikasteak, gainera, "balio batzuk ere ematen" dituela uste du: adibidez, diziplina hartzeko.

**Ahaldun nagusia ere, bertan**

Hasiera ekitaldian izango dira ere Martin Garitano ahaldun nagusi eta UNED Bergara Fundazioaren Patronatuko presidentea; Iñaki Espartza, ikastetxe zuzendaria; eta Jaione Isazelaia, Bergarako alkatea.

Agintariek ere egingo dute nork bere mintzaldia, ikastetxe zuzendariak 2012-2013 ikasturtearen txostena aurkeztuko du eta ikasleei diplomak banatuko dizkiete. Bukatzeko, Bergarako Musika Eskolako hari taldeak emanaldia egingo du. Modu horretan, 2013-2014 ikasturtea irekita geratuko da, ofizialki.

## Lomceren aurkako protesta egin zuten bailarako ikastetxe batzuetan

Oñatin, Eskoriatzan eta Bergaran, besteak beste, kale-bilkurak egin zituzten

## GOIATZ ARANA | ARRASATE

Lomce legearen kontrako protesta eguna izan zen eguna eskolatan. Ikasle-sindikatu batzuek greba eguna deitu zuten ikasleen artean eta, horretaz gainera, hainbat sindikatu eta elkarte deituta elkarretaratzeak ere egin

zituzten ikastetxeetan. Debagoienean, kontzentrazioak egin zituzten, esaterako, Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolan, Bergarako Ipintza BHIIn, Oñatiko Errekalde Herri Eskolan...

UGT, EILAS eta CCOO sindikatuek eta sare publikoko EHIGE,

BIHE eta SAREAN elkarteek deitu zituzten elkarretaratzeok, eta Debagoieneko hezkuntza eragileen artean ere deialdiak izan zuten oihartzuna.

Eskoriatzan, Koldotxo gurasoen elkarteak eta eskolako zuzendaritzak deituta, guraso, irakasle eta ikasleek 15 minutuko elkarretaratzea egin zuten, eta Hezkuntza ministroaren lege berriaren kontrako manifestua irakurri zuten.

**"Lege atzerakoiak"**

Mobilizazio deialdiari erantzunez, kontzentrazioa egin zuten Bergarako Ipintza BHIIn ere, 11:00etatik 11:30era, ikastetxearen aurrean. Ikasle, irakasle eta gurasoek parte hartu zuten eta ondorengo esan zuten: "Guztion elkarlanarekin, ea gure hezkuntza babestea lortzen dugun, lege atzerakoietatik".



Begarako Ipintza BHIIn egin zuten kale-bilkura. | GOIENA

# Velez de Mendizabal: "Barandiaranen lana dibulgatzeko urtea izango da 2014a"

Barandiaran Fundazioko presidente aukeratu dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Josemari Velez de Mendizabal berretsi dute Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko Zuzendaritza Batzordeko presidente karguan; eta datorren urterako helburu nagusiak badauzka: On

Jose Miguel jaio zela 125 urte beteko direla eta, batez ere haren lana dibulgatzeko urtea izango dela esan digu Velez de Mendizabalek.

Fundazioko Patronatua Atauen batzartu zen hilaren 17an, eta

orduan aukeratu zuten Velez de Mendizabal berriz kargurako. 2010a ezkerko bazuen ardura hori.

**Material berria daukate**

Josemari Velez de Mendizabalek honakoa azaldu digu: "Datorren

urteari begira, batez ere dibulgazioa izango da gure leitmotiv-a. Seguru aski, hiru aldetatik egingo dugu hori: bat, idatzizkoa, batez ere gure webean, eta dagoeneko hasi gara hainbat kolaboratzaile lanak eskatzen; gero, Euskonews aldizkariaren bitartez pare bat lan monografiko egingo ditugu; On Jose Miguelen bideo asko ditugu digitalizatuta, eta hori webean eta Euskonews-en bitartez zabalduko dugu. Horrez gain, ikus-entzunezko material berria sortu dugu".

Material berri horren gainean, Fundazioak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiekin eta Nafarroako Gobernuarekin elkar-lanean lurralde bakoitzean Barandiaranek egindako lanaren inguruko ikus-entzunezko bana egin nahi du, eta egunean batzartu zen Fundazioko presidentea Arabako foru arduradunekin. "Arabian

egundoko lana egin zuen eta horren gaineko bideoa egin nahi dugu", esan du Velez de Mendizabalek.

**Hitzaldiak hiriburuetan**

Material berri hori dibulgatzeko, "orain arteko formula" erabiliko du berriz Fundazioak: Donostian, Gasteizen, Bilbon, Baionan eta Iruñean hitzaldi-ziklo bana antolatuko dute, eta, "seguru asko, Ataunen ere bai".

Horrez gain, "prentsako artikulak, Eusko Ikaskuntzak kudeatzen dituen irrati-programetan mezuak tartekatuta, tertuliak, mahai-inguruak..." erabiliko dituztela dio Velez de Mendizabalek.

**Ohiko lana ere egingo dute**

Fundazioak bere ohiko lana ere egingo du: Barandiaranen "legatu erraldoia" zaintzea, babestea, ikertzea eta dibulgatzea.



Josemari Velez de Mendizabal, Fundazioko beste kide batzuekin, Ataunen. | BARANDIARAN FUNDAZIOA

## ESANAK

"Barandiaranen bideo asko ditugu digitalizatuta, eta Interneten bidez zabalduko ditugu"

"Arabian egin zuen egundoko lanaren gaineko bideoa egin nahi dugu Foru Aldundiarekin batera"

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL | FUNDAZIOKO PRESIDENTEA

## Bi arrasatear saritu ditu Mankomunitateak Ura eta Erreka Deba Ibarrean argazki lehiaketan

- ▶ Oier Zuriarrain, 14 urtera artekoen kategorian, eta Xabier Atxa, 14-65 urte artekoetan, dira saridunak
- ▶ Gaur, astelehena, jasoko dituzte sariak Mankomunitatearen Arrasateko egoitzan, 12:45ean



Oier Zuriarrain Perezen argazkia. | OIER ZURIARRAIN

L.K. | ARRASATE

Oier Zuriarrain Perez, 14 urtera artekoen kategorian, eta Xabier Atxa Zugazti, 14-65 urte artekoetan, izan dira Mankomunitatearen Ura eta Erreka Deba Ibarrean delako argazki-lehiaketako saridunak. Biak

arrasatearrak dira. 65 urtetik gorakoen kategorian hutsik geratu da. Ura eta Erreka Deba Ibarrean delako astearen programazioaren barruan antolatu zuten lehiaketa hori.

Sari banaketa gaur, astelehena, egingo dute, Debagoieneko

Mankomunitatearen egoitzan, 12:45ean. Gai horren Bergarako ordezkari politikoa, Maren Belastegi, egongo da saria ematen eta Ura eta Erreka Deba Ibarrean astearen balorazioa egiten. Aste horren helburua zen Deba ibaia garbi edukitzeko dauden azpiegitura berriak ezagutzera eta, bestetik, errekek duen benetako balioaz kontzientzia hartzea.

**Produktuen otzara**

Behin argazkiak jasotzeko epea amaituta (irailaren 20an), jasotako argazkien aukeraketa egin da eta bi irabazleak izendatu dira. Kasu bietan, oparia bertako produktuen otarra izango da.



Lur azpian urak elkartzen argazkia. | XABIER ATXA

Iñaki Colina eta Mertxe Arbide | IRPH Stop elkarteko partaideak

# "Hipotekan 400 euro gehiago ordaintzen dugu IRPH indizearengatik"

- ▶ Hipoteken interesa kalkulatzeko indizea da IRPH
- ▶ Iraungita egon arren, banku batzuek erabiltzen dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hipotekei aplikatzen zitzaizen IRPH indizea, interesak kalkulatzeko. Iaztik, ezin da hipoteka berrietan aplikatu, baina zenbait banketxek oraindik horren arabera kobratzen dituzte interesak. Egoera hori buka dadin eskatzeko sortu dute IRPH Stop Gipuzkoa taldea. Iñaki Colina eta Mertxe Arbide dira kideetako bi.

## Zenbat zarete IRPH Stop Gipuzkoa elkartean?

Mertxe Arbide: Aktiboki 100 bat lagun gara, eta Donostian batzen gara astero, baina Gipuzkoa osoan jende asko dago kaltetuta. Jende askok oraindik ez daki bere kontratuan horrelako indize abusiboa dagoela, eta izan gaitezke milaka pertsona Gipuzkoan. Batez ere Kutxabank-ekin dugu arazoa. Iñaki Colina: Webgunea daukagu, eta jendeak ikusten badu bere hipotekan indize hori daukala, [www.irphstop.plazan.net](http://www.irphstop.plazan.net)-en kontaktua eman eta gurekin harremanetan jartzera gonbidatzen dugu. Izan ere, jende askok ez daki IRPH indizea duela bere hipotekak, eta nik animatu nahi-

ko nuke jende guztia, kontratuan indize hori daukala ikusten badu, guregana jotzera. Guk ere, hasieran, ez genekien gai honetaz ezer, baina ikasten joan gara.

## Zer eskatzen duzue?

I.C.: Europako normatibara egokitzeko ministerio-agindu bat egin zuten; 2012ko apirilean IRPH eta beste indize batzuk gehiago ez zirela baliozkoak izango esan zuten, eta urtebeteko epea eman zuten erregimen-agindu bat kaleratzeko eta indize horiek ordezkatzeko; Kutzako bezeroon kasuan, Euriborra+1. Baina orduan, PPkoak gobernura ailegatu ziren eta egin dituzten politikak kutxen eta bankuen mesederako izan dira. Agindu hura alboan utziz, beste 6 hilabetez luzatu dute erregimen-agindu hori kaleratzea.

## "Ordaintzen jarraitu nahi dugu, baina kontratuaren arabera"

Orain Euriborra % 0,5eko minimo historikoan dago, eta IRPH, % 3,9an. Hori dirutza da hilerro, eta familia asko kinka larrian daude hori ordaintzeko.

## Zuek eskatzen duzue beste indize bat aplikatzea.

M.A.: Gure eskritoretan agertzen dena betetzea eskatzen dugu. Kutzaren mailegu guztietan azaltzen da IRPH desagertuz gero Euribor+1 ordainduko dela, baina euren gobernaren babesean jarraitzen dute, kontratuak errespetatu gabe.

I.C.: Kontratu pribatuak aldaezinak dira, baina horren kontra egin dute. Ofizialki, IRPH azaroaren lehen desagertzen da. Kutxabankek esan digu hurrengo berrikuspenean aldatuko digula indizea. Guk juridikoki ditugun bideak jorratuko ditugu, eta kontratuan daukaguna argumentu gisa erabilita, salaketa jartzeko asmoa daukagu.

## Ze eragin du bizi duzuen egoerak zuen hileroko ordainketan?

I.C.: 300 edo 400 euroko aldea dago hilerro. Gaurko egoera larrian, familia asko itota daude, nahiko



Iñaki Colina eta Mertxe Arbide. | L.K.

gaizki pasatzen.

M.A.: Etxe askotan soldata bakkarrarekin geratu dira, eta hilerro-hilerro 300 edo 400 euro gehiago ordaindu behar izatea asko da. Guk ordaintzen jarraitu nahi dugu, eta horretarako eskatzen dugu sinatuta dagoena betetzea,

## "Euriborra %0,5eko minimoetan dago, baina IRPH indizea, %3,9an"

eta ez estutzea.

## Mario Fernandezi, Kutxabaneko presidenteari, gutun irekia idatzi diozue...

Bai. Azaroaren 2an bere horretan jarraitzen badu Kutxabanke, salaketa izango du gure aldetik. Nahiz eta denbora behar izan aurrera egiteko, gure duintasunagatik, erakutsi nahi ditugu Kutxabanke bere bezeroekin egiten dituen praktika txarrak. Azaroaren lehen indize horiek desagertu egiten dira ofizialki, eta azaroaren 2an horrela jarraituz gero, salaketa jasoko dute, hori seguru.



Foru Jauregian batzartu ziren Aldundiko eta udaletako ordezkariak. | GFA

## Foru fondora % 2,2 itzuli beharko dute udalek

Finantzazioaren gaineko informazioa eman zieten foru arduradunek 51 alkate eta udal ordezkariari

L.K. | ARRASATE

Aurreikuspenak betetzen badira, Gipuzkoako udalek euren burua finantzatzeko Aldunditik jaso dutenaren % 2,2 (8,7 milioi) itzuli beharko dute. Horrela aurreratu zieten Martin Garitano

ahaldun nagusiak eta beste foru arduradun batzuek 51 alkateri, joan den astean egindako bileran.

Otsailean jakingo dute Gipuzkoako alkateek zenbat itzuli beharko dioten Foru Aldundiari,

izan ere, orduan argituko dira kupoaren inguruan Foru Aldundiak eta Espainiako Gobernuak dituzten desadostasunak eta beste alderdi batzuk.

Aurreikuspenen arabera, datoren urteko fondoa aurtengoa baino % 5,41 handiagoa izango da, denetara 414,13 milioi eurokoa. Aurrekontua horrenbeste handitzearen arrazoiak dira *Rover efektua* amaitzen dela, hazkunde nominala egon dela eta Gipuzkoako zerga erreformaren neurriak, iaz onartuak, aplikatuko direla.

## 10 milioi udalen esku

Batzarraren beste helburu nagusia defizita malgutzearen ondorioz Foru Aldundiak dituen aparteko 18 milioi euroak nola inbertituko diren jakinaraztea zen. Ahaldun nagusiak aurretik esan zuten moduan, ekonomia eta enplegua sustatzeko plan baten inbertituko da diruaren zati handiena.

18 milioi euro horietatik, 10 milioi zuzenean udalen esku jarriko ditu Aldundiak, bi planen bitartez (inbertsio plana eta enplegu plana) eta gastu gehigarri bat ere planteatu du uholdeek egingo dako kalteei aurre egiteko.

## Urtarrilean da Eroskiren eta BBVAren aurkako epaiketa

Aurre-azua atzeratu egin zuen ekainean epaileak, bi alderdien artean ituna lortzeko asmoz

L.K. | ARRASATE

Adicae elkarteak -Bankuen, Aurrezki kutxen eta Aseguruen Erabiltzaileen Elkarte- Eroskiren eta BBVAren aurka ekarpen finantzario menpekoen gainean ipini duen talde-eskaeraren gaineko epaiketa urtarrilaren 21ean eta 22an izango da, Bilboko Lehen Merkataritza Auzitegiak erabaki duenez eta Europa Press agentziak jakinarazi duenez.

## Ez da itunik lortu

Epaileak Adicaeri eskatu zion prozesuaren edukiak argi zitzen eta auzitara nor eroan nahi zuen zehaztu zezan, zein oinarriekin eta zer eskatzen zion. Azkenean, ez da itunik lortu bi alderdien artean eta Adicae elkarteak idatziz eman ditu

epaileak eskatu zizkion argitasunak. BBVAk eta Eroskik elkarteak zituen eskaeren gainean euren jarrera zehazteko epe bat ere izan zuten.

Adicaek kontratuak ezereztzea eta inbertitu ziren aurrezkiak itzultzea eskatu du, interesik gabe. Bere esanetan, produktua "modu ez bidezkoan merkaturatu" zen, "publizitate engainagarria" egin zen eta bezeroen onespenean akatsak egon ziren.

Adicaek esan duenez, "Euskadin 40.000 kaltetu daude" eta talde-salaketa gehiago aurkeztuko dira.

Urtarrileko epaiketan ez dute auzi-jartzaile guztiek lekukotasunik ekarriko, BBVAk eskatzen zuen moduan, baizik eta entitateak izendatutako bostek bakarrik.

## ZABALIK



**ANARTZ AGIRRE**  
http://goiena.net/iritzia/

## Euskal Selektzioa

1993ko abenduaren 22a ondo gogoan dut. Bergarako Bandarekin joan ginen Anoetara. Euskadi (orduan horrela deitzen zen) eta Azkargortaren Bolivia aurrez aurre eta gu partida hasierako minutuak musikaz alaitzera. 15 urte besterik ez nuen eta zirrara sorrarazten zidan orduko Zubizarreta, Bakero, Guerrero, Alkiza eta gainerakoak Iribarren eta Expositoren esanetara ikusteak. Esperantza nuen aurreraxeago gure selektzioa nazioarte mailan Eurokoparen edo Munduko Txapelketaren batean ikusteko. "Zergatik ez?", galdetzen nion nire buruari. Futbol maila badaukagu, herri izaera zer esanik ez. Lan, gogo eta konpromisoa erekin lortu dezakegu.

Ordutik hona, 20 urte joan dira eta Euskal Selektzioaren aferak berdinean dirau. Ez aurrera, ez atzera. Euskadi edo Euskal Herria izenarekin sortutako polemikak agerian utzi zituen herri honen miseriak. Izenak itsututa izana erabat ahaztu genuen.

Aurten ere Olentzerorekin eta Gabonekin batera etorriko da berriz ere Euskal Selektzioaren partida. San Mames Barrian Peruko selektzioaren aurka abenduaren 28an, Inuzente Egunez (egun aproposagorik ez dago aukeratzetik). Nik, ordea, ez daukat 15 urterekin nuen ez ilusio ez esperantzarik. "Aldarrikape-na eta festa uztarturik", "ofizialtasunerako beste urrats bat gehiago" eta antzerako titularrak kaleratuko dituzte biharamunean egunkariak. Inork sinesten ez dituen leloak.

Noizbait Euskal Selektzio ofizial bat ikusiko badugu, hori soilik independentziaren bidetik etorriko delakoan nago. Baina horrek beste zutabe baterako ematen du. Bitartean, urteroko Gabonetako lagunartekoarekin konformatu beharko dugu. Eta niri dagoeneko ez dit 15 urterekin Anoetan bizi izan nuen zirrarak eragiten...

P.D.: Aurten Olentzerori Kataluniako Selektzioaren kamiseta eskatuko diot. Edo Eskoziakoa hobe?

**"Ez dit 15 urterekin Anoetan bizi izan nuen zirrarak eragiten"**

## USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

## Ikasteko ere emango du

Urriaren 15a baino lehen ere hitz egin izan dugu kooperatibismoari buruz. Hitzaldiak, formazio saioak, mahai-inguruak... Hainbat kooperatibatako lan bazkideek hartutako erabaki potoloen berri ere jaso izan dugu. Urriaren 15ean Fagor Etxetresnek aditzera emandako albistearen ostean, ordea, gertaera eta iritzi zurrunbiloak harrapatu gaituela ematen du. Niretzako ere eredu kooperatiboa ez dago zalantzan, baina aitortu behar dut egoerak jakin-min handia piztu didala. Batzuei eta besteei entzutea, hartuko diren erabakien jarraipena egitea... Egoerak emango du zer ikusi eta zer ikasi. Edozein hitzaldik edo formazio saioak baino gehiago.

## KALE INKESTA

Domu Santu eguneko ohiturak jarraitzen dituzu?



**ANDONI OTXANDIANO**  
ARRASATE

"Niretzat, Domu Santua egun arrunt bat da. Ongi iruditzen zait hildakoak kanposantuan bisitatzea, baina, ohitura galdu da".



**TERE LAZARO**  
ARRASATE

"Ez dut kanposantura joateko ohiturarik, beste egun bat da niretzat. Kendu egin beharko litzateke jai egun hau".



**JUAN AXPE**  
ARRASATE

"Urtero izan dut ohitura Domu Santu egunean hilerrira joateko. Baina, gaur egun nire ustez ohitura gutxi dago".



**AITZIBER ZUMARRAGA**  
IRUN

"Ez, gainera egun hauetan beti aprobetxatzen dut kanpora joateko. Gazteen artean tradizio gutxi".

## HANDIK ETA HEMENDIK

Norekin hitz egingo dut euskaraz? (Osakidetzako langile baten galdera)

**Onintza Irueta**  
argia.com/blogak/onintza-irureta/

Mari Karmen Osakidetzako langilea da. Behin baino gehiagotan saiatu da euskara ikasten (bere kabuz eta Osakidetzak lagunduta) eta ez dago gustura egin duen bidearekin (edo egin ez duenarekin). Hizkuntzarekiko gorabeherak kontatu dizkit berrikeretan ari ginela. Oso argigarria iruditu zait gogoeta.

-Euskara ikasten ari zara?  
-Bai. Egia esan, ez da euskara ikasten hasten naizen lehenengo aldia. Seme-alabak txikiak zirenean ere aritu nintzen. Baina ezin nuen segi, egunean bi orduz joan behar nuen euskaltegira eta ez neukan denborarik. Lana, familia, euskaltegia... Zenbat aldiz esan ote nien euskaltegikoei egunean bi ordu gehiegi zela, ezin genuela

hortara jarri!

-Hizkuntza ikasteko denbora behar da.  
-Bai, baina ezin baduzu ezin duzu. Eta beste kontu bat: euskara zenbat ikasi behar da? Bazirudien euskaltzainak izan behar genuela! Hainbeste gramatika eta kontu! Nik euskaraz elkarrizketa arruntak izateko maila nahi nuen, ez besterik!  
-Eta orain hobeto moldatzen al zara euskaltegian?  
-Gauzak asko aldatu dira euskaltegietan. Ez daukazu derrigorrez astean ordu mordo sartu beharrik eta irakasteko metodoa ere aldatu da. Online aritzen naiz eta gero mintzapraktikan nabil. Dakidan gutxi hori erabili egiten dut! Nik ez dut euskaltzaina izan nahi, dakidana erabili eta gehiago ikasi nahi dut.  
-Osakidetzako lankideekin ari al zara praktikatzen?  
-Oso gutxi. Euskaldunzharrek ez daukate pazientziarik normalean eta euskaldunberriek ez dute hitz egiten euskaraz. EGA ateratako lankideak dauzkate eta titulua atera zutenetik ez dute hitzik ere egin euskaraz. Nik Gasteizen egiten dut lan, eta esan behar da Arrasaten eta beste hainbat tokitan

euskaraz asko egiten dutela lankideen artean.

-Askotan gertatzen da euskara ikasten ari dena enbarazu gisa ikustea, pazientzia behar baita laguntzeko.  
-Nik ez dut euskara titulurik nahi eta behar, nik euskaraz egin nahi dut lanean, eta kalean ere bai. Saiatu naiz seme-alabak konbentzitzen euskaraz egiteko baina ez... Kuadrilla honetan ere (15 bat lagun gaude bi-hiru ezik beste guztiak euskaldunak) erdaraz egiten da.  
Mari Karmenek aipatutako kuadrilla kolpera ezagutu nuen eta "lehenengo hitza euskaraz" proba egin nien denei.  
Ia denekin egiten dut euskaraz bakarrik gaudenean, taldean dena erdaraz.  
Proba hartan kale egin zidan Mari Karmenek, ez zen ausartu euskaraz dakien apurra egiten.  
Erdara hutsean izan dugun berrikeraldi honetatik aurrera hizkuntza aldatu du eta euskaraz hasi zait.  
Gure arteko hizkuntza harremana aldatu dugu di-da batean. Poza nabari zaio euskaraz botatzen duen esaldi bakoitzean. Ea lankideekin eta lagunekin beste hainbeste lortzen duen.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendaria** Iban Arantzabal

**Asteburuko edizio arduraduna** Leire Kortabarria  
**Maketaria** Inaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Cordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ENEKO AZKARATE | OÑATI

Lope Agirre jaio zela 500 urte bete diren honetan, Kultur Hamabostaldia antolatu dute Oñatin haren figuraren gainean. Hori horrela, Oñatin izan da hitzaldia ematen Jesus Egiguren euskal sozialisten presidentea. Lope Agirreren ibilerak ikertu ditu eta dokumental bat grabatuko du aurten Amazonetan. Haren gaineko beste ikuspegi bat eman nahi du, orain arte zabaldu denaren ezberdina. Horren gainean eta euskal politikaren gainean jardun dugu.

**Lope Agirreren gaineko hitzaldiak -eta antolatu dituzte Oñatin eta bertan izan zara zeu. Zer dela-eta?**

Lope Agirreren gainean dokumentala egiteko asmoa dugu aurten Angel Amigo zine ekoizleak eta biok. Eta Lope Agirreren gainean Oñatin egiten ari diren zikloa dela-eta, bertara gonbidatu gaituzte.

**Ze asmo dokumentalarekin?**

Amazonas guztia egin nahiko genuke aldenik alden. Abendu inguruan-edo egingo dugu, orduan da-eta garairik onena, urak ez doazelako horren hazita. Agirrek egin zuen bidea egin ez eta Agirreri buruz beste irudi bat eman nahian. Hamar hilabete eman zituen Agirrek han, nahiz eta horietatik 4 geldi egon. Guk pare bat hilabete egin nahi dugu. Orain arte historiak Lope Agirreri buruz idatzitakoak gezurrak dira gehienak, nire ustez. Badauzkat datuak hori horrela dela frogatzeko. Euskal Herriak eman duen pertsonariarik inportanteenetako bat izan da. Munduan gehien ezagutzen den euskalduna da Lope Agirre, hemen baino gehiago. Fama txarrarengatik hemen inork ez du ezagutzera eman nahi izan, baina hark ez zuen beste batzuek baino jende gehiago hil. Gudaroste bateko burua zen eta diziplina bati zor zion bere jokabidea.


**Noiztik datorkizu Lope Agirreren figurarekiko interesa?**

Aspalditik. Orain arte ez dut astirik izan horri heltzeko, sakontzeko, baina gaztetan zuzenbide irakaslea nintzen eta Agirreren karta irakurrita konturatu nintzen hark ezagutzen zituela orduko zuzenbideko eztabaida guztiak eta horregatik ez zela posible Agirre izatea soldadu ezjakin, kriminal eta miserable bat, legeak ondo ezagutzen zituen pertsona bat baizik. Gaietan murgildu naizenezan segituan aurkitu ditut bizpahiru egi, haren legenda beltza bertan behera uzten dutenak.

**Gudaroste handia zeukan Agirrek?**

Bai, Marañoi balentriazkoak, Gaztelako Erreinuari irabazteko dohainak zeuzkan gudarostea. Haien asmoa zen Panamatik behera joan eta independentzia promulgatzea. Baina, haiek, bere gudarosteko kideek, garbitu zuten Agirre. Traizionatu egin zuten euren buruzagia.

**Historia kontuak alde batera utzita, gaurkotasan politikoari helduko diogu. Zela baloratzen duzu Parot doktrinaren gainean Estras-**



**burgoko Giza Eskubideen Batzordeak emandako epaia?**

Bi balorazio egiten ditut: politikoa eta juridikoa. Azken honi dago-kionean, zuzenbidean lehenengo erakusten dizutena da legeak ezin direla egin efektu atzeraraginezkoarekin. Hortaz, hasieratik zen lege edo dotrina hori Konstituzioaren kontrakoa. Bestetik, politika aldetik, ebazpen hau ondo dator, gaudelako blokeo egoera baten. Bakean gaude. Baina beste arazo batzuk daude konpontzeko: biktimena, presoena... Eta, horretarako, gobernuak urratsak eman behar ditu. Erabaki honek presoaren arazoari heltzen dio eta konponbidean jartzen du. Alperrik da biktimek protestatzea. Legea denok errespetatu behar dugu. Nahi eta nahiez gobernuak pausoak eman behar ditu.

**Bake prozesuari, berau balego, bultzada edo laguntza emango dio Europak eman duen epai honek?**

Arriskua da Espainiako gobernuak

**"Amazonas guztia egin nahiko genuke, Lope Agirreren dokumentalean"**

**"Munduan gehien ezagutzen den euskalduna da Lope Agirre"**

**"Paroten gaineko ebazpenak presoaren arazoari jartzen du konponbidean"**

Lope Agirre Aramaiokoa zela esateko nahikoa datu badituela dio Egigurenek; bestetik, egoera politikoaz, bake prozesuaz edota alderdien arteko itunez ere badihardu euskal sozialisten presidentea

saiatzea beste lege bat ateratzen antzekoa. Ez dut uste gertatuko denik. Bestetik, ez dago epailerik saiaturiko denik Europaren aurka joaten. Gainera, presoek kolektiboak edo Sortuk edo Bilduk, mundu horretako norbaitek, proposamen zehatz bat egin beharko du.

**Pilota ezker abertzalean edo Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren teilatuan dago, hortaz?**

Bai. Gobernuari ez zaio interesatzen hemengo arazoa konpontzea. Egoera honetan lasai dago. Eta, hori ikusita, beste aldeak eman beharko ditu urratsak. Inork ez die lagunduko.

**Espero duzu etorkizun hurbilean ezker abertzalearen, ETArek edo Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren urrats berririk arlo honetan?**

Nik uste dut Estrasburgotik etorri den ebazpen honen zain egon direla, neurri baten, arazoaren zati bat konpontzen dielako. Baina, halere, jende asko dago oraindik kartzelan eta haien familiek nahi dute zerbait egitea, ze Espainiako gobernuak ez du horretan lagunduko.

**Ze urrats eman behar ditu ETAK?**

Egunen baten iragarri beharko du disolbatu egin dela, Espainiako gobernuak aitzakiarik izan ez dezan. Baina ETAK ez du urrats hori eman nahiko presoaren arazoa konpondu edo bideratu bitartean.

**Baikorra zara?**

Bakea lortu da eta horregatik pozik naiz. Barkamena eta kontu horiek moralaren barruan sartzen dira eta ez politikaren eta legeen barruan. Zuzenbide penalak errazten du, zigor onuren bitartez, presoak gizarteratu eta kalera ateratzea, baina presoek eurek erabaki behar dute onura horiez baliatu nahi duten ala ez. Eta, zentzu honetan, ostera, ez naiz horren baikor. Biktimen kolektiboak saiaturiko dira PPren gobernuak baldintzatzen. Eta gobernuak saiaturiko da ezker abertzale-

ko buruzagiak kartzelan edukitzen, ezker abertzalearen proiektua politikan eta erakundeetan indartu ez dadin. Eta interes hori ez dute Madrilen bakarrik, hemen ere badute batzuek...

**Agirre, Botella... PPko buruzagiak badabilta biktimen elkarte batzuekin batera.**

PPk sortu zuen bere garaian Zapateroren gobernuaren eta ETArek arteko negoziazioen kontra egiteko mugimendua eta hori eskuetatik joan zaio eta bere kontra bihurtu da, kontrola ezinezkoa da PPrendako mugimendua hori. Baina Eusko Jaurlaritzak ere honen inguruan gehiago egin dezakeela iruditzen zait. Ematen du ez daukala interes berezirik ezker abertzalea egonkortzeko. Eta eskuak garbitu eta "hor konpon!" dioela ematen du. EH Bildu da EAJren kontrario edo lehia-kide nagusia.

**Bi urte dira ETAK jardun armatua behin betiko utzi zuenetik. Espero zenuen une honetan puntu honetan**

**"Aurrera egiteko, proposamen bat egin beharko dute presoek edo ETAK"**

**"Topiko asko baztertu behar dira PSE-EE eta Bildu elkar konpontzeko"**

**"Otegiri esaten diot mendi osoa ez dela oreganoa eta jartzen dut kontrapuntua"**

**egongo ginela?**

Argi izan dut terrorismoa gelditzen zen unean, Euskal Herrian elkarbizitza normaltasunera etorririko zela. Uste dut hori azkar samar gertatu dela gizartean. Sozialista batek eta Sortuko batek elkarrekin hitz egiteko arazorik ez dago, esaterako. Bestetik, Raxoi arazo historiko baten soluzioa konpontzeko aukera duelarrik, ezer jakiterik nahi ez izatea harri-garri samarra ere bada. Batzuek, batez ere hemendik kanpo, saldu nahi izan digute ETA ez dela garaitua izan, baizik eta irabazle atera dela, indartuta, Bilduren bitartez.

**Sozialistak ez daude Legebiltzarreko Bake Pontentzian. Zergatik? Legebiltzarrean zaila da kontu hauez akordio handiak egitea. Hori diskrezioz egin behar da, isilean, alderdi guztien artean. Egunkarietan gauza horiez asko hitz egin gabe. Nire ustez Lehendakariaren gaia da gehiago Legebiltzarrean baino.**

**Herriko tabernen edo Segiko gazteen aurkako makroepaketaren gainean, eta Herriaren aurkako polizia operazio horren gainean, ze iritzi daukazu?**

Epaileak-eta baldintzatuta egoten dira, baina, legea aplikatzeko irizpide bat izan ohi da giro politiko edo soziala kontuan hartzea. Oraingo egoeran legea aplikatzea edo hildakoak daudenean aplikatzea ez da berdina. Denbora pasatzen den neurrian epaileak ere egoera berrira egokituko dira. Halere, jurisprudentzia aplikatuz gero, Arnaldo Otegi bera ere kalean egon beharko litzateke. Baina izugarriko kritikak jasoko litzukete, hemendik kanpo, gobernuak eta epaileek, hori egingo balute.

**Sozialistek eta jeltzaleek, eta gero PPK ere, egindako ituna ona, egokia, beharrezkoa, iruditzen zaizu?**

Une honetan, Eusko Jaurlaritzak gutxiengoan dago eta, behar bada, beste egoera ekonomiko baten aurrean bageunde, oposizioa egitea komenigarriagoa izango litzateke, baina krisi egoera honekin, jendeak eskatzen du arduraz jokatzeko eta hortik uleru behar da akordiotara heldu izana gobernuak eta oposizioa. Hortik aurrera, itunetik kanpo geratu dira hamaika kontu. Aurrekontuak onartzea, zergen gaineko akordioa egitea... Hori baino askoz ere gehiagorik ez dute adostu.

**Aurreantzean, akordio estrategikoa izan daiteke jeltzale eta sozialisten artekoa?**

Politikoen borondatearen arabera da hori. EAJk berak, erabaki zuen bakarrik gobernatzea eta, uste dut, horrela amaituko duela legealdia. Uste dut zaila izango dela urrunago joatea. Iku-sita zelako berdintasuna dagoena lau alderdi nagusien artean. Edozelan ere, PSE-EEri eta, batez ere, PSOeri, beti gustatu izan zaio EAJrekin konpontzea.

**Zeuri ere bai?**

Baita neuri ere. Baina horretarako behar da beste aldeak ere nahi izatea. Eta uste dut EAJk hainbat fronte dituela irekita eta nahi duela alderdi nagusia izatea eta, horretarako, ez zaio komeni



PSE-EErekin lotzea, EH Bilduk, bestela, gogor kritikatuko delako.

### Sozialisten eta Bilduren arteko hurbilketa bat egon zen iaz Gipuzkoan. Hoztu edo gaiztotu egin da harreman hori?

EAJrekin akordioa egiten baduzu, EH Bildurekin ondo eroatea zaildu egiten da. Baina, bestela ere, gaur bertan, EH Bilduren eta sozialisten artean akordioak egitea zaila da. Horregatik, bihar-ko egunari begira, alderdi sozialistari tokatzen zaio eskuak libre edukitzea. Zeinek daki, egunen batean, ezkerren benetako gobernu alternatiba izatea nahi badugu, adostasunetara heldu behar-ko gara ezker abertzalea eta geu. Hori argi dago. Ikusten dut hori. Halere, ahuntzak mendira jotzen duela esan ohi da eta ezker abertzaleak EAJrengana joko du, espazio abertzalea indartzeko alde- eta guk, ba, sozialisten ohiko postuetara. Horregatik, bi aldeok, bai PSE-EEk eta baita ezker abertzaleak ere, geure artean konpontzeko, ohiko topiko asko baztertu behar-ko ditugu lehenbizi.

### Denbora behar da, hortaz?

Bai, hori da. Baina bide horretatik goazela uste dut.

### Hori da Jesus Egigurenen uste edo asmoa, eta, akaso, baita Gipuzkoako sozialistena ere, baina Pastor edo Ares tesitura horretan daude?

Alderdi guztiek daukate bi arima, bi ikuspuntu nagusi. Horrek ze bilakaera izango duen aurreikustea zaila da. Jende berriak erabakiko du hori.

### Bakearen alde egindako lanagatik Otegi eta zeuri Gernikan eman zizuten saria zuon bion alabek jaso izana da horren erakusle?

Horregatik egin nahi izan genuen modu horretan. Esanez, geure arazoa baino gehiago datorren belaunaldiarena zela. Erantzukizuna, elkarbizitza, akordiotara heltzea..., hori belaunaldi berrien kontua izango da. Denborak sendatzen ditu zauri guztiak.

### Sariak berak eta zuen alaben jarre-rahainbat hedabidetan sortu zituen kritikak zela baloratzen dituzu?

Uste nuen jendeak hobe ulertuko zuela mezua, baina ez zen hala gertatu. Kritika izugarriak jaso genituen. Gorrotoa sortzeak eta beti istiluak sustatzen ibiltzeak ez du ezer onik ekartzen. Memoria izan behar dugu, baina gauza batzuk ahaztu eta pasatzen uztea ere komeni da.

### Noiz egon zinen azkeneko espe-ntzean Arnaldo Oregirekin?

Badira hilabete batzuk. Bisitak mugatuak ditu. Eskaria egin dut bisitatzerako joateko, baina oraindik ez dakit noiz joango naizen.

### Zeri buruz hitz egin zenuten?

Kartzelan hitz egiten duzun guztia grabatu egiten da eta politikaz, sakontasunez, edo gauza inportantez, ez duzu jarduten, bestela, hurrengo egunean hedabide batean argitaratuta ikusteko arriskua daukazu. Nik, batik bat, esaten diot izugarritzko lana daukatela ezker abertzalean. Orain lortu dituzten boto piloak galdu ere erraz egin ditzaketela. Esaterako, Azpeitian zezenak antolatzea galarazten saiatzen bazara, hori



Jesus Egiguren Oñatin izan da joan zen astean. | IURE EIZAGIRRE

## "Lope Agirreren gainean, inor ez da molestatu egiazko historia kontatzen"

Lope Agirreren gaineko beste ikuspegi bat dauka Egigurenek. Orain arte kontatu zaigunaren ezberdina. Argumentuak baditu hori esateko. Egiaz-tatu daitezkeen datuak, dioenez.

### Tiranoa, zoroa..., ala askatzailea izan zen Lope Agirre?

Zoroa hitzak, garai hartan, XVI. mendean, ez zeukan gaur daukan esanahia. Eta, Lope Agirreren kasuan, ez zegoen buruko patologia bati lotua, ez zeukan horrekin zerikusirik. Zoroa zen altu hitz egiten zuelako, egiak esaten zutelako, sutsu egiten zuelako hitz... Bestetik, tiranoa hitzak, errebelde esan nahi zuen. Bai, egia da, pertsonaia arriskutsua zen. Azken baten, ikasia zen, legeak ezagutzen zituen, pentsamendu politiko propioa zeukan. Eta hark ustean zuen Amerika ez zela Gaztelako Erreinuarena. Hark esandakoak aitortu zituen, gero, Bolivarrek.

### Lope Agirreren jatorriarengainean ere badituzu beste frogak batzuk?

Bai, nire ustez argi dago ez zela Oñatikoa, Araotzekoa, Aramaiokoa baizik. Ez zen, asko zioten moduan ez pobrea eta ezta ezjakina ere; eta ezta hiltzaile hutsa ere. Interneten sartuz gero, leku guztietan aipatzen da Lope Agirre Araotzekoa zela. Baina hori esan zuenak lehen aldiz, mila bider errepikatu zuen ez zeukala hori egiaztatze daturik. Bururatu egin zitzaioela eta bota zuela...

### Ze datu daukazu adierazteko Lope Agirre aramaiokoa zela?

Lope Agirreren ama ezkondu zen Aramaioko Agirre etxera. Gaur egunean, Agerre da baserri hori. Eta hortik hartzen du abizena. Haren ahaide nagusiek Gabirian zuten jatorria. Baina zati bat etorri zen Oñati aldera eta, antza, familia hartakoa zen Lope Agirre.

### Zergatik ageri zaigu zoro moduan irudikatuta, hainbat film edo idatzitan?

Werner Herzog-ek egindako filmean agertzen den Agirrek ez dauka zerikusirik benetakoarekin, ezta hark Amazonasen barrenaren egindako espedizioarekin ere. Irudi faltsu bat, mito bat, sortu da. Kontuan izan behar dugu Ameriketako 15 milioi indiar hil zituela Gaztelako Erreinuak, genozidio handia, eta hori tapatzeko kriminal baten figura sortzea eta Lope Agirreri erru guztia botatzea ondo zetorkion Gaztelako Erreinuari. Baina egia oso diferentea da. Gainera, oso erraza da ikertzea. Arraroa da inork ez hartzea hori ikertzeko ardura. Ospe txarra jarri zioten Lope Agirreri eta haren gaineko egiazko datuak ematen badituzu ematen du ari zarela kriminal bat defenditzen.



IURE EIZAGIRRE

### "Agirre ez zen txiro edo ezjakina, kontatu zaigun moduan"

### Hainbat sarraskiren egile moduan aurkeztu du historiak, baina Lope Agirre izan ez bazen sarraski haren egile edo erantzule, zein izan zen?

Gaztelako Erreinuak. Gu ere, Gaztelako barruan geunden orduan. Eta euskaldun asko ibili zen konkistan. Felipe II. ren inperioaren garaian. Alemaniarrak ere aritu ziren han eta haiek, antza, askoz ere sarraski handiagoak egin zituzten. Hara joan zen kanpoko jendea eta bertako indiarrek ez zeukaten defenditzeko aukerarik. Pizarrok txakurrekin hiltzen zituen jendea. 2.000 txakur eroan zituen hara jendea atakatzeko. Arazoa da Lope Agirre ez zutelako indiarrek bakarrik garbitzen, baita noble gaztelarrak ere, Gaztelako Erreinuaren ordezkariak.

### Nork idatzi zuen historia?

Espedizio hartan zer gertatu zen argi eta garbi jakitea ez da erraza. Espedizioan joan zirenek idatzi zuen gertatutakoaren kronika. Eta norbaiti bota behar izan zioten errua. Eta haiek idatzi zutena kopia zuten, gero, beste guztiek. Baina kronika hura kontraesan bezala dago. Esaterako, inori ez zaio otu ere egin galdetzea zer egiten zuen Lope Agirrek, horren txiro eta ezjakina izanda, orain arte esan den moduan, printzesa zen alaba mulato batekin, zerbitzari eta guzti. Agirre hil zutenek haren gorpua zatitu eta Amazonetako punta ezberdinetan zabaldu zituzten gorpuzkiak eta txakurrei eman zieten jateko. Baina alaba Barquisietero elizan lurperatu zuten Agirreren banderarekin. Eta orain dela ehun urtera arte egon da han. la hiruzpalau gizalditan gorde eta zaindu dute han. Cuzcon jaio zen printzesa Inka baten alaba zen Agirreren alaba. Erretratututa daukat Cuzcon dagoen Agirreren jauregia. Sekulako jauregia da. Bolivar, handik pasa zenean, Agirreri omenaldia egitearren, bere egoitza jauregi hartan jarri zuen. Baina inorez da molestatu kontatzen benetako historia.

zeure kontra etor daiteke, han zezenenganako zaletasun handia dago-eta. Nire mezua izaten da esatea mendi osoa ez dela oreganoa. Izan ere, hara, bisitan doazen gehienak bere lagun edo bere ideologiakoak dira eta ni saiatzen naiz kontrapuntua adierazten, gauzen eta egoeraren beste ikuspegi bat ematen.

### Rubalcaba, Lopez edo Madina? Zein da zure gustukoena PSOEk idazkari nagusi izateko?

Ez dakit. PSOEn alderdi barruko hauteskundeak egiten badira, eta afiliatuek aukeratu behar badute, uste dut Patxi Lopez aterako dela garaile. Baina ez daukat horren garbi alderdian hauteskundeak egingo direnik. Lopezek badauka gobernu esperientzia eta sal dezake kudeaketa ona egin duela.

### Euskal sozialisten presidentea zara eta horrek ematen dizu autoritatea, baina, halere, sarri partiduan bertan bakarrik ez duzu ikusi zeure burua, egin dituzun adierazpenengatik?

Gaizki pasatu dut alderdiaren barruan diferentziak sortu direlako, baina egin badut izan da uste nuelako legitimitatea baneukala. Alderdi guztiek daukate joera inoren irizpide ezberdinak ez defenditzeko eta ideia bakar- rera jotzeko. Ni ez naiz Ezker- raldekoa, sozialista gipuzkoarra naiz eta beti pentsatuko dut dife- rente. Baina uste dut, neurri batean, neure burua amortizatu- ta.

### Ikusten duzu zeure ideiak defendi- tuko dituen euskal sozialistarik?

Euskal ikurrekiko hurbilketan bilakaera handia izan du PSE-EEk azkenaldian eta gero eta euskal- dunagoa da orain.

### Harrigarri egin zaizu Mondragon taldeko irur inportanteenetakoaren erorketa?

Fagor Etxetresnetako buruek eta lan bazkideek aspalditik jakin behar zuten egoera zein zen. Hortaz, beharbada, ondo azaldu behar zuten arazo hori. Zergatik heldu diren puntu hone- tara? Haiek dakite. Baina enpre- sa inportanteenetakoa da eta aurrera aterako da, neurri gogor- rak hartu behar-ko dituzten arren. Gauzak bere onera etor- riko direla uste dut. Krisia, beste toki batzuetara bezala, hona ere heldu da.

### Montorok dio errekupeatzeko zant- zuak ikusten hasi direla.

Ekonomia oso zientzia arraroa da. Baina krisian gauden ala ez igartzeko, termometro onak dira errepuideak. Zenbat eta kamioi gehiago ikusi, hobeto goazen sei- nale eta ni hasi naiz azkenaldian kamioi gehiago ikusten errepu- dean. Horrek esan nahi du hasi garelako errekupeatzeko.

### Katalunia badoa?

Ez. Nire ustez arazo ekonomikoa daukate katalanek eta horregatik daude egoera horretan. Azkenean, batik bat, ekonomia itun batean geratuko da guztia. Oso zaila da independentzia. Esatea erraza da, baina benetako ordua heltzen denean, jendeak bi aldiz pentsa- tzen ditu gauzak. Ez dut aurrei- kusten Katalunia independente bat. Bai ikusten dut Katalunia bat bere borondatez dagoena Espainian eta ez behartua.

# HERRIAK



Ume taldea, Elgetan, herriko baserri bateko kalabazarekin. | L.Z.

## ELGETA

# Aurten, Arimen gaua

- Orain bizpahiru urte hasi ziren Elgetako umeak Halloween ospatzen
- Ana Gillegi hezkuntza zinegotzia: "Helburua aurten jaia gure egitea da"

### LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Halloween festa amerikarra Elgetako umeen artean ere indarra hartzen ari dela ikusita gogoeta egin dute herriko hainbat eragilek. Iazko Domu Santu egunaren ostean aipatu zuten gaia lehengo aldiz Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Gazteria batzordean. Pasa da urtea eta hemen da, berriz ere, Domu Santu eguna. Aurten, ordea, zenbait neurri hartzeko ahalegina egingo dute bai udaletxetik bai guraso elkartetik.

Hezkuntza zinegotzi Ana Gillegi azaldu duenez: "Orain bizpahiru urte hasi zen indartzen herrian gau hori. Umeek ingeleseko orduetan lantzen zuten Halloween, eta benetan gustatzen zitzairen. Guk ez dugu herrian ohitura hori ezagutu, beraz ez genekien zer egin. Herritarrek gainera ez zuten oso ondo ulertzen zer ari zen gertatzen. Gauza bat da gau horretan mozarrotzea baina umeak etxez-etxe gozoki bila hasi zirenean...".

Kezka horrekin egoerari zein irtenbide eman hausnartu dute Elgetan, eta aurten aldaketa txi-

ki batzuk proposatu dituzte elkarlanean Domu Santu inguruko ospakizunerako. "Urte honetan helburua da jaia gure egitea", azaldu du Ana Gillegi. "Horretarako izena aldatu dugu, eta *Arimen Gaua* erabiliko dugu.

Leloa ere bertako egin dugu, eta *Gozoa ala sustoa* proposatzen dugu. Neska-mutikoen hitz horiek erabiltzen hasiko balira primeran! Gertatu da, aldi berean, eskolako seigarren mailako neska-mutikoen ekintza ezberdinak antolatu dituz-

tela gau horretarako beraien ikas-bidaiarako dirua atera asmoz. Beraien bidez ere indartuko dugu gau berezi hori".

Ahalegin honetan denek bat egiteko ekimenaren berri jaso dute ludotekako zein gaztelekuko

### OIER ARAOLAZA | DANTZAN.COM

## "Uste dugu ondo ezagutzen ditugula gure sustraiak, baina gezur hutsa da"

Antropologia ikasi zuen Oier Araolaza eibartarrak, eta gustuko du haritik tiraka ibiltzea. Ez da lehen aldia Domu Santuko ospakizunen inguruan elkarriketatzen dutela.

### Egia al da inguruotan ere egiten zirela antzerako ospakizunak?

Ez dut gaiaren inguruan ikerketarik egin, baina neguko festen inguruko hitzaldi dezente eman ditut herriz-herriz eta beti dago baten bat ospakizun hori ezagutu duena. Etnografia mailan dauden lanak ere kontsultatu ditut, eta konturatu naiz gauza horiek ez ditugula orain des-

kubritzen. Alor horretan lanean egon direnak jaso dituzte testigantzak Aian, Berrizen, Eibarren, Arabako Errioxan, Oiartzunen...

### Zer dakizu jatorriaz?

Nik hau oso garbi lotzen dut kuestazioen munduarekin. Neguko festak eske-errondak dira—Santa eskea, Olentzero, Inauteria...—. Hain zuzen ere, Nafarroako herri batzuetan gaur egun arte mantendu dira Domu Santu egunaren inguruko kuestazioak. Ez dira mozarrotuta ibiltzen, baina ateratzen dira baserri-zein



DANTZAN.COM

herri gaztainak eta antzerakoak eskatzen. Argi dago Halloween festaren funtsa ere kuestazioa da.

**Eta nola da posible gaur egun euskaldun gehienok ospakizun hori ez ezagutzea?**

## ANIMEN GAUA EGITARAUA

### URRIAK 31, EGUENA

**17:00** Umeendako jolasak eta eskulanak kiroldegiko gimnasioan.

**19:00** Antzezlanaren seigarren mailako ikasleen eskutik. hau ere kiroldegiko gimnasioan.

**19:30** Irteera 'beldurgarri' hilerri ingurura. Umeendako. Eraman linternak.

hezitzaileek, eskolako irakasleek eta baita eskolaz kanpoko ingeles saioak gidatzen dituen irakasleak ere.

Hala, urriaren 31ko iluntzerako umeendako jolasak eta eskulanak antolatu dituzte seigarren mailako ikasleek, eta gaiarekin lotutako antzezlan bat ere iragarri dute. Maala guraso elkarteak, bere aldetik, irteera 'beldurgarri' batean parte hartzera gonbidatu ditu herriko neska-mutikoak. Hilerri ingurura egingo dute txangoa ilundu ostean. Parte-hartzaileei linternak etxean ez ahazteko gomendioa egin diete.

### Festaren jatorria

Domu Santuko ospakizunari buelta bat emateko ahaleginak hainbat kontsulta egitea eragin du eta testigantza batzuk ere jaso dira. Itxura denez Elgetan ere ipintzen ziren argitutako kalabazak Eibarrerako bidean. Baita Ubera auzoan ere, baina San Paulo jaien inguruan.

Ortuan kalabazak egiten dituen baserri batek ere adierazi du gorde egin behar izan dituela aurten nor edo nor lapurretan hasi delako.

Uste dugu ondo ezagutzen dugula gure jatorria eta ondo eusten diegula gure sustraiak, baina nire uestez gezur hutsa da. Biltzen ari garen testigantzak XX. mendeko 50., 60., 70. eta 80. hamarkadetakoa dira. Nola izan da posible generazio bakar batean ospakizun hori galtzea? Ospatzeari uzteaz gain ahaztu ere egin dugu; kontzientzia galdu, alegia. Eta orain Estatu Batuetako merkataritza industriak erabakitzen du hau mundu osora zabaltzea, eta Euskal Herrira iristen denean hor gabilta denak plastikozko mozarroak eta kalabazak erosten pentsatuta festa amerikanoa dela. Jakingo bagenu gure aita-amamak horrela ibiltzen zirela, haien sinesmen eta errito zaharrak direla, modu honetan ospatuko genuke? Ez dakit ba!



Aiherrako eta Antzuolako herritarrak, bazkarian. | ANE ETXEBERRIA

# Aiherra eta Antzuolaren arteko laguntasuna, sendo

- ▶ 29 urte pasa dira dagoeneko bi herrien arteko laguntasuna hasi zela
- ▶ Bisita gidatuaz, bazkariak eta trikitilariak disfrutatu zuten herritarrek

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Ohiturari jarraiki, aurtengoan aiherratarrek izan dira Antzuolara hurbildu direnak, bi herrien arteko erlazioak aurrera sendo eta tinko darraiela erakutsiz. Guztira, 130 bat antzuolar eta aiherratar elkartu dira laguntasuna sendotu eta herritarren arteko senidetasuna begi bistan uzteko.

09:00tan Aiherratik irten eta 140 kilometroko ibilbidea egin ondoren, Antzuolako lagunekin elkartu eta Bergarako txoko desberdinak ezagutzeko parada izan zuten bisita gidatu baten bidez. Jone Larrañaga Kultura teknikariak azaldu zuen bezala, bailarako beste herriak ere ezagutzeko aukera eman nahi diete Nafarroa Beherko herritarrei. Hala, txoko des-

berdinak ikusi ondoren, herrira buelta eta txikiteoa egin ondoren bazkari goxoaz disfrutatu zuten bertaratutako guztiek.


Jan, edan, solasaldian aritu, abesti bat edo beste kantatu eta trikitilariak disfrutatu zuten.

## 29 urteko ibilbidea

Aurtengoan, 29 urte bete dira oraingo alkate Ima Beristain eta

senarrak Aiherrako bikote batekin elkartu eta poliki-poliki sendotutako laguntasuna herri guztira ireki zela.

Aiherra Nafarroa Beherean kokaturiko herri txikia da. 1.000 herritar baino gutxiago ditu eta 1450. urtean sorturiko herrixka da. Paraje ederrak ditu: Beltzuntzeko gaztelua, Abarrateko gotorlekua eta beste hainbat.

XALBAT  
AIHERRA

"Lehenengo aldia da Antzuolara etortzen naizela eta asko gustatu zait. Goizean etorri, herria ezagutu eta gauzak esplikatu digute. Asko gustatu zait".

UXUE  
AIHERRA

"Ez da lehen aldia etortzen naizela, oin bi urte ere hemen izan nintzen. Herri polita da Antzuola eta datorren urtean ere etorriko naiz berriz elkarrekin egoteko".

KONTXI  
ANTZUOLA

"Orain dela 8-10 bat urte hasi ginen han edo hemen lagunekin elkartzeko. Oso garrantzitsua da halako egunak ospatzea, herri txikiak garelako".

EDURNE  
ANTZUOLA

"Udazkeneko eguraldi honekin eta lagun artean egun polita pasatzen ari gara. Izan ere, duela urte askotatik elkar ezagutzen dugu eta lagunak egin ditugu Aiherran".

JEAN MICHEL  
AIHERRA

"Biziki ondo pasatzen ari gara 29. urteurren hau ospatzen. Badira gazteak gurekin etorri direnak eta esperantza dugu eurek ere bide honetatik jarraituko dutela".

## Bazkari batekin agurtu dute Hamabostaldia

XVII. Kultur Hamabostaldia amaitzeko, bazkaria izan zuten zapatuan Bergarako San Joxepe erretiratuen elkarteak. Bi astetan hainbat ekintza disfrutatu dute: hitzaldiak, antzerki emanaldiak, irteerak... Zapatuan, bazkaltzeaz gain, opariak jaso eta dantzaldiaz disfrutatu zuten.



JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL



Nardeaga kalea jendez beteta. | JOSETXO ARANTZABAL



Eskulanak egiten, Biteri plazan. | JOSETXO ARANTZABAL



Mutikoa blokeekin dorrea egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Umeak jolasten. | JOSETXO ARANTZABAL

## ARAMAIO

## Herri guztia kalean zapatuan, Aramaioko Erretiratuen Egunean

Egun herrikoia eta jendetsua izan ohi da; zapatukoa ere hala izan zen

MIREN ARREGI | ARAMAIO

Nardeaga kalea lepo bete zen, azokako postuz eta hura ikustera joandako herritarrez. Animalien azoka, artisau azoka, taloak... Guztira 60 postu inguru eta herritar asko kalean gora eta kalean behera. Baserriko produktuak eta artisau lanak salgai ipini zituztenak, baina, ez ez zeuden oso gustura, gutxi saldu omen zutelako.

Hildakoen aldeko meza ere egin zen eta bertan parte hartu zuten Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzek. Horren ostean, dantza taldeko umeek dantzak eskaini zituzten, ikusle mordoia begira zutela.

Aurten, 102 lagun batu dira kiroldegian bazkaritarako. Urterro moduan, herriko gizonetzko eta emakumezko edadetuenak omendu dituzte eta, aurten, 1918ko martxoaren lein jaiotako Maria Angeles Beitiari eta urte bereko uztaillaren 4an jaiotako Balentin Ibañeri egokitu zaie.

### Biomasa interesu piztu zuen

Azokan baziren bi postu berezi, biomasaekin erlazionatutakoak. Etxean berogailua eta ur beroa izateko energia berriztagarrien gainekoak interesa piztu zuten. Postuetako bat ipini zuen Sugar enpresak eta bertan, biomasa bidez funtzionatzen duen galdara ikus zitekeen. Ekosua enpresak, bestetik, egur berogailu metatzaileen gaineko informazioa eskaini zuen.



Dantzariak dantzan eta herritarrak begira. | JOSETXO ARANTZABAL



Erretiratuen bazkaria, kiroldegian. | JOSETXO ARANTZABAL

## ARRASATE

## Guraso Eguna, guraso eta seme-alaben artean euskaraz jarduteko

Txatxilipurdik eta Zahar Berrik antolatu zuten ekimena; biak ere gustura gelditu ziren

M.A. | ARRASATE

Txatxilipurdik eta Zahar Berrik antolatuta, euskararen transmisioan familiak duen garrantziaz ohartarazi guran, Guraso Eguna egin zuten zapatuan. "Gaurko asmoa familian euskaraz gozatzeko espazioa eta aukera eskaintzea da. Horretarako hainbat tailer eta jolas eskaini ditugu haur eta gurasoek edo familiako helduek elkarrekin euskaraz goza dezaten", zioen antolatzaileetako batek.

Eguraldia tarteko, hasiera baten Seber Altuben egin behar zena Biteri plazan egin zuten eta antolatzaileak nahiko gustura gelditu ziren egunak emandakoarekin: "Parte-hartze alde-rik, esan dezakegu nahiko posi-

tiboa izan dela, nahiz eta helduei kostatu egin zaien euren txiki-kin jolasten hastea", diote Txatxilipurditik.

### Gurasoen artean ere euskaraz

Baina guraso eta seme-alaben artean euskaraz mintzatzeko aukera eskaintzeaz gain, halako momentuek balio izaten dute helduek euren artean ere euskaraz jarduteko: "Ohiturik ez eduki arren, euskaraz egiten ahalegintzen dira eta hori positibotzat jotzen dugu", zioten antolatzaileek. Bide horretan, *Guraso-lagun* izeneko ekimena jarri gura dute martxan Txatxilipurdik eta Zahar Berrik; gurasoen arteko euskarazko mintzapraktika saioak dira horiek.

ONATI

# ARTaso elkartearen 'Lope 500' hamabostaldia, borobilduta

- ▶ 'Lope 500' hamabostaldiaren barruan, kale antzerki herrikoia egin zuten zapatuan
- ▶ Lope de Agirreren gaineko askotariko ikuspuntuak batu ditu ARTaso elkarteak

AITZIBER ARANBURUZABALA | ONATI

Lope de Agirreren bizitzako hainbat pasarte irudikatu zituzten zapatuan, ARTasoko elkarteak bultzatu eta askotariko herritarrek egindako kale antzerkian.

Prozesioa balitz bezala jarraitu zuten askotariko ikusleek ikuskizuna, Lope de Agirre kalean hasi, Santa Marina plaza parean jarraitu eta Antixenako lorategian bukatuz: "Era irreberente batetan, Lopereren irudia kalera ateratzea zen antzerkiaren helburua. San Migelek moduan, hegoak jarri genizkion Loperen irudiari eta baita deabruaren hankak ere, eta herrian ikurra den prozesioa egin genuen Antixenaraino; han gero Loperen irudi hori erre egin genuen, herriko dantzarien ezpata dantzaren ondoren. Aurretik Ameriketara joatearen zergatiak eta han egin zituen hainbat ekintzaren berri eman genuen eta baita Elvira, haren alabaren historia kontatu ere", azaldu du Kepa Elortza ARTasoko kideak.

## Hamabostaldi arrakastatsua

Gustura dira antolatzaileak, *Lope 500* hamabostaldiak izan duen erantzunarekin. "Jakin-mina sortu du herrian eta hori zen gure nahia, datuak mahai-gainean jarri ditugu bakoitzak bere irurketa egin dezan. Teoria asko entzun ditugu, horien artean berrienak direlako, Jesus Egigurenenak azpimarratuko nituzke". dio ARTasoko Elortzak.



Lope de Agirreren irudia erre zuten Antixenako parkean. | A.A.



Bi aparte-hartzaile. | A.A.



Pake-Lekukoak ere baziren. | A.A.



Oñatzeko ezpata dantza. | A.A.



Luntxa egin zuten amaieran. | A.A.

## Irrati-zaleak ere Loperi buruz

Pedro Txintxurreta irrati-zale oñatiarrak, gertuko lagunekin batera, udaletxeko arkupeetan *irradi-estazioa* prestatu zuen zapatuan, Loperi buruzko konexioak egiteko asmoaz. 10:30ean aineratu ziren eta 300 konexio inguru egin zituzten, estatuko probintzia guztietatik eta baita, besteak beste, Italiako, Holandako eta Frantziako zaleekin ere. Urriaren 15etik urriaren 27ra bitarteko eskatutako baimenarekin, ia 1.000 konexio egitea lortu du Txintxurretak.

23 urtetako irrati zaletasuna du Txintxurretak. Denbora pasa dela dio, gaineratuz konexioen helburua ez dela hari bietako muturretan daudenek berriketa luzeak egitea, batak bestearen berri izan eta konexio horiek guztiak dokumentu batean jasotzea baizik.



Pedro Txintxurreta, udaletxeko arkupeetako irrati-estazioan. | A.A.

ESKORIATZA

## Surfean eta puzgarrietan jolastu zuten kiroldegian

Udazkenaren etorrerarekin uretako parke bihurtu zuten beste behin atzo, domeka, Manolo Muñoz kiroldegiko igerilekua. Eguraldi onak baldintzatuta, aurreko edizioetan baino haur eta gazte gutxiago hurbildu ziren atzokoan. Puzgarrietan gustura jolastu zuten eta baita surfa egiten ere.



JOSETXO ARANTZABAL



J.A.



Garibaiko geltokia, joan den egunean. Markesinak handitzeko eskatu dute, besteak beste. | JOKIN BEREZIARTUA

## Hainbat ekarpen garraio publikoa hobetzeko

Aldundiak herritarren kexa eta proposamenak jaso ditu, zerbitzua hobetzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Datorren urtean berritu behar ditu Gipuzkoako Diputazioak autobus zerbitzuen kontzesio kontratua eta horregatik Mugikortasun Sailak eta udalek bilera irekiak egin dituzte herritarren proposamen eta kexak jasotzeko. Helburua da garraio publikoaren erabilera areagotu eta zerbitzua hobetzeko ideiak jasotzea: "Aldundiko Mugikortasun Sailak nahi duena da herritarren parte hartzea sustatu, euren beharrak eta pertzepzioak jasotzeko. Gero horiek dokumentuetan jasoko dira", adierazi zigun Itziar Eizagirre teknikariak Kulturateko Loramendi gelan egindako saioan.

Bailarako herri guztietan egin dira saio irekiak eta Arrasatekoa izan zen azkena. Proiektuak lau fase ditu eta honakoa izan da

lehen; diagnostikoa egin eta herritarren proposamenak jaso dituzte. Proposamen gehiago egiteko aukera dago oraindik Aldundiak horretarako propio jarri duen webgunean: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net).

### Hainbat ekarpen saio irekietan

Hainbat izan ziren Arrasateko bilera irekian herritarrek egin zituzten ekarpenak. Herritar bat, adibidez, kexu agertu zen zenbait gidarik ibilbidea aldatzeko ohitura dutelako: "Erabiltzailerren bat ospitalean geratu behar den galdetu eta ezezkua jaso ostean, beste ibilbide bat egiten du. Horrek ospitalean zain dagoena kaltetzen du zuzenean. Hori hiru edo lau bider pasatu zait dagoeneko". Herritar berberak salatu zuen gidari batzuek ibilbidea ahalik

eta azkarren egiten saiatzen direla, erabiltzaileen kalterako. Mugarriten -Meca inguruan- geltoki bat jartzea ere proposatu zuten.

Era berean, Garibai geltokiko markesinak txikiegiak direla uste dute askok. Jende gehiago estali ahal izateko aukera eman behar litzatekeela uste dute. Oraingo markesina eredia egokia ez dela "nahiko orokorra" dela ondorioztatu zuten.

Udan Debarako zerbitzua indartzea ere proposatu zuten, "Debara heltzeko ordu eta erdi baino gehiago" behar delako. Elorekin -San Prudentzio- geltokiarekin arazo handia dagoela ere salatu zuten, batez ere ordutegien konbinazioak ez direlako "batere egokiak". Eizagirrek onartu zuen gune horretatik hainbat kexa heldu zaizkiela.

## Mokorraren haustura hizpide etzi Kulturaten

J.B. | ARRASATE

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuaren Osasun Ikasgelak antolatuta, mokorraren hausturak sortzen dituen arazoaren gaineko hitzaldia egongo da etzi Kulturaten (19:00). Debagoieneko Ospitaleko doktorea eta ESiko Traumatologia zerbitzuko arduraduna den Iñigo Etxebarriak emango du hitzaldia; ondo ezagutzen du mokorraren haustura zer den eta horrek eragiten dituen ondorioak nolakoak diren.

Mokorraren haustura berez zer den, zergatik gertatzen den, gaixoarengan zein senitarte-kongean duen eragina nolako

den eta haustura ekiditeko zer egin daitekeen azalduko du Etxebarriak. Izan ere, mokorraren haustura gero eta sarriago diagnostikatzen den patologia da eta hori pairatzen duen pertsonen bizitza zein ingurukoena asko baldintzatzen du.

Debagoieneko ESiren zerbitzua herritarrei ahalik eta gehien hurbiltzea du helburu ekimenak.

### Azaroaren 6an Bergaran

Hilaren 30ean Kulturaten egon ostean, azaroaren 6an Bergarako Irizar jauregian ere emango du hitzaldia Iñigo Etxebarriak adituak.

### Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra, 197/2006 doktrina eta epaiketak hizpide bihar, osoko bilkuran

Osoko bilkura egingo da bihar (18:00). Gaien artean aipatzekoa da Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren (HAPO) berrikuspenera egingo dutela. Hau da, dokumentua idazteko finkatutako helburuak eta irizpideak aldatu eta osatzeko proposamena egingo dute. Bestalde, bi mozio ere landuko dituzte: Bilduk aurkeztutakoa, "epaiketa politikoak" desagertzera eskatzen duena, eta 197/2006 doktrinaren gainean Estrasburgok emandako epaia aplikatzea eskatzeko Herri Bilguneak aurkeztutako duena.

### Udalak basozain lanetan aritzeko bost langabe kontratatuko ditu, Aldundiaren laguntzarekin

Udalak, Aldundiaren laguntzarekin, basozain lanetan aritzeko bost langabe kontratatuko ditu. Talde buru bat eta lau basozain hartuko dituzte eta kontratuaren iraupena izango da bost hilabetekoa. Taldean arituko dira lanean, eta besteak beste honako lanak egingo dituzte: garbiketa eta mantenu lanak erretetan, basoetan eta bestelako nekazal zein natura guneetan. Aukeraketa prozesuan parte hartu gura duenak BAZen egin behar du eskaera, urriaren 31a baino lehen.

### Torturaren aurkako parodia egingo dute egunean, Segiko kideen aurkako epaiketaren harira

Egunean, hilak 31, torturaren aurkako parodia egingo dute Portalioian (19:00). Horren harira, Arrasateko ezker abertzaleak prentsa oharra atera du: "Torturatzaileei aurre egin behar diegu. Batez ere duten babes egitura judizial, mediatiko eta politikoa ahuldu behar dugu. Torturatuei gure maitasuna adierazi behar diegu, tortura bidez lorturiko deklarazioak eta kondenak arbuia-tu behar ditugu". Hori da, diotenez, Irati Muxika auziperatuaren kasua: "Iratiren balizko zigorra torturaren fruitu pozoindua da".

### NIRE USTEZ

OIHAN ZUBIZARRETA



## Laino gaineretik sasi azpira

Udazkena bero-bero iritsi da. Politikaren kontu zaharrak, atxiloketak, epaiketa sumarioak (animo Irati, LIBRE!), *Parot doktrina*-ren azkenak... Eta ekonomiaren zurrunbiloarenak, gatazka kolektiboak, soldata jaitsierak, etxe kaleratzeak... Eta azken egunotan asaldatu gaituen Fagor Etxetresnen gainbeherak.

Eta guztietan, etengabe aldarrikatzen ari da elkartasuna. Eta baikorra izatea dagokigu, herri honetan elkartasunak baduelako balioa eta izateko arrazoia. Hamai-ka kontu eta modutan erakutsi da elkartasunerako prestutasuna eta gaitasuna: eskubide zapaltzearen aurka, euskalgintzan, ikastoletan, kooperatibetan... Baina elkartasunaren ibilbideak ere baditu bere ilunak.

### "Urtetan borrokatu eta eraiki den guztia ez da hemen amaitu; bideak badu balioa"

Politikan konpromiso falta akaso eta ekonomian harrokeria zabarra. Ibilbideak honaino ekarri bagaitu, izango da bidean ikaspen, kritika eta autokritikarik. Erantzukizunak ere ugari, gutako bakoitzarenak ere bai.

Urtetan borrokatu eta eraiki den guztia ez baita hemen amaitu, goizetik gauera guztia erori zaigula iruditu arren.

Egindako bideak badu du bere balioa eta orain ere frogatu behar genuke horren gaurkotasuna.

Elkartasuna ez zait abiapuntu txarra iruditzen, eta apaltasun pixka bat ere ez, lainoen gaineretik ibili ondoren, sasi azpira erori garen honetan. Aurrera bolie!

### OHARRAK

#### 1954AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 16an egingo dute bazkaria. Azaroaren 11a baino lehen eman behar da izena, 55 euro sartuz 3035 0001 57 0011136855 kontu korrante zenbakian.

#### 1980AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria Sara merenderoan. Azaroaren 6a baino lehen eman behar da izena; 40 euro sartu behar dira 3035 0001 56 0011155838 kontu zenbakian. Izen abizenak jarri behar dira kontzeptu moduan; *bus* hitza jarri behar da autobusean joateko.

#### 1985EAN JAIOTAKOAK

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Izena eman behar da azaroaren 10a baino lehen, 3035 0023 97 0230084289 kontu zenbakian 35 euro sartuta. Izen abizenak jarri behar dira kontzeptu moduan.

#### 1959AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria Aldape jatetxean. Azaroaren 8rako eman behar da izena; 60 euro sartu behar dira 3035 0047 11 0471084297 kontu korrante zenbakian.

# Indusketa eremu berri bat irekiko dute laister Santa Barbaran

Arkeolaneko Mertxe Urteagak eta Aranzadiko Jose Angel Barrutiabengoak hartuko dute parte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azken urteetan Aranzadi zientzia elkarteko eta Arkeolan fundazio-ko ordezkariak hainbat indusketa eta zundaketa arkeologiko egin dituzte Santa Barbarako gune ezberdinetan. Bada, datozen egunotan Arkeolaneko Mertxe Urteagak eta Aranzadiko Jose Angel Barrutiabengoak gidatuta, eremu berri bat irekiko dute.

Arrasate pasealekuaren gainean egingo dute lan, Barrutiabengoak 2010ean lokalizatutako XVII. edo XVIII. mendeko iturriaren ondoan. Hau da, Arrasate pasealekutik Goikobalura doazen eskaileretan irekiko dute eremua; han ere lan egindakoa da Barrutiabengoak: "Jose Letona

historialariak hil aurretik esan zidan gune hori aztertu eta mantendu beharrekoa zela. Gune horretan zundaketa lanak egin nituenean horma zati baten aztarnak aurkitu nituen eta pentsatzekoa da bertan behaketarako gune bat zegoela. Izan ere, bere garaian Leintz eta Ugarran bailaretatik zetozenak ikusteko leku ezin aproposagoa zen".

## Udalaren baimena jaso berri

Iaz Arkeolan fundazioko ardura-dunek Santa Barbara parkearen behealdean gazteluaren dorre zati bat zegoela ziurtatzeko aritu ziren lanean, baina Urteagak azaldu digu aztertutako aztarnen datazioak ez dira ordukoak. Horrega-



Arkeolaneko Mertxe Urteaga Santa Barbaran lanean, iaz. | JOKIN BEREZIARTUA

tik Barrutiabengoak hasitako lanarekin jarraituko dute orain, indusketa eremua zabalduz: "Ea aztarna gehiago aurkitzen ditugun eta azalpen baliotsuagoak eman ditzakegun", dio Barrutiabengoak. Indusketak "ahalik eta azkarren"

hastea da asmoa, Udalaren baimena jaso dute-eta; eguraldiak laguntzen badu baliteke aste honetan bertan ekitea. Gunea altxatu eta ikertu ostean berriz ere dena estaliko dute, aztarnak behar den moduan mantentzeko.

# Arrasate Margo Taldeak elkartrukea egingo du

I.G. | ARRASATE

Arrasateko eta Urretxuko margo taldeek talentu trukaketa egingo dute. Gauzak honela, urretxuarrek euren margolanak Arrasatera ekarri eta bertan erakutsiko dituzte, horren bueltan Arrasateko artistek gauza bera egingo dute Urretxun.

Truke berezi hau hurrengo hilabetean martxan egongo da eta azaroaren 8an herriko harresi aretoak, elkartruke horren lehen fasea hartuko du. Urretxuko Arte Ederretako tailerreko ikasleen lanak azaroak 17 arte egongo dira ikusgai, eta gurean, beste herri batzuetan egiten diren artelanez gozatzeko aukera polita izango da.

Ziur arte zale askorentzat, truke hau, ikuspuntu berriak ezagutzeko parada ezin hobea izango dela.

# Landutako soinu elektronikoa eta power-pop berritzailea gaztetxean

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Badirudi hiriburuko taldeek gustua hartu diotela Arrasateko gaztetxeari. Aurreko astean Supersweet taldearen zuzenekoak ikusleak aho zabalik utzi eta gero, aste honetan, Kontxa inguruan sortutako beste talde bati egokitu zaio Kooltur Oste-gunetako musika maila handiari eustea.

Donostiako Correos taldea langilea eta, aldi berean, umoretsua da. Iraupen laburreko hainbat lan kaleratu ostean, La Oreja de Van Gogh taldeak urte batzuk lehenago egin zuen moduan, 2009an Donostiako Pop-rock lehiaketa irabazi zuten. Urtebete geroago, eta bertan lortutako izen onari esker, 2010ean iraupen luzeko *No es lo que parece* diskoa grabatu zuten Iker Piedrafitarekin. Hari esker, Espainiako jaijal-

di garrantzitsu askotan kontzertuak egin zituzten. Urte gutxiaren buruan industrian euren tokitxoak lortzeaz gainera, soinu propioa izatea ere lortu dute.

## Diskoetxe eta soinu berria

Orain, Warner Music-ekin kale-ratu duten *Espanjas para bañar el horizonte* izeneko disko berriarekin datoz, RTVEko *Los conciertos de Radio 3*-en ere aurkeztu dutena. Iñaki de Luca-sekin grabatu duten lanean, dotoretasunez landutako elektronikoa, baxu distortsionatuak, power-popa eta estribillo ugari aurki daitezke.

Kooltur-zaleek talde berezi bat ezagutuko dute, eta zale ez direnek, talde berritzaile bat ezagutzeaz gain, gaztetxeako ostegun bereziak ezagutuko dituzte.



ARRASATE HERRI ESKOLA

# Herri Eskolako guraso elkartekoak Toloñora

Arrasate Herriko Eskolak familien artean mendirako zaletasuna bultzatzeko asmotan jarraitzen du. Horregatik, dagoeneko egin dute ikasturteko lehen mendi irteera; hain zuzen ere, joan den domekan, motxila bete eta Toloño mendira (Araba) joan ziren. Guztira, 97 lagun, guraso eta seme-alaba, heldu ziren tontorrera. Egun-pasa ederra egiteko aukera izan zuten aurrean zituzten paisaia ikusgarrien laguntzarekin. Ez da, bada, azkeneko irteera izango.



IMANOL GALLEGO

# Edozein tokitan aparka daiteke?

Arrasateko erdigunean aparkatzea ez da erraza, baina askok autoa edozein tokitan uzteko ohitura hartu du. Bada, Alfontso X Jakintsua plazako bizilagun batek helarazi digunez, Grupo San Juaneko etxeen inguruan jendeak autoa edozein modutan lagatzen du: zebra-bideak edo, argazkiak erakusten den moduan, espaloi osoa hartuta. Bizilagun horrek esandakoaren arabera, oinezkoek oso zail izaten dute auzoko espaloietan normal ibiltzea.



Donostiako laukoteak urte gutxitan soinu propioa lortu du. | CORREOS



Jon Arroita eta bergararrak, iaz Herioren inguruan egindako lehen bisita gidatuan. | GOIENA

# Heriori buruzko euskal errituak ezagutzeko bigarren aukera

Bisita gidatuak izango dira asteburuan Angiozarren eta San Pedro parrokian

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Azaroaren 1a hurbiltzen doan heinean, urte guztian baino hurbilago sentitzen da heriotza eta utzi gaituztenak gogora ekartzeko beharra areagotzen da. Horretarako da, hain zuzen ere, Domo Santu Eguna.

Heriotza misterioz, beldurrez edo jakin-minez betetako gaia da; egon ezina sortzen die batzuei eta ahalik eta gehien jakiteko beharra besteei. Bakoitzaren fedearen albo batera utzita, pertsonen bizi lurtarraren amaiera esan nahi du baina behin betiko agurra emateko moduak errituak eta tradizioa sortu ditu.

Horren jakitun eta "heriotzari buruzko ikuspuntu bereziak erakusteko helburuarekin", Bergarako Udaleko Turismo Sailak *Herio Anderea (una noble señora): II. jardunaldiak* antolatu ditu. Beldurrak-edo eraginda, askotan ahaztu egiten da heriotza eta jardunaldi hauetan "Herio etxeko bat gehiago zeneko" garaira egingo dute jauzia.

Aurten ere Angiozar izango da jardunaldi horien erdigune. Izan ere, *Herio Anderearen bidean* izenpean bi bisita gidatu egingo

dituzte datorren asteburuan auzoan zehar. Egubakoitzean eta zapatuan izango dira bisitak, 11:00etatik aurrera.

Euskal ohituren berri emateko Angiozarko bizilagunekin landutako bisitak dira, heriotzaren gaineko errituak sustraitik berriro daitezkeela erakusteko balioko dutenak.

Aurten ere Elizmendi-San Migel ibilbidea egingo dute. Beraz, Elizmendiko Andra Mariaren inguruko bitxikeriak, Andikoetxe tolarre-baserrria eta Angiozarko San Migel eliza, eta sasoi batean baserrietan hiltzen zirenak lurperatu arte egiten zituzten errituak ezagutzeko aukera egongo da.

Berrikuntza moduan, duela gutxi eraberritu duten San Pedro parrokian egingo dute bisita gidatua azaroaren 3an. Irteera horretan parte hartu ahal izateko aurrez izena eman behar da Turismo bulegoan, 943 779 183 telefono zenbakira deituta.

## Erakusketa eta hitzaldia

Bisita gidatuak ez dira jardunaldien barruan antolatutakoekin tza bakarrak, izan ere, hitzaldia eta erakusketa izango dira eta

hauek ere Angiozar auzoa izango dute kokaleku.

Urriaren 30ean Juantxo Madariagak *Hila hobira, biziak ase(tze)ra. Ohiko hiletetan sortutako gatazkak* hitzaldia emango du 19:30etik aurrera Angiozarko saloian. Angiozarreko hilobien inguruan 1500. urtean izandako auzi bat aitzaki, hilobien esanahia eta hauen inguruko auziak izango ditu hizpide Madariagak.

Aurten argizaiolak hartu dituzte tradizioen berrikuntza azaltzeko elementu gisa eta asteburu guztian zehar argizaiolen erakusketa egongo da auzoan. Gerediaga Elkarrekin lagundu du erakusketa hau antolatzen.

## Karabana topaketa

Hilabetea kultura ondarea aztertuz hasi eta autokarabana topaketarekin amaituko da. Udalak autokarabanendako gune bat egokitu du Labegaraietan eta azaroaren 29tik abenduaren 1erako topaketak erabiliko ditu hori modu ofizialean inauguratzeko.

Udalak Sorbeltz elkarrekin batera antolatu du topaketa eta kanpoko zein Bergarako autokarabana zaleak gonbidatu ditu.

tzietako irakasle emerituaren itzultzaile lanak egingo ditu.

Azaroaren 10ean mahai-ingurua egingo dute eta Bergarako zentroko irakasleek parte hartuko dute bertan.

## Marrazki erakusketa

Psikomotrizitate praktika egiten ari diren haurren marrazki, ipuin, argazki eta abarrekin erakusketak egin nahi dute jardunaldietan. Herritarrei eskatu diete horrelakorik badute Bergarako ikasketxera eramateko.

# Antzerkiarekin hasiko da azaroko kultur egitaraua

I.E. | BERGARA

Azaroa kultur ekitaldiz beteta helduko da gurera. Ohi moduan antzezlanak, musika emanaldiak, zinema proiektzioak, ikastaroak eta erakusketak izango dira ardatz.

Hilabeteko lehen egunak berarekin ekarriko du lehen ekitaldia: Khea Ziater taldeak Zabalotegin eskainiko duen *Satisfaktion* antzezlan. Hilabetearren erditik aurrera haurrendako *Biolin magikoa* eta helduendako *Emaztegiaren semea* obrak ere izango dira ikusgai Zabalotegin.

Zinema zaleendako, sei film eskainiko dituzte azaroan. Eguazteneko egiten den zine klubean *Lola versus* eta *El lado bueno de las cosas* emango dituzte, besteak beste.

Musika formatu ezberdinetan helduko da, izan ere, DJ

emanaldiez gain, etxeko txikienek Kantarin parte hartzeko aukera izango dute. Aurten diskoteka itxura hartu du karaoke saioak.

Bestalde, Musika Bandak kalejira eta kontzertua egingo ditu Santa Zezilia egunez.

## Ikastaro ugari

Arlo ezberdinetako ikastaroak izango dira azaroan. Hilaren amaieratik abendura, esaterako, ahozko komunikazioan hastapen saioak emango ditu Amaia Arriaran klownak. Argazkilaritza ikastaroak data aldatu du eta azaroaren 13tik abenduaren 4ra izango da.

IKT astea egingo dute azaroaren 11tik aurrera eta sektore ezberdinetako pertsonen ikastaroak emango zaizkie: enpresariei, merkatari eta ostalariei, eta herritar orori.



Udal Musika Banda iazko jaietan egindako kalejiran. | GOIENA

## Pol Poleko beterranoak Canales del Dullara egingo dute irteera Domu Santu Eguneko asteburuan

Udazkena ezin hobeto ari dira aprobetxatzen Pol Poleko beterranoak eta asteburu honetarako beste irteera bat antolatu dute: Canales del Dullara (Burgos) joango dira asteburu pasatzera. Egubakoitzean irtengo dira, 06:00etan frontoitik. Txartelak 110 eurotan daude salgai mendi taldearen bulegoan. Antolatzaileek adierazi dutenez, irteera nahiko erraza izango da.

## Ordutegi aldaketak izan dituzte Oihulari Klownek asteburu honetarako antolatu duen klown saioek

Klownaz eta emozioez ikastaroa emango du asteburuan Oihulari Klown taldeak. Egubakoitzean, 17:00etan emango diote hasiera ikastaroari eta domekan bazkalondoan amaituko da. Kanpotik datorren jendearendako egokiagoa delako aldatu egin dute ordutegia eta horrek murriztu egin du prezioa: ikastaroa 180 euro kostako da, ez 250 euro. Izena eman edo informazio gehiagorako formacion@oihulariklown.org helbidera idatz daiteke.

## Bertan behera geratu da preso mugimenduak azaroko Zuerako espetxera antolatutako martxa

Presoen aldeko mugimenduak astelehenean iragarri zuen azaroaren 17an Zuerako espetxera martxa egingo zuela, Luis Mari Azkargorta 'Kanto' ikusteko. Azkenean, ordea, bertan behera geratu da asmoa. Azkargorta Parot doktrinak eragindako presoetako bat da eta Estrasburgoko Epaitegiak Pilar del Rioren auzian hartutako erabakiaren ostean, berandu baino lehen etxean izatea espero dutela adierazi zuen preso mugimenduak.

# Psikomotrizitate jardunaldiak Luzaro eskolaren urteurrenean

I.E. | BERGARA

Luzaro Psikomotrizitate eskolak 25 urte daramatza psikomotrizitateak haurren duen garrantzia lantzen. Eta urtemuga garrantzitsu hori ospatzeko *XI Psikomotrizitate praktikari buruzko jardunaldiak* antolatu ditu azaroaren 8tik 10era. Jardunaldiak Gasteizen izango dira eta *Gorpu-*

*tza haurtzaroan, haren zentzua eta esanahia izango du gaitzat.*

Urteurrena gogora ekartzeko jardunaldietan Europako ordezkariak zein Uned-Bergarako Luzaro Psikomotrizitate Eskolako irakasleek hartuko dute parte. Juan Cruz Polentinosek, adibidez, Ivan Darrault Limogeseko Unibertsitateko Hizkuntza Zien-





Irabazleak Maren Belastegi Gazteria zinegotziarekin batera. | ANE ETXEBERRIA

## 'Etxe huts' eta 'Naturaren edertasunak' txapeldunak

- ▶ Film Laburren Lehiaketako irabazleak ezagutzera eman ziren egunean
- ▶ Zazpi lan jaso ditu Udalak, horietako bost, bergararrek eginak

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Egunean, Film Laburren lehiaketako irabazleak nortzuk diren ezagutzeko parada izan zuten Zabalotegi aretora hurbildu ziren ikus-entzule guztiek. Izan ere, 3 urteko geldialdiaren ondoren, berriz ere martxan jarri dute aurtengoz behintzat, lehiaketa hau. Iraila amaierara arte lanak aurkezteko epea izan dute interesatuek. Guztira 7 lan aurkeztu dira eta horietako 5 Bergarako herritarrek eginikoak.

Josu Uribeetxeberria eta Ander Bolibarrek, beste hainbat

lagunekin batera eginiko *Etxe huts* film laburra izan da garailea. 400 euroko saria jaso dute eta oso pozik azaldu dira. Film irabazleak, 15 minutuko iraupena du eta gazte baten inguruko laburra da: Aritz, 25 urteko gaztea, etxe okupatu batean bizi da. Urteetan norbere bizitza proiektua aurrera eramateko oztopo ugariarekin topo egin du, baina badirudi okupa ideologian behin betiko txokoa aurkitu duela. Beste bi pertsonarekin bizitzen hasten denetik aurretik, bere bizitza ez da berdina.

Bigarren saria aldiz, Bergarako Lexeia Larrañaga eta Alex Gutierrezek lortu dute *Natura eta bere edertasunak* lanari esker. 300 euroko saria jaso dute eta film honen funtsa natura basati eta ikusgarriari arreta pixka bat eskaintzea da. Natura bere egoera garbian ikus daiteke.

Epaimahaiak oso zail izan du saridunak aukeratzeko orduan, Nagore Narbaiza Kultura teknikariak adierazi zuenez, "denetarikoa lanak jaso ditugu, bideo klipak, laburrak, dokumentalak... gaiak ere oso desberdinak izan



JOKIN URIBETXEBERRIA  
ETA ANDER BOLIBAR

"Lehen saria jaso dugu eta oso pozik gaude emaitzarekin. Grabazioa astebetean egin genuen, baina horren aurretik dagoen lan guztiak denbora asko eskatzen du. Irabazitako 400 euroekin afari goxo batez disfrutatuko dugu."



LEXEIA LARRAÑAGA ETA  
ALEX GUTIERREZ

"Bigarren saria irabazi dugu eta oso pozik gaude eginiko lanarekin. Natura asko gustatzen zaigu eta horregatik aukeratu dugu gai hau. Lan asko dago bideoaren atzetik. Hilabete askoko lanaren emaitza da".

dira eta epaimahaiak ez dute erraza izan". Mahai horretan, Antoni Zabala, zine aditua; Amaia Labaien, ikus-entzunezkotan aditua; Izaro Aperribai, Gaztetxe zineklubeko ordezkaria eta Maialen Madariaga laburmetrai zalea izan dira. Gazteria zinegotzi Maren Belastegi aritu zen sariak banatzen.

Udaletxetik, oso pozik azaldu dira Film Laburren Lehiaketak izan duen harreraz, "oso balorazio positiboa egiten dugu, hiru urteren ostean, berriz ere herritarrek animatu egin dira parte hartzera. 7 lan jaso ditugu eta horietatik 5 Bergarakoak, beraz, ikus-entzunezkoetan harrobia dugula esan dezakegu" adierazi du Kultur teknikari Nagore Narbaizak.

### Aurkeztutako beste lanak

Esan bezala, zazpi lan jaso ditu Udalak aurtengo edizioan. Hasiera batean hiru sari banatzeko idea zuten, lehen bi sarietan bergararren bat ez bazegoen, herriko lan onenari saria emateko,

baina azkenean, herritar batek saria jaso duenez, lehen eta bigarren sariak soilik banatu dira.

Beste parte hartzaileei dago-kionez, hauek izan dira egile eta euren lanen izenburuak: Unai Azkarate bergararraren *Baby Blues* (zirko italiarrean parte hartzeko gonbita jaso zuen eta lana han bizitakoaren emaitza da), Arrasateko Alfredo Crespo-ren *Angel* (kanta baten bideoklipa da), Jonek Albeniz eta beste lagun batzuen *Eta orain zer* (Zinea Orain plataformaren ibilbidean oinarritutako dokumentala), Bergarako Kale hezitzaileen *Ziur nago* (krisi ekonomiko eta sozietari aurre egiteko gazte talde batek egin ditzakeen aldaketen inguruan mintzo den laburmetraia) eta Jokin Oregi eta Mikel Larrañagaren *Sand, Sea and Spray* (Manchester ondoko Blackpool hirira egindako bidaiaz mintzo den laburra da). Denetarikoa lanak aurkeztu dituzte, beraz edizio honetara, eta sari banaketan harrera oso ona izan zituzten lanok, bertaratutakoaren artean.

## 'Mokorraren haustura nagusiengan' hitzaldia azaroaren 6an izango da

A.E | BERGARA

Mokor hezuraren haustura gertatzeko aukerak handitu egiten dira adinean aurrera joan ahala. Horrek ondorio kliniko eta sozial handiak ditu arazo hori sufritzen dutenengan eta baita hurbilekoengan ere. Hala, Debagoieneko Ospitaleko traumatologo eta zirujaua Iñigo Etxebarria Foronda Doktoreak bi hitzaldi eskainiko ditu, bata Arrasaten, eguazten honetan urriak 30, eta bigarrena

Bergaran, azaroaren 6an. Irizar Jauregian izango da hitzaldia 19:00tatik aurrera eta bertan jorratuko diren puntuak hauek: zer da berez mokorraren haustura, zergatik gertatzen da, gaixo eta senideengan duen eragina eta zer egin daitekeen ekiditeko. Iñigo Etxebarria ESIko Traumatologia Zerbitzuko eta Espainiako Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Osteoporosiaren Ikerketa Taldeko koordinatzailea da.

## Zero Zaborrek martitzenean burutuko duten agerraldian parte hartzeko deia luzatu du

Bihar, organiko zein errefusa jasotzeko ontziak banatzen hasiko dira eta hori aprobetxatuz, Zero Zabor taldeak agerraldia egingo du Azokan, 19:00tatik aurrera. Herritar guztiak agerraldian parte hartzeko deialdia luzatu nahi dute taldekoek eta bide batez, bergararrak zoriondu nahi dituzte "argi dago bergararrok orain arte barruan eraman dugun kezka honen aurrean ekintzetara pasatzeko gogoz gaudela. Eta gure hondakinen kudeaketa ardu-ratsua egiteko garaia iritsi dela" diote taldekoek.

## 'Badira Bagara' dokumentala eguaztenean

Tuterako Argia Ikastolaren gaineko dokumentala ikusgai, eguaztenean 19:00tatik aurrera.

A.E | BERGARA

Bergarako Jardun Euskara elkar-teak eta Aranzadi ikastolak elkar-lanean, Tuterako Argia Ikastolaren inguruan egindako *Badira bagara* dokumentala aurkeztuko dute Bergarako kultur etxean. Ekitaldia, proiektzioa eta hitzaldia, urriaren 30ean, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan izango da. Ekitaldi honetan, proiektzio emanaldiaz gain Tuterako Argia Ikastolako kideak egongo dira, bideoa aurkeztu ondoren Nafarroako erriberan jasaten duten egoeraren inguruan hitz egin ahal izateko.

Erriberako euskararen egoera salatzea helburu duen *Badira, Bagara* dokumentala Mondragon Unibertsitateko Marta Prol, Itxaso Frau eta Olatz Artolaren ikasleen karrera bukaerako lana izan

da. 27 minutuan irakasle, ikasle eta baita amonek ere, hezkuntza talde honen eguneroko lana azaltzen dute eta autoreen iritziz emakumeek paper bereziki garrantzitsu bat bete dute.

### Dokumentalaren sinopsia

*Badira Bagara* dokumentala euskararen eta Nafarroan hizkuntzak duen egoeraren inguruan mintzo da: "Euskal Herriko hizkuntza euskara da. Euskaraz mintzatzen dena, euskalduna. Europan sustairik luzeena duen hizkuntzetako bat da euskara eta sorrera garaietatik etenik gabeko historia izan du. Hizkuntza isolatua da, beste hizkuntza biziekiko ahaidetasun genetiko ezagunik ez baitauka. Hizkuntza minorizatu eta minoritarioa ere bada, hiztun gutxiko hizkuntza zapal-

dua baita. Biziraute prozesuan egon da betidanik, eta dago. Izan ere Euskal Herriko lurretan badira guneak non euskarak zapalkuntza handia bizi duen; Nafarroan esaterako. Euskararen Foru Legeak -1986- Nafarroako udalerrien artean mugak marrazten ditu, eta hiru gune ezberdintzen ditu: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez euskalduna. Ebro ibaiaren inguruan kokatu dago Erribera eta Tuterako merindeak osorik hartzen ditu. Euskaraz bizi ahal izateko euskaldunen esku-hartzea derrigorrezkoa da eremu honetan eta Argia Ikastola euskara bizirik jarraitzeko borrokan dabil. Oztopo instituzionalak gainditzeko determinazioa du".

Argia ikastola ikur da, euskaldunentzat, "zailtasunak bide-lagun izan arren euskararen alde egiten baitu. 28 urte daramatza Erribera euskalduntzen eta ibilbide honetan emakumeak izan dira ardatz. Sorreratik euskaratik eta euskaraz aritu baitira lanean, euskara sustatuz". *Badira Bagara* proiektuak errealtate hori plazaratu nahi du eta dokumentala da fruitua.

# Oñatiko zine kluba: 40 bat urte ... eta segi aurrera

Eguenean botako dute denboraldi berriko hirugarren filma, 20:00etan

OIHANA ELORTZA | OÑATI


Zine kluba noiz eskaintzen hasi ziren ez dute gogoan egungo antolatzaileek, bai, ordea, "aspaldikoa" dela. "70. hamarkadan hasi zela bai, baina egia esan ez dakigu zein urtetan izan zen. Hori bai, ordutik hona ez du etenik izan eta indartsu jarraitzen du. Herriko talde ezberdinekin batera ere antolatzen ditugu filmak, eta herritarrek maite dute zine kluba. Oso pozik gaude, gustura gabiltza", dio Anton Azpiatzuk, Anton Txintxurretarekin batera, egungo zine klubaz arduratzen dena.

## Elizatik gaztetxera

Garoa zinema aretoa izan zen zine klubaren lehen egoitza. Hantxe estreinatu zen ekimena. "Ni bigarren belaunaldikoa naiz, nolabait esatearren. Nire aurretik beste batzuk jarri zuten ekimen hori martxan. Tartean xiren Anton Apaolaza eta Pako Arregi agustindarra. Arregiren bidez hasi ziren, hain zuzen ere, Garoan ematen zine klubeko lehen filmak", kontatu du Azpiatzuk.

Handik urte batzuetara, filmak gaztetxean ematen hasi ziren. "Garai hartan hasi nintzen ni, Anton Txintxurreta eta Luis Aranbururekin batera, besteak beste. Super 8 eta 16 mm. formatuetan ematen genituen filmak, gogoan dut. Udalak zerbitzu hori eskaintzeko interesa erakutsi zuen gero eta horrela, Santa Ana-pasa ginen, eta handik, egungo zinema aretora", gogoratzen du Anton Azpiatzuk.

Azpeitiko enpresa baten bitartez ekartzen dituzte filmak azken urteetan. "Lehen urteetan geu arduratzen ginen, baina modu honetara askoz merkeagoa da eta



Kultura etxeko zinema aretoan izaten da zine kluba, eguenean. | O.E.

**DATUA**

**4**

ARETO EZBERDIN

Lau areto ezberdin izan ditu zine klubak historian: **Garoan, gaztetxean, Santa Anan eta kultura etxeko zinema aretoan.**

eurekin ere gustura gaudenez, horrelaxe jarraitzen dugu. Hala ere, filma batzuk geuk lortzen ditugu, batez ere herriko elkarte ezberdinekin antolatzen dituzten jardunaldien barruan ematen ditugunak", jarraitu du.

## Herriko taldeekin batera

Izan ere, herriko talde edo eragileek antolatzen dituzten jardunaldi ezberdinetako egitarau gehienetan, gaiari lotutako filma bat ageri ohi da. "Horren azken

adibidea da, esaterako, joan den astean botatutako filma, ARG! Argazki jaialdiaren barruan. Datorren hilean, berriz, Aloña Mendiko Mendi sailak antolatuko duen mendi hamabostaldia lotutako filma bat botako dugu, *Autana*. 25ean, berriz, Emakumeen Aurkako Biolentziaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta horren inguruko filma bat botatzeko ere eskatu digute horren bueltan lanean dabilen herriko taldeak. Natur Eskolako ingurumen astearen barruan ere beti aukeratzen dugu filma bereziren bat, eta berdin Martxoak 8 egunaren harira ere. Txileko lan bat dugu gordeta orduan botatzeko", aurreratu du Anton Azpiatzuk.

Bere esanetan, zine komertzialetik kanpo dauden lanak ekartzen saiatzen dira, baina, aldi berean, "ulertzeko oso zailak ez direnak". Herritarrek zine kluba maite dutela uste du Azpiatzuk, harrera ona duela herrian, eta eurak lanerako gogoz jarraitzen dutela azpimarratu du.

## Ostegun Kontalariak ekimena hasiko da berriz, eguenean

O.E. | OÑATI

Ostegun Kontalariak izeneko ekimenak hasiko da berriz, Udal Liburutegiak antolatuta. Umeendako zuzeneko ipuin kontaketa saioak egitea da ekimen horren helburua, umeak liburutegira eta liburutara erakarritik. Hileko azken eguenean izango dira saioak.

### Amaia Nekane

Eguenean hasiko du ikasturtea Ostegun Kontalariak programak. Amaia Nekane izeneko ipuin kontalaria etorriko da liburutegira, 6 eta 10 urte bitarteko umeei ipuina kontatzera. Beti-ko ipuinak eta zoparen bat

izena da ostegunerako aukeratu duen ipuinak. Haur liburutegian izango da ipuin kontaketa, urriaren 31n, osteguna, 18:00etan. Hara joateko, baina, gonbidapenak eskatu behar dira, ume kopuru zehatz batendako tokia dago-eta. Gonbidapenak haur liburutegian eskatu behar dira.

### Ume txikiak

Aurreko ikasturtean bezala, 3 eta 5 urte arteko umeendako saioak ere prestatuko dituzte kurtso honetan. Txandakatu joango da adin tartea horrela, hurrengo saioa txikiendako izango da.

## NIRE USTEZ

MAITE IRIZAR



## Arraunak heltzeko unea

Etxeko atarira heldu da. Badira urte batzuk krisi garaia gerturatu zela, baina denok zipriztindu gaitu. Langabezia, murrizketak, etxe desjabetzeak... eguneroko hizketa gai ditugu komunikabideetan eta oraingoan gertutik ukitu gaitu, Debagoienan.

Mondragon, zuzendaritza, kudeaketa txarra, hedapen nahia... erantzule jotzea erraza da, baina gaiak helduleku asko ditu eta sortu diren galdera askok ez dute inoiz barruak lasaitzeko besteko erantzunik izango. Kontua da ura leporaino iritsi zaila eta une hau balio kooperatiboak birplanteatzeko garai egokia dela uste dut. Fagor Etxetresnek iceberg batekin egin

dute talka eta gainontzeko ontzi edo txalupak bidaiariak salbatzeko inoiz baino ahalegin handiagoa egin behar dute. Ezin ahaztu, ezin direla konparatu Arizmendiarrietaren garaiko kooperatibismoa eta egun bizi dugun kapitalismo mozorro-takoa. Argi dago ez direla une berak, ez dira ez goxo ezta errazak ere, baina bada aldatetarako unea. Bestalde, norbanakotan pentsatuta, itolarri batek betetzen nau eta lerro hauek aprobetxatu nahi ditut, merezi duten errespetua helarazi eta animoak bidaltzeko. Gaurko egoera zein den badakigu, nahiz eta ondorioak etorkizunean ezagutuko ditugun. Beraz, batu ditzagun indarrak eta has gaiten ontzi eta txalupa guztiak noranzko berdinean nabigatzen. Orain, inoiz baino gehiago elkarlanerako garaia baita.

**"Orain, elkarlanerako garaia da"**



ELKAR HEZI

## Egiguren eta Amigoren gidari

Jesus Egigurenek eta Angel Amigok Oñatiko txoko esanguratsuk bisitatu eta horien gaineko informazioa jaso zuten, lehen eskutik, Lope Agirreri buruz berba egitera etorri zirenean. Elkar Heziko 3. DBHko ikasleek bisita gidatua antolatu zieten bie Kultur Ondarea izeneko ikasgaitik abiatuta. Talde argazkia ere atera zuten.



URGAIN

**LOMCE-ri ezetz esan dio Urganek ere, ozen**

LOMCEren eta hezkuntza arloko murrizketen kontra elkarretaratzea egin zuten egun arratsaldean Urganeko irakasle, guraso eta ikasleek Errekaldeko egoitzaren aurrean. *LOMCEri ez, gure eskola* pankartaren atzean batu ziren. Txantxiku Ikastolako hainbat irakasle, gurasok eta langilek, bestalde, Bilboko manifestazioan adierazi zuten hezkuntza arautu gura duen lege horren kontrako iritzia.

## ESKORIATZA

# Jolasparkeen alde egingo dute umeeek egunotan

Gaur, horma-irudiak margotuko dituzte eta herriko parkeetan itsatsi; eta bihar, osoko bilkura dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Azken hilabeteotan askotariko apurketak izan dira Eskoriatzan, hala nola, udal pilotalekuan edo liburutegi ondoan dagoen jolas parkean. Horren aurrean, Udalak eta herriko ikastetxeek elkarlanean, gaia haurrekin batera aztertu dute, eta apurketa horiei erantzuteko hainbat ekintza jarriko dituzte martxan.

Datozen asteotan egingo dituzte horiek. Esaterako, gaur, astelehena, Haur Hezkuntzako umeeek horma-irudiak margotuko dituzte. Luis Ezeizako neska-mutikoak

11:00etan hasiko dira horma-irudiak egiten liburutegiko eta Intxaurtxuetako jolas parkeetan; Arizmendikoak, berriz, 10:00etan egin dute hitzordua Aranburuzabalana eta Dorletan. Margotu ostean, esandako parkeetan itsatsiko dituzte horma-irudiak, horiek zaintzeko beharra aldarrikatzeko.

## Iritzia eman udaletxean

Horrez gain, bihar, martitzena, Eskoriatzako udaletxea hartuko dute umeeek; osoko bilkura dute eta 10:00etan. Apurketen gaineko



Liburutegi ondoko parkean zabua erreta. | MIRIAN BITERI

hausnarketa sakona egingo dute herriko ikastetxeetako neska-mutikoek, eta horren gainean duten iritzia ezagutarazteko aukera izango dute.

Datorren astean ere izango dute zereginik. Azaroaren 5ean, martitzena, bideoa grabatuko dute apurketen gaia oinarri hartuta.

## Iritzia eman udaletxean

Bestalde, jardunaldiak ere egingo dituzte azaroan. Hain justu, *Aldatzen* proiektua jorratuko dute. Besteak beste, elkarbizitza, errespetua, ingurumena eta apurketak bezalako gaien gaineko azterketa egingo dute Luis Ezeiza ikastetxeko eta Arizmendi ikastolako zenbait ikaslek.

## Toni La Salek 'Ipuin Lapurra' antzeztuko du asteon liburutegian

M.B. | ESKORIATZA

Haurren ikuskizuna dago eguean, 18:00etan, Eskoriatzako liburutegian. Hain justu, txo-xongilo eta aktore arteko erdibidean, ikusleen parte-hartze biziko *Ipuin lapurra* antzerki emanaldi berria izango da. Horretan Toni La Salek izozkien pos-

tu gurpildun bat bultzatuko du. Herriko plaza bilatuko du, bertan jartzeko eta izozkiak saltzeko. Halako batean, telefono dei harri-garria jasoko du. Bere izozki-saltzaile arropa moztorra baino ez dela esango diote, eta bere benetak eginkizuna... herriko banketxea lapurtzea dela!.



Janaren kartela. | TONI LA SAL

## Biharko osoko bilkuran ordenantza fiskalak landuko dira

Ezohiko osoko bilkura dago bihar, martitzena, Eskoriatzako udaletxean, 18:30ean. Beste gai askoren artean, datorren urteko ordenantza fiskalez, 2013-2015 urte arteko diru laguntzen plan estrategikoaz eta udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantza aldatzeaz jardungo dute.

## ARETXABALETA



Sei hilabete arteko umetxoendako dago zuzenduta ikastaroa. | LOREKA

## Haur masaje ikastaroa eskainiko dute azaroan Kurtzebarrin

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaleako Kurtzebarri eskolak ikastaroa antolatu du osterara ume txikiak dituzten familientzako. Hala, haur txikiei askotariko masajeak nola eman irakatsiko dute beste urte batez.

Azaroan zehar elkartuko dira horretarako. Hain justu ere, azaroaren 4an, 6an, 11n, 13an eta 18an eskainiko dute ikastaroa, eta izen-ematea dagoeneko zaba-

lik dago: interesa dutenek izena eman dezakete 943 79 00 49 telefono zenbakira deituta.

## Jantzi erosoak

Antolatzaileek jakinarazi dute 0 eta 6 hilabete arteko ume txikiei dagoela zuzenduta ikastaroa. Horrekin batera, parte hartzaileei gomendatu diete saioretara jantzi erosoak eta eskuoihalak eraman ditzatela.

## Elikagaiak batzeko boluntarioak bilatzen dabilta

Azaroaren 29an eta 30ean egingo dute kanpaina; txandak lau ordukoak izango dira

M.B. | ARETXABALETA

Gipuzkoako Elikagai Bankuak boluntarioak behar ditu azaroaren 29an eta 30ean elikagaiak biltzen laguntzeko. Kanpaina Gipuzkoako hainbat herritan egingo dute; tartean, Aretxabaletan. Supermerkatuan jasoko dira elikagaiak.

Egun bakoitzean lau orduko hiru txanda izango dira: 10:00etatik 14:00etara, 14:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 22:00etara. Boluntarioak, identifikazio-txalekoak jantzita dituztela, merkataritza-gunean sartzen direnei poltsa bana eskainiko diete; eta irteterakoan janariarekin bueltatzea eska-

tuko diete. Poltsak jaso eta egokitutako ontzietan utziko dituzte elikagaiak.

## Urriaren 30a baino lehen

Boluntario moduan aritzeko asmoa daukatenek mezua bidali behar dute [bagcoletas@gmail.com](mailto:bagcoletas@gmail.com) helbidera honako datuekin: datu-pertsonalak, telefono zenbakia eta lehentasunezko herria. Urriaren 30a baino lehen egin behar da eskaera.

Gipuzkoako Elikagai Bankutik jakinarazi dute boluntario guztiek edozein ezbeharren aurka aseguruia izango dutela; eta sarrera eta irteera orduetan aldatuta egin daitezkeela.

## NIRE USTEZ



OLATZ PAGALDAI

## Zabor Bor-Bor!!

Zaborrez bete zaigu ingurua: elikagaietan, pertsonen moralean, politikan, giza erlazioetan, komunikabideetan, hizkuntzetan, balkoietan.. Eta, gaur egun, zaborrekin hiru gauza egin daitezke: alde batetik, bere izaera mantenduz beste erabilpen bat eman: plastikoa, hizkuntza, olioia, morala...

Bestetik, kutsakorrak, erabilpen bakarrekoak, ondoren deuseztatu eta garbitu egin behar dira: esaterako, pilak, komunikabideak, ordenagailuak..

Eta, azkenik, zabor organikoak, konposta edo lur-ustela. Beraien izaera aldatu eta ongarrri bihurtzen direnak.

Zabor gehiegi dugu eta irtenbidea bilatu nahi badiogu bakoitzarekin zer egin erabakitzen hasi beharko genuke.

Eta horretan gaudela har dezagun gure zabor propioa: atez-atekoa. Ohitura aldaketa beharrezkoa dela agerian da, ba goazen orain arteko ohi-turak aldatzera eta joka dezagun denok modu ez ohizko batean: Ekologia ardatz izanda beste erabilpen edo hainbat planteamendu aurkeztuz.. Kutsadurak sortzen dituztenak, hondakinen produkzioa kontrolaraziz.. (elikagai enpresak, hauteskunde garaia, publizitatea..)...

Hori ikusten ez dugun bitartean, oso zaila da herritarrok lur-ustela bihurtzeko prest egotea. Gure ohi-turak aldatu eta gizartearen eraldaketan ongarrri bakar bihurtzeko prest.

## "Bakoitzarekin zer egin erabakitzen hasi beharko genuke"

## Datorren urteko egutegiaren azalaren bila dabil Murruxiko

Aretxabaleako Murruxiko mendi taldeak argazki lehiaketa jarri du abian. Irabazlearen lana 2014ko egutegiaren azalerako erabiliko dute. Egilearen datuak eta argazkien deskribapena aurkeztu behar dira, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara, lokalean, [zeinmurruxiko@outlook.com](mailto:zeinmurruxiko@outlook.com) helbidean, hilaren 29a baino lehen.



Aurreko astean Elgetan egindako batzar irekia, zaborrez. | LZ

**ELGETA**

## Zabortegei konbentzionalera doa, oraindik ere, Elgetan sortzen den zaborraren %60

Abenduko herri galdeketari begira Oxel Erostarbe alkateak aurreratu du Udalak azaroan abiaraziko dituela herritarrekin egin nahi dituen bilerak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hogei bat herritar elkartu ziren eguaztenean udaletxean egin zuten zaborren gaineko informazio hitzaldian. Eta udal ordezkariak ere izan ziren: Aralar-Independenteak taldeko Oxel Erostarbe eta Iban Retolatza, Bilduko Janire Lazkano eta EAJ-ko Maria Jesus Lete, hain zuzen ere. Hitzaldian izan zen, baita ere, Elgeta Zero Zabor Taldeko ordezkariak zabala.

Mankomunitateko bi teknikariak azaldu zuten herritarrek sortzen dituzten hondakinekin zer egingen den. Sailkatuta jasotzen diren hondakinek —Elgetan %39,90— badute irtenbide bat, nork berea. Nahastuta jasotzen den zaborra, ordea, zabortegeira doa; Elgetaren kasuan, %60. Problematika handia sortzen du zabor horrek: ingurumen arazoak, alde

batetik, eta gastu ekonomikoa handia, bestetik. Teknikariak jakinarazi zuten tonako 142 euro ordaintzen direla eta Elgetatik zabortegeira doan materiaren %80 sailka daitekeela. Hala, komeni da gehiago sailkatzea. Horren harira, udal talde politikoei adostuta dute hondakinen %70-80 sailkatzea heltzeko neurriak hartzea. Baita neurri horien gainean herritarrei galdetzea ere; Udalak abendurako iragarri zuten herri kontsulta. Hitzaldian, teknikariak esan zuten komeni dela gehiago sailkatzea, baita ondo sailkatzea ere. "Sailkatuta batutako hondakinek gai desegoki gutxi badituzte, erraztu egingen da tratamendua, eta, diru iturri ere badenez, Mankomunitatearendako komeni da ahalegina egitea", esan zuen Oihana Agirre teknikariak.

Azaroan bilerak herritarrekin

Beasaingo Sasietako zabortegeira doa Elgetan sortzen den zaborra. 2016rako, ordea, itxita behar dute zabortegei konbentzional guztiek. "Badago tartea, baina, Europatik datozen zuzentarauak ikusita, unea iritsi da Elgetan ere erabakia hartzeko", esan zuen Agirrek.

Abenduko herri galdeketari begira Oxel Erostarbe alkateak hitzaldian jakinarazi zuen Udalak azaroan abiaraziko dituela bilerak herritarrekin. Eta batzarre-joandako herritarrek galdetuta esan zuen Elgetako Udalak aurten aplikatuko duela auzokoposta eta auto-koposta egitearen aginduta dauden hobariak. Hondakinak bereizita jasotzeko herriko kaleetan ipintzekoak diren zakarrontzi berriak ere eskatuta daudela esan zuen.

**LEINTZ-GATZAGA**

## Ehiza kontuen azkena osokoa, eta ordenantza fiskalak aurrerantzean

Datozen asteotan eutsiko dio Udal Gobernuak 2014ari dagozkien ordenantza fiskalen gaiari

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Bukatu dira ehiza kontuak aurtengo ikasturteari dagokionez. Bukatu dira, ezen joan den aste-ko eguaztenean osoko bilkura berezia egin zuen udalbatzarrek, hain justu ere, behin-behinean erabakitako adjudikazioei behin betiko izaera emateko. Bestela esanda, enkante eta prozedura

negoziatuetan proposatutakoari onespina eman dio udalbatzarrek. Udaletxetik adierazitakoaren arabera, "tramite hutsa" izan da joan den aste-ko osoko bilkuran egindakoa.

Datorren urteko zergak

Gauzak horrela, datozen egunotan mahai gainean zerga kontuak

izango ditu nagusiki Udal Gobernuak; 2014ko ordenantza fiskalak, hain justu ere.

Osoko bilkuran landuko dute gaia, udalbatzarrek ohi duen moduan. Bertara proposamena eraman eta bertan hartuko dute erabakia. Ordenantza fiskaletan zehazten dena da zenbat ordaindu beharko duten gatzagarrek datorren urteko zergei dagokienez: zaborra, ura, IBIa... eta bestelakoak.

Edozelan ere, oraindik zehaztu barik dago osoko bilkura hori noiz egingo duten. Hori bai, ordenantza fiskalak urtea bukatu aurretik lantzen den gaia izanda, datozen asteotan egingo dute.

**ARAMAIO**

## Berdintasun egoeraren diagnostikoa, erraz kontsultatzeko moduan

Udalaren webgunean jarri dute iazko abenduan aurkeztutako txosten osoaren laburpena

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Berdintasun Plana egiteko diagnostikoa egin zuen iaz Udalak. Horretarako Daiteke gizarte aholkularitza enpresarekin aritu ziren lanean, Aramaion Berdintasun Plan eraginkor bat egiteko abiapuntua zehazteko. 2012ko urrian elkarrekin zein herritarrekin egin zituzten bilerak eta ekarpen haiekin zein Daiteke enpresako teknikariak jasotako informaziotik osatu zuten diagnostikoa.

Elkarteei dagokienez, elkarrekin sorrera-urtea, helburuak eta Udalarekin duten harremana galdetzez gain, bazkide edo partaideen artean eta ardura postuetan zenbat gizonetako eta zenbat emakumetako dauden

galdetu zuten. Orduan argi geratu zen Aramaio oso bizirik dagoen herria dela. Gazteria, Migrazioa eta Berdintasuna Sailak bideratu zuen ekimena eta batzorde hori izan da orain diagnostikoa Udalaren webgunean jarri duena: [www.aramaio.org](http://www.aramaio.org). Informazio guztia modu erraz baten kontsulta daiteke.

Kulturen arteko tailerra

Bestalde, kulturen arteko tailerra abiatu gura du Tau fundazioarekin batera. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dute bilera, azaroaren 9an (11:00-13:00). Ekitaldi irekia izango da eta urriaren 31a baino lehen izena ematea eskatu dute, udaletxean (945 44 50 16).



2012ko urrian herriko elkarrekin egindako bilera. | JOKIN BEREZIARTUA

**ANTZUOLA**

## Arratoiak akabatzekeo kanpaina abiatu du Udalak

Arratzen kanpainak egiteko beste enpresa bat kontratatu du eta egunean hasi zen lanean

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Azkenaldian herrian arratoi kopurua hazi egin da, eta, azterketa egin ondoren, Udalak zenbait ondorio atera ditu. Arratoi kopuruaren hazkundea inguruan egiten ari diren obrei egotzi die, "herriguneko bai, baina batez ere Abiadura Handiko Treneko eta errepede nagusiarren azpiegitura obrei".

Egoera hobetzeko hainbat neurri hartuko ditu, eta lehena arratzen kanpainak egiteko beste enpresa bat kontratatzea izan da. Joan den egunean hasi zen lanean. Orain arte erabilitako pozoia alde batera utzi eta gure inguruko baldintza klimatikoetarako "aurrerratuagoak eta egokiagoak" diren parafinatuzko blokeak erabili dituzte hemendik aurrera. Bloke horiek hezetasunarekiko

erresistentzia handiagoa dutela argitu dute Udaletik.

Kanpainaren emaitzen jarraipena egiteko herritarren laguntza eskatu du Udalak, arratzen bat ikustean abisua pasatzeko galdeginda.

Peoi baten kontratazioa

Gaurtik aurrera egin ahal izango da Udalak bost hilabeterako kontratatzekeo asmoa duen peoi lanposturako eskaria. Izena eman ahal izateko ezinbestekoa da Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe gisa erregistratuta egotea. Eskaria udaletxean egin beharko da, azaroaren 5a baino lehenago.

Baldintzak betetzen dituztenek hainbat ariketa gainditu beharko dituzte eta aukeratuak obra eta instalazio publikoen mantenuan ariko da.

# Goiena Klubeko urriko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



www.harremandenda.org



**Otarrak**  
**HARREMAN DENDARI** esker bidezko merkataritzako produktuez osaturiko 2 otar zozketatuko ditugu.  
Parte hartzeko sariaren izena: Harreman



## Realeko ekipamendua

**Etxeko txikiarentzat Realeko ekipamendua.**  
Parte hartzeko sariaren izena: Reala

**LORAMENDI**  
**INTERSPORT**



**ARRIKRUTZ**  
oñatiko kobak

**Sarrerak**  
**Arrikruz kobak** bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Debagoienako  
**BASERRI SAREA**  
Baserriko produktua

**Otarrak**  
**DEBAGOIENAKO BASERRI SAREA**ri esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar.  
Parte hartzeko sariaren izena: Baserrisarea




**PAMIELA**  
argitaletxea

**Liburuak**  
**Nola sentitzen zara?, Matiasen ametsa, Hartza ehizatzen goaz** umeentzako hiru liburu sorta  
Parte hartzeko sariaren izena: Liburu sorta



**PAMIELA**  
argitaletxea

**DVD-Liburuak**  
Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruza-ren **Paradisua eta katuak** errezitaldiaren hiru DVD-liburu.  
Parte hartzeko sariaren izena: Paradisua eta katuak



**3 DVD**  
**Azken Egunak Gurian.** Aitor Arregiren dokumentala.  
Parte hartzeko sariaren izena: Guria

### PARTE HARTZEKO:

**SMS:** KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

**Telefonoz:** 943 25 05 05

**E-postaz:** kluba@goiena.com

**WhatsApp:** KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Antzuolak ezin izan zuen garaipena lortu

- ▶ Azkenengo minutuan irabazi zuen Beriok
- ▶ Partidu nahiko orekatua izan zen, bi taldeak fin
- ▶ Bere atean gola sartu arren, etxeokak indartsu

| EMAITZA    |
|------------|
| ANTZUOLA   |
| <b>2-3</b> |
| BERIO      |

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Nahi eta ezin. Antzuola saiatu zen, behin eta berriz, baina ez zuen garaipena lortzerik izan, azkenengo minutuan Beriok gol bikaina sartu baitzuen. Hasiera-hasieratik partidu nahiko orekatua izan zen. Lehen zatian bi

taldeetako jokalariek presioa sartu eta aukera bat baino gehiago izan zuten. Beriok oso partidu ordenatua jokatu zuen eta Antzuolak, aldiz, joko oso bizia erakutsi zuen, azkar jokatu zuen, pase askorekin.

Lehenengo gola Berioko Pablok lortu zuen, estrategiazko jokaldi baten ondoren. Jon Iturbe atezain antzuolarrak ezin izan zuen ezer egin hura gelditzeko. Baina etxeok ez zuten amore eman eta lehen zatia amaitzeko 10 minutu eskas falta zirenean, Aranak, jokaldi polit baten ondoren, gola sartu eta partidua berdintzea lortu zuen. Ondoren beste aukera batzuk ere izan zituzten etxe-

koek. Josu Zubikarai eta Julen Arana behin eta berriz saiatu ziren, baina ez zuten zorterik izan. Lehen zatian, bi taldeek ondo jokatu zuten, baina etxeok baloi geldietan asko sufritu zuten eta Beriokoek min non egin jakin zuten.

### Bigarren zatian ere indartsu

Bigarren zatian ere, gogotsu eta indartsu atera ziren etxeokak, presio handia sartu eta aukera politak izan zituzten, baina 15. minutuan Iñaki Agirrek, arrisku gutxiko jokaldi batean akats bat izan eta bere atean sartu zuen gola. Baina elastiko gorridun mutilak ez zuten amore eman eta



Partiduko une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

dena eman zuten bigarrena sartu eta berdinketa lortzeko. Minutu gutxi batzuk besterik ez zituzten behar izan euren helburua lortzeko, izan ere, 19. minutuan gutxi gorabehera, Longaresek buruz gola sartu zuen.

Berdinketarekin nahikoa ez eta hirugarrena lortzeko aukera asko izan zituzten etxeokak. Baita Berioko jokalariek ere. Momentu honetatik aurrera, txartelak ateratzen hasi zen epailea; gutzira hiru antzuolarrak txartel horia ikusi zuten. Berioko bi jokalariek ere txartel horiarekin zigortuak izan ziren. Partidu orekatu honetan, akats ugari ere izan ziren, Berioko jokalariek

aukera bat baino gehiago barkatu zuten, baina Antzuola ez zen gutxiago izan eta, Arana protagonista, aukera arriskutsu eta interesgarri ugari izan zituen.

Bazirudien bi eta bikoarekin amaituko zela partidua, baina azkenengo minutuan, Erik Jimenez Berioko jokalariek gol ikusgarri eta bikaina sartu zuen. 2 eta 3koa izan zen, eta etxeok aurpegietan atsekabea eta amorrua irudikatu zen. Orduan, denbora galtze aldera, Berioko entrenatzaileak jokalariek aldaketak burutu zituen. Nahi eta ezin, Antzuola ez zen Berio baino gutxiago izan, baina azkenean hiru puntuak lortzerik ez zuten izan.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Aukeraz betetako partidu bikaina jokatuz, garaipena bergararentzat

Markagailura gol bakarra igo bazen ere, partidu zoragarria izan zen

| EMAITZA    |
|------------|
| BERGARA    |
| <b>1-0</b> |
| TOURING    |

A.E | BERGARA

Markagailura gol bakarra igo bazen ere, Aitor Arrate entrenatzaileak urteko "partidu onena" izan zela adierazi zuen. Arrate oso pozik azaldu zen bere jokalariek eginiko lanarekin eta erakutsitako jarrerarekin. Partidu

borobila eta aukeraz betetako izan zen, gerturatutako guztientzako liluragarria.

Lehenengo zatiko 28. minutuan sartu zuen gola Enekok eta, nahiz eta gehiago sartzerik ez lortu, lehenengo zatiko azkenengo minutuetan eta baita bigarreneko hasierakoetan, aukera garbi asko izan zituen Bergarak. Atezainaren aurrean bakar-bakarrik behin baino gehiagotan egon eta ezin izan zuten gol gehiago sartzerik izan. Markagailuan kopuru txikia ikusi arren, "partidu oso berezia jokatu dugu. Oso konpletua izan

da", adierazi zuen Arratek. Bigarren zatiko minutu askotan, partidua "jaun eta jabeak izan gara, ondo jokatu dugu bai defentsan eta baita erasoan ere, pena bakarra gol gehiago sartu ez izana da", adierazi zuen, pozik.

Partiduko gol bakarra lehenengo zatian eta Enekok sartu bazuen ere, protagonismoa ez zuen jokalariek bakar batek izan, "talde osoa izan da protagonista, orokorrean jokalariek guztiek partidu oso ona egin dute, ezin dut bat nabarmendu, guztiek eman baitute dena", esan zuen entrenatzaileak.

### Golik jaso gabe, lehen aldiz

Aitor Arrate Bergarako entrenatzailea defentsiboki eginiko lanaz harro zegoen, baita atea hutsean lagatzeaz ere, izan ere, "lehen aldia da ez dugula gol bat jasotzen eta aste guztian, entrenamenduetan, horretaz mentalizatzen ibili ondoren, gaurkoan lortu dugu atea zeroan ustea, oso garrantzitsua da hori", adierazi zuen, harro.

### Sailkapena

Bergara 11 punturekin sailkapeneko lehenengo postuetan dago, beste hainbat talderekin berdinduta. Hurrengo partidua etxetik kanpo izango du, baina ez dira oso urrutira joango, Aloñaren aurkako partidua baitaude azaroaren 7an. Derbia, beraz, txantxikuarrak mahone-roen aurka.



Bergarrek Agosorrinen jokatutako partiduko ur

26 | **SQUASH** | Euskadiko txapelketa jokatu da Arrasaten

**IÑAKI AGIRRE 'FRIS'**  
KAPITAINA

"Berio ez da gu baino gehiago izan. Partidu parekatua izan da gaurkoa"

Iñaki Agirre Fris, taldeko kapitaina, atsekabetuta zegoen partidu amaieran,



izan ere, zoritxarrezko protagonista izan zen bere atean gola sartu zuelako eta azkeneko minutuan partidua galdu zutelako, berriz ere.

**Partidu nahiko orekatua izan da, ezta?**

Bai, Berio ez da gu baino gehiago izan. Lehenengo zatian berotzen aritu naiz eta ez dut asko ikusi, baina nahiko parekatuta ibili gara. Eurek aukera asko izan dituzte eta guk ere aukera garbi ugari izan dugu.

**Azkenengominutu angaltzea triste da, ezta?**

Bai, egia esan behar bada. Partidu ona egin dugu, aukera asko izan ditugu, baina ez dugu jakin jokaldie amaiera ona ematen. Beriok, aldiz, bai, aukera asko izan ditu eta jakin egin du azken pauso hori ematen. Gainera, azkeneko hainbat partidutan gaurko gauza bera gertatu zaigu: aukerak izan eta, hala ere, azkeneko minututan partidua galdu dugu.

**Zoritxarrez, protagonista izan zara, gola zuen atean sartzeagatik...**

Bai, hala da. Pena izan da.

#### FITXA TEKNIKOA

**Antzuola:** Jon, Julen, Asier, Imanol, Atxen, Markel, Bak, Josu, Aitor, Ander, Oinatz. Aulkian: Marda, Fris, Txanbo, Jontxu, Hasier, Faran eta Mikel.

**Berio:** Luis, Plaza, Pablo, Joel, Aimar, Xabi, Beraza, Toki, Axi, Villena, Guerrero. Aulkian: Javi, Gorka, Pikabea, Igor, Erik, Mani eta Martinez.

**Beste:** Asteburu luzean jokatuako partidua izan bazen ere, nahiko jende hurbildu zen Eztala futbol zelaira. Partiduaren amaieran, atsekabea eta amorrua izan ziren nagusi etxekoan aurpegietan, azkenengo minutuan hiru puntuak galtzeak min handia egin zien eta jokalariei.



#### OHOREZKO ERREGIONALA

# UDAK berdindu eta Aloñak galdu egin zuen

UDAK jokatuako partidua 0-0 amaitu zen eta Aloñak bigarren zati ahul batean galdu zuen, 0-1

A.E | ARRASATE

UDAK jokalariek partidu ona jokatu zuten, Alberto Albistegi entrenatzailearen esanetan: "Bigarren zatian lehenengoan baino hobeto jokatu dugu, baina ezin izan dugu golik sartu. Lastima, partidu ona egin dugulako". Nahiz eta aretxabaletarrek ere punturik ez lortu, entrenatzailea oso pozik azaldu zen jokalariek eginiko lanarekin. Azkenean, huts eta

huts egin zuten Anaitasunaren aurka.

#### Aloñak ezin irabazi

Aloñako entrenatzaile Andoni Azkargortak taldeak bi aurpegi izan zituela adierazi zion GOIENARI: "Bi aurpegi izan ditugu, bata lehenengo zatian erakutsi duguna, oso ondo ibili gara eta lehenengo 45 minututan, aukerak izan ditugu, baina ezin izan dugu golik

sartu. Bigarren zatiko lehen minutuetan gola sartu digute eta hortik aurrera ezin izan dugu ezer egin".

Akats asko egin zituzten oñatiarrek, baina "akatsak zuzendu eta horietatik ikas-teko balioko digute", zioen Andoni Azkargorta entrenatzaileak. Aloñak Hondarribian jokatu eta galdu duen lehentariako partidua izan zen zapa-tukoa.

#### ERREGIONAL MAILA

# Urola gehiago izan zen, eta Mondra, burumakur, punturik gabe itzuli zen etxera

A.E | ARRASATE

Erregional preferente mailan bosgarren jardunaldia jokatu dute asteburuan. Arrasateko futbolariak, gainera, aurkari gogorra bisitatzen joan dira, Urola talde liderra, zehazki.

Arrasateko taldeak Zumarragara egin zuen bidaia eta partidu eskasa jokatu zuten. Izan ere, gol asko jaso zituzten; guztira, sei. Azken emaitza 6-1 izan zen.

Aurreko jardunaldian garaipena lortu zuten Ilintxaren aurka eta horrek konfiantza hartzeko aukera eman zion taldeari, baina, asteburu honetan, ezin izan dute ezer egin. Urola lehenengo da sailkapenean, eta jokatu dituen partidu guztietan garaipena lortu du; ez du, hortaz, porrotik ezagutu oraindik ere.

#### Neskek atsedena

Mutilek ez bezala, Mondrako neskek atsedena asteburu izan dute. Momentuz ez dute partidu bat ere irabazi eta azkenengo daude sailkapenean. Datorren asteburuan, baina, partidua izango dute, eta zaila, gainera, liderraren aurka jokatu baidute Mojategin. Pauldarrak talde bizkaitarra izango da, beraz, Arrasaten. Talde liderrak 18 puntu ditu, eta arrasatearrek, aldiz, huts.



Mojategin jokatuako partidu batean. | GOIENA

## AURKEZPENA

# 1a 400 gaztetxo eta 16 talde, Arizmendi Kirol Elkartean

- ▶ Kirol taldeak aurkeztu zituzten egubakoitzean
- ▶ Talde batzuek hasi dute denboraldia dagoeneko

MIREN ARREGI | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako Kirol Elkarteak egin du bere kirol taldeen aurkezpen ofiziala. Egubakoitzean izan zen hori Aretxabaletako Ibarra kiroldegian; kirolarien guraso eta lagunek ere ez zuten hutsik egin, izan ere, dezente ikusi genituen harmailetan.

Taldeak banaka atera ziren kantxara. Lehena ateratzen futboleko kadete mutilen taldea izan zen. Ondoren etorri ziren gainerrako guztiak; denera, hamabi, Arizmendi Kirol Elkartearen osatzen duten taldeak, guztira, hamasei badira ere. Hain zuzen ere, eskaladako taldeak, mendi lasterketakoak edo boleibolekoak, beste batzuen artean, ezin izan zuten aurkezpenean egon.

Hauek dira Arizmendi Ikastolako Kirol Elkartearen taldeak. Futbolean, honakoak: Arizmendi-Mondra infantil neskek; Arizmendi kadete neskek, senior neskek, infantil mutilak, kadete mutilak, jubenil mutilak, senior mutilak eta futbol eskolako neskek. Denera, 149 futbolari. Igeriketean, benjamin, alebin, infantil eta

kadeteak daude. Denera, 61 lagun dira. Bestetik, areto futboleko taldeak daude: hemen guztira 86 kirolari dira, lau taldetan banatuta: Arizmendi-Eskoriatza areto futbol eskola, Arizmendi Eskoriatza infantil mutilak, Arizmendi-Aitzorrotz infantil mutilak eta Arizmendi-Eskoriatza kadete mutilak. Eta horietaz aparte, bada go kadete nesken saskibalo taldea, eskaladako taldea, mendi laster-

ketetakoak edo boleibolekoak. Guztira, ia 400 lagunek osatutako kirol elkarte da Arizmendikoa.

Aurkezpenaren ostean, pozik ikusi genituen neska-mutikoak. Ikasturteari gogor ekin diotela eta kirola egiteko gogotsu daudela diote; irabazteari baino gehiago, egiteari eta saiatzeari ematen diotela garrantzia eta primeran pasatzen dutela entrenamendu eta partiduetan.



Futboleko senior nesken taldea. | MIREN ARREGI




Arizmendi Ikastolako Kirol Elkarteko aurkezpenean egon ziren talde guztiak. | MIREN ARREGI



Futboleko kadete mutilen taldea. | MIREN ARREGI



Arizmendi-Aitzorrotz, areto futboleko infantilak. | MIREN ARREGI



**HODEI**  
ARETO FUTBOLA

"Hau da bigarren urtea. Ezin da esan ona naizenik, baina moldatzen naiz. Etxean aspertuta egoten naiz eta gustatzen zait kirola egitea eta horregatik eman dut izena. Gustura jokatzen dut".



**MALEN ETA URKO**  
IGERIKETA

"Gustatzen zaizkigu igerilekua eta uretako kirolak. Txapelketak-eta egin izan ditugu, baina nahiago dugu egunerokoa. Entrenatzen oso ondo pasatzen dugu. Sasoian egoteko modu ona da".



**EIDER ETA ALAITZ**  
FUTBOLA

"Partiduak jokatzen primeran pasatzen dugu, nahiz eta ez dugun askotan irabazten. Gogo handiagoa jarri beharko dugu aurten, serioago hartu eta entrenatzaileari kasu handiagoa egin".



Igeriketako benjamin taldea. | MIREN ARREGI





## ERRUGBIA

# 43-42 irabazi zuen ART-k, tentsio handiko partiduan

5 puntu eskuratu zituen ART-k Mojategin zapatuan, Bera Beraren kontrako partidu "zoroan"

**MIREN ARREGI** | ARRASATE  
Arrasateko Mojategin jokatu zuen partidua ART errugbi taldeak zapatuan Bera Bera donostiarren kontra. "Partidu zoroa izan zen", dio Igor Isasi entrenatzaileak. Hala ere, irabaztea lortu zuten, 43-42 emaitzarekin. "Partiduaren hasieran min hartu zuen gure jokalaria batek eta, harrezkero, 15 lagunekin jokatu behar izan genuen". Gainera, txartel gorri bat atera zion epaileak Arrasateko taldeari, eta ez hori bakarrik, baita lau txartel hori ere -txartel

gorriak zuzenean kaleratzen du jokalaria, eta horiak, 10 minuturako. "Txartelen erdiak arrazoi osoz erakutsi zizkigun, baina beste erdiak, ez", zioen Isasi: "Uste dut epaileak ez zuela ondo jokatu", gaineratu zuen.

Horiek guztiak kontratan izanagatik ere, esan bezala, irabaztea lortu zuten, nahiz eta tentsio handiko partidua izan zen: "Gure entsegu baten ostean, euren zetorren eta horrela ibili ginen partiduen bukaerara arte. Denbora guztian, entsegu bat gora-behera

eta horrek tentsio handia sortu zuen". Ez hori bakarrik, izan ere, partiduen bukaeran Bera Berak zigor kolpe bat egiteko aukera izan zuen. Huts egin eta horri esker irabazi zuen Arrasatek. Horiekin guztiarekin ere, Isasi pozik zegoen taldeak egindako lanarekin: "Orokorrean, ondo ibili ginen". Azpimarratu zituen aurrelarien lana eta bereziki Jokin Dolara jokariarena, hura izan baitzen partiduko onena. Datorren zapatuan, Lekarozen jokatu du Arrasatek, Baztanen kontra.

**URTZI AMIANO** | KIROL ELKARTEKO ARDURADUNA

## "Arizmendik hezkuntza integrala eskaintzen du"

Urtzi Amiano da Arizmendiko Kirol Elkarteko arduradunetako bat. Harekin izan gara, kirol taldeen aurkezpen ekitaldian.

**Zenbat eta zenbat talde eta neska-mutiko!**

350 eta 400 bitartean dira Arizmendi Kirol Elkartearen barruan diharduten neska-mutikoak. Horiek guztiak 18 bat taldetan banatuta daude.

**Martxa hartuta dagoeneko?**

Bai, futbol taldeak, esaterako, abuztu bukaeratik ari dira entrenatzen-eta; igeriketakoak edo areto futbolekoak, beranduxago, eskola artekoak direlako.

**Lana egongo da horren guztia- ren atzean...**

Kirolari bakoitzak bere nortasuna dauka kirolaren alorrean, eta datu horiek guztiak bete behar izaten dira. Alta eman mutua- litatetan eta hori guztia prestatu behar izaten da partiduetan hasi aurretik.

**Arizmendi Ikastolak kirolaren aldeko apustua egiten du, hori argi dago.**

Identitatea sendotzea da helburua. Arizmendi Euskal Herrian dagoen ikastola handienetakoa da eta bultzatu gura duguna da euskararekiko eta kirolarekiko identitatea lortzea. Hezkuntza integrala gura dugu, herrira zabalik dagoen zerbait izatea, gure ikasle direnendako eta kirola gus- tuko duten guztiendako.



MIREN ARREGI

**Horren adibide, kirol taldeetan ikastolaz kanpoko jendea ere badagoela.**

Bai. Hasteko, daude ikasleak direnak eta ikasle ohiak. Ikastolan inoiz egon ez direnak ere badaude. Kirola egiteko gogoz badator,

guk ateak zabalik ditugu.

**Kirolarloan diharduzuenen arteko sarea sortzen da horrela, nola-bait.**

Bai, noski. Harreman oso estuak ditugu UDA, Mondra, Eskoriatza Kirol Elkartearekin, kirol etxeekin... kirol alorrean dabiren jende guztiarekin. Azken batean, denok bide beretik goaz eta denon helburua da bailaran ahalik eta kirol gehien egitea, betiere zentzuz.

**Kirola ez baita lehia soila.**

Emaitza garrantzitsua da baina beste modu baten ere ikusi behar da kirola. Noski, irabaztea beti pozgarria da baina garrantzia handia ematen diogu egiteari.



Mojategin, zapatuan, Arrasateko errugbi taldea lanean. | JOSETXO ARANTZABAL

## ESKUBALOIA

### 23-28 irabazi dio Ford Mugarrik Amazsa Urdanetari

Loiun jokatu zuen partidua zapatuan Ford Mugarrik Amazsa Urdanetaren kontra. Lehia bizia izan zuten bi taldeek, izan ere, biak oso pareko aritu ziren partidu guztian zehar. 10. minutuan, markagailua 5-5 zegoen, baina, hortik aurrera, arrasatearrak gailentzen hasi ziren. Hain zuzen ere, lehenengo zatia gol bateko aldearekin amaitu zuten (12-13). Bigarren zatia ondo hasi zuten arrasatearrek, baina minutuek aurrera egin ahala, Urdaneta geroz eta gertuago zuten. Azkenean, gogor lan egin ostean, partidua irabaztea lortu zuten.

## SASKIBALOIA

### Defentsa lan onari esker irabazi zion MUK Goierriari zapatuan

Sailkapenean azkenengo postuetan egonagatik ere, lan handia eman zion Goierriki MUKi zapatuan jokatu zuten partiduan. Arrasatearrek irabazi bazuten, defentsan egin zuten lan onarengatik izan zen, izan ere, erasoan petral aritu ziren. Partiduaren hasiera ez zen ona izan. Bi taldeak nahiko trakets ateratu baitziren kantzara. Goierriki, baina, azkar lortu zuen partiduan sartzea eta hala, gainera jarri zen markagailuan. Bigarren zatian gogor atera zen MUKi eta defentsa lan bikainari esker, kontraerasoak egiteari ekin zioten. Azken laurdena izan zen zatirik onena arrasatearrendako eta markagailuan igarri zen. 54-64 irabazi zuten.

## ARETO FUTBOLA

### Eskoriatzak ezin izan zion Gallartari irabazi, partidu lehiatu baten

Partidu lehiatua izan zen atzo Meatzari Gallartaren kontra jokatu zuten. Itxuran aritu arren, Eskoriatza ezin izan zitzaion aurkariari gailendu eta, azkenean, 1-3 galdu zuen. Lehenengo zatia 1-0 amaitu zuten. Debagoienak izan zituzten aukerak, baina horiek ez ziren golean amaitu. Bigarren zatian indartsu ateratu ziren eskoriatzarrak, eta gol ikusgarri bati esker, 1-2koa lortu zuten. Ondo aritu ziren eta une baten aurrea hartzeko aukerak bazituztela uste izan zuten, baina, partidua bukatzeko minutu baten faltan, kontrakoak hirugarrena sartu zuten.



Squash jokalaria, txapelketa ostean egin zen sari banaketan, Musakolako kiroldegian. | MIREN ARREGI

## SQUASHA

# Villanueva txapeldun Squash Txapelketa absolutuan

- ▶ Aritz Gordo arrasatearra laugarren postuan geratu zen zapatuan
- ▶ 30 gizonen eta bi emakumen hartu zuten parte aurtengo txapelketan

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Arrasate Kirol Elkarteke Squash taldeak 2013ko Euskadiko Txapelketa absolutua antolatu zuen pasa den asteburuan Arrasateko Musakolako kiroldegian. 32 jokalarik hartu zuten parte: AKE Squasheko 12 jokalarik, Eibarreko bostek, Sestaoko Benedikta Squash taldeko hiruk, Iruñeko Oberena taldeko hiruk, Hondarribiko Lur-Alai taldeko beste hiruk, Gasteizko Free-Squash taldeko bik, Iruñeko Amaya taldeko beste bik, Zarauzko bateko jokalaria independente batek.

Egubakoitzean hasi zuten txapelketa lehen kanporaketa partiduekin, Musakolan. Zapatu goizean ekin zioten final-laurdeneko eta finalurreko partidei eta arratsaldean final partidak egin ziren.

Amaya taldeko Javier Villanueva eta Oberena taldeko David Marin jokalaria izan ziren finala jokatu zutenak; azkenean, joko polit bat eta gero, Villanueva nafarrak eraman zuen txapela.

Finalurrekoan, Amaya taldeko Liam Kane ingelesa gelditu zen hirugarren eta Aritz Gordo

arrasatearrak laugarren postua eskuratu zuen.

### Emakume jokalaria gutxi

Lagunarteko giroan igaro zuten aste bukaerako txapelketa, adin, sexu eta toki askotako jokalaria izan arren. Azpimarratzekoa da nesken partaidetza nahiko urria izan zela: bi emakume hartu zuten parte soilik. AEK Squash taldeko Laura Saez eta Itsaso Villar izan ziren emakumezko bakarrak eta lehenengoak eraman zuten emakumezkoen txapela. Hala ere, lagunarteko txapelketa

izan zenez, gizonenekin ere jokatu zuten Saezek eta Villarrekin.

### Debagoienar ugari jokoan

Esan bezala, AKE Squash taldeko 12 kidek hartu zuten parte Euskadiko Squash txapelketa absolutuan baina bost izan ziren gehien-gehien gailendu zirenak: emakumeetan, aipaturiko Saez eta Villar; junior mailan, txapeldun geratu zen Xabier Gorosabel, Aritz Gordo laugarren postuan eta zortzigarren postua eskuratu zuen Harriet Arenaza.

IÑAKI URIBEETXEBERRIA  
AKE SQUASHEKO

"Balorazio oso positiboa egin dugu AKE Squash taldearekin. Askotan kosta egiten da koadro bat betetzea 32 jokalarirekin".

JAVIER VILLANUEVA  
EUSKADIKO TXAPELDUNA

"Txapelketa gogorra izan da nahiz eta finala samur irabazi dudana. Giro oso polita egon da eta ederto ondo pasatu dugu denok".

LAURA SAEZ  
EMAKUMEZKO TXAPELDUNA

"Neska gutxi hartzen dute parte halako txapelketetan, horregatik mutilekin ere jokatu dut gaurkoan. Hala ere, ederto pasatu dugula ere egia da".

Aritz Gordo arrasatearrak jokatu zuten finalurrekoan izan zen partida maitatuenetarikoa ikusleen artean. Liam Kane ingelesarekin berdinduta zegoela bigarren jokoan, Kanek aurre egin zion azkenengoan.

## TXIRRINDULARITZA

## Euskadi Fundazioak txirrindulari taldeari eutsiko dio Ner-i esker

Jon Odriozola izango da Kontinental mailako taldeko zuzendari teknikoa

MIREN ARREGI | OÑATI

Euskadi Fundazioaren txirrindulari taldeak aurrera jarraituko du, Ner Group osatzen duten 21 enpresa taldearen tartean da Bergarako Royde enpresa- babesari esker. Kontinental mailako txirrindulari taldea Ner Groupek koordinatuko du eta kirol arloa eta arlo teknikoa Jon Odriozolaren ardura izango dira. Pozik eta lanerako gogoz dago Odriozola, euskaldunontzako sekulako albistea dela uste baitu: "Txirrindulari proiektu bat egotea, kontutan

## ESANAK

**"Guztion artean euskal txirrindularitza proiektu sendo bat sortzea da garrantzitsua"**

JON ODRIOZOLA | KIROL ARDURADUNA

izanda zein egoeratan gauden, oso pozgarria da". Gaineratu du Euskaltel taldearen desagertzea zartada handia izan dela, bereziki erreferente profesionalak galdu direlako, eta Euskadi Fundazioak jarraipena emango diola. Esku artean duen erronkaren gainean galdetuta dio dena martxan ipintzea dela lehentasuna, federazioarekin hitz egin eta amateur maila teknifikatzea: "Hau proiektu profesional bat da, behera begirakoa eta jendearren formazioa kontutan izan behar duena".



Jon Odriozola Goienako platoon. | GOIENA

2014an errepideetan ikusiko dugun Kontinental mailako taldeari dagokionez, dio guztiek jarraitzea ezinezkoa izango dela baina Mikel Aristi bergararrarekin kontaktatzen duela: "Nola ez

dakit, baina argi dago harekin kontaktatzen dudala". Azpimarratu du hau izan behar dela euskal txirrindularitzak duen proiekturik garrantzitsua eta horri begira lan egin beharko dutela.

## ATLETISMOA

Fernando Cobos | Canicross-eko korrikalaria

# "Txakurrarekin batera korrika egitean, tandema osatzen dugu"

- ▶ Azaroaren 9an eta 10ean Gorlan jokatu den canicross lasterketan parte hartuko du
- ▶ Beteranoen mailan hiru urte daramatza lehiatzen, Euskanicross izeneko taldean

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Fernando Cobos (Beasain, 1959) ingeniari teknikoa da, baina beti gustatu izan zaizkio txakurrak eta baita korrika egitea ere; beraz, bi pasioak uztartu, eta orain dela hiru urte canicross txapelketetan parte hartzeko esperientziari ekin zion. Azaroaren 9an eta 10ean Gorlan jokatu den txapelketan izango da, baina aurretik, aste-bete lehenago Burgosen izango da beste lasterketa batean. Geldirik egoten ez den horietakoa da Cobos...

**Azaroaren 9an eta 10ean lasterketa izango da Gorlan, 8 kilometroko ibilbidea; zein da zure asmoa lasterketa horri begira?**

Nire asmoa ondo pasatzea da eta nire kategorian, hau da, beteranoen mailan, Gipuzkoako lehen hiru postuetako bat lortzea. Egia esan, ez gaude asko maila horretan lehiatzen, baina gaudenon artean lehiakortasun handia dago.

**Zer ikusi eta bizi izateko aukera izango dugu Gorlan?**

Zapatu arratsaldean lau proba ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek. Karro proban bi modalitate daude: bata, sei txakurrekin tira egiten dena; eta bestea, zortzi txakurrekin egiten dena. Beste proba bat txakurrek tira eginez eta bizikletaz ibilbidea egitea da eta beste bat, txakurrek tira eginiko patin lehiaketa. Patin horrek bizikleten moduko gurpilak ditu, balaztak ere baditu eta txakurra tira eginez joaten da. Horrenbestez, zapatuan, lau proba horietan parte hartuko duten kirolari eta txakurrak izango dira protagonistak. Domekan, aldiz, lau proba horietako bigarren txanda jokatu da, goizeko bederatzietan. Eta 11:00etan ekintza garrantzitsuen izango da; hau da, canicross lasterketa bera. 100 bat txakur etorriko dira korrika egitera; beraz, txakur asko. Nik canicrossean parte hartuko dut, gehien gustatzen zaidan modalitatea da eta jokatzeko diren lasterketa gehienak modalitate honetakoak izaten dira.

**Eta zertan datza canicross modalitatea?**

Txakurrarekin korrika egitea da canicrossa. Txakurra beti aurretik eramane behar da. Izan ere, txakurra atzetik joaten bada, epaileak puntuak kentzen ditu; hortaz, beti aurrean. Txakurrak arnes homologatua darama eta gu beti atzean goaz arnes batekin eta soka elastiko batekin kolpeak



Fernando Cobos bere txakurrarekin batera korrika. | FERNANDO COBOS

arintzeko. Lotuta goaz eta batera korrika egiten dugu. Garrantzitsua da txakurrarekin batera erritmoa hartu eta indarrak kontrolatzea, esfortzu handia baita txakurrarentzat.

**Eta erritmoa nork jartzen du, txakurrak ala zuk?**

Erritmo berean joan behar dugu; biok indartsu bagaude eta biok ahal badugu, azkarrago joango gara. Tandem bat da, azken baten. Txakurrari aginduak ematen zaizkio, azkarrago joan dadin, aldapa behera lasaiago... Izan ere, bion artean elementu bakarra osatzen dugu.

**Entrenamenduak, orduan, gogorak izango dira...**

Txakurrari erakutsi egin behar zaio norberaren aurretik joan behar duela, baina, behin ikasi duenean, txakurra solte eramatea

gustatzen zait. Hori bai, lasterketa garaian arnesarekin lotuta eramaten dut. Kontua da oso gogorra dela kirol hau txakurrarentzat; izan ere, bularretik egiten du tira txakurrak eta oso gogorra da harentzat. Asko nekatzen da, oso esfortzu handia da. Txakurrarentzat, 8 kilometro arnesetik tiraka aritzea 30-40 kilometro solte egitea bezala da. Hori dela eta, lasterketa guztiek kilometro kopurua mugatuta dute, guztiak 6 eta 10 kilometro artekoak izaten dira.

**Nolakoa da zure txakurra?**

Bi txakur ditut. Azkenengo bi urteetan, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan erabili dudana ehizarako setter ingeles bat da. Iaz beste bat hartu nuen, tira egiteko txakurra da, korrika egiteko espezifikoa. Baina, egia esan,

ez dago txakur konkreturik lasterketetan parte hartzeko, guztiek balio dute: handiak, txikiak... Edozelan ere, egia da tira egiteko eta korrika egiteko txakur proposagoak ere badaudela.

**Lehen aldiz jokatu du canicross lasterketa bat Bergaran; pozik zaudete etxean aritzeagatik?**

Bai, oso pozik nago etxean aritzeagatik, beti eskertzen da. Kontua da Donostia aldean gure bailaran baino zaletasun handiagoa dagoela eta bertan daudela canicrossean aritzen diren korrikalariak. Hemen inguruan Elgoibarko bat eta ni gabiltza. Baina bai, oso pozik, ia horrela gure inguruan zaletasuna indartzea lortzen dugun eta datorren urtean ere lasterketa hau antolatu ahal dugun.

**Zeu Euskanicross taldeko kide zara, ezta?**

Bai; esan bezala, Donostia inguruan zaletasuna handiagoa da eta bertan daude talde gehienak. Uste dut lau talde gaudela. Euskanicross Juan Mari Lujanbiok sortu zuen orain dela bi urte, emaztearekin batera. Poliki-poliki taldea handitzen joan da eta orain 30 bat pertsona osatzen

dugu taldea eta oso pozik nago; egia esatearren, talde bikaina osatzen dugu.

**Zure hurrengo erronka zein da?**

Ba, egia esan, Gorlako lasterketaren aurretik, Burgosen egingo dut korrika azaroaren 3an. Espainiako Koparako puntuagarria da lasterketa, eta probatzera noa, ea zelako eguna dudan eta dena ondo ateratzen den. Gorlako lasterketa Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria da; beraz, bi proba horietan postu ona lortzen saiatuko naiz. Nire helburua lehenengo hiru postuetako bat lortzea da.

**Mezuren bat bidali nahi duzu?**

Mezua baino gehiago, deialdi bat egin nahi dut. Herritar guztiei zuzendutako eta probaz beteriko asteburu borobila izango da azarorako antolatu duguna, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditut Gorlara igo eta lasterketaz gozatzea etortzeko. Poliki-poliki kirol hau gure bailaran ezagutzera eman nahi dugu, eta zaletasuna piztu. Gorla eta Hirubide lotuko dituen lasterketa polita da, bai parte hartzen dugunontzako, baita ikusleentzako ere. Anima zaitzete ikustera!

**"Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria da Gorlako lasterketa"**

**"Txakurrarentzat oso esfortzu handia da arnesarekin korrika egitea"**

# Itxaso Pagoaga: "Ona da papina eredu ezberdinak erakustea umeei"

Panpinek haurren nortasunaren garapenean eragina dutela dio Pagoagak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Udako oporretan ere jostailu eta panpinetan jarri du arreta Itxaso Pagoaga *Guraso.com* atariko kolaboratzaileak. Bere esanetan, batzuetan, panpinetan arreta jartzea besterik ez dagoelako herrialde eta kulturen arteko muga ikusezinez ohartarazteko.

## Zailtasunak guraso-lanean

Pagoagaren esanetan, herrialde ezberdinetako panpinek badute ageriko antzekotasun bat, ezberdintasunez gain, ordezkatzeko duten kultura albo batera utziz, egitura berdineko panpinak direla. "Emakume, hanka-mehe, luze, ilehoiaren tankera dute, ekialdeko

emakumeak baino, mendebaldeko emakumeak dirudite. Izan ere, gaur egun merkatuan saltzen diren panpina gehienek, "kanon" edo neurri eta ezaugarri berdinak edo oso berdintsuak dituzte. Izan, Kroazian, Bosnian, Europako edozein herrialdean edo Ameriketako Estatu Batuetan. Aditu orok dioten legez, jakinek da, panpinak haurren nortasunaren garapenean eragina dutela. Gai nontzeko jostailuek bezala. Eta gaur egun bogan dauden jostailu hauekin, ez da harritzekoa nerabezaroen eta gaztaroan elikadura eta nortasun arazoak egotea. Izan ere, panpina hauek dituzten neurriak, eskala humanora eramanez

gero, konturatuko gara ez direla errealak".

## Zailtasunak guraso-lanean

Helduok egoeraren jakitun izanda, nola lagundu umeari errealitatezko emakumeak eta panpinetako fikziozko emakumeak bereizten? Horixe da galdera.

Pagoagaren iritziz, panpina eredu ezberdinak eskaintzea izan daiteke horretarako modu bat. "Horrelako panpinekin jolastea saihestea baino, uste dut hobea dela forma, material eta neurri ezberdineko aldizkako ereduak eskaintzea. Trapuzkoak, adibidez", dio Pagoagak. Gehiago jakin nahi izanez gero; *Guraso.com*.



Trapuzko panpinak. | ERREKAMARI PANPINAK

# Mikel Etxarri: "Oraindik ez dut aurkitu ebidentzia bakar bat ere etxerako lanak onuragarriak direla esateko"

Etxerako ekartzen dituzten lanak umeendako egokiak ez direla uste du eta Finlandia eta Koreako ereduak erabiltzen ditu bere argudioak emateko

L.Z. | ARRASATE

Eskolan ari diren umeek etxera ekartzen dituzten etxeko lanen inguruko polemika ez da berria. Mikel Etxarri irakasleak uste du, esaterako, etxerako ekartzen dituzten lan horiek ez direla egokiak. Eta argudioak eman ditu bere ikuspuntua azaltzeko. IKTe-roak atarian jaso ditu arrazoi horiek Etxarri, eta *Guraso.com* atariak bere webgunera ekarri du han esandakoa.

"Oraindik ez dut ebidentzia bakar bat ere topatu etxerako lanak onuragarriak direla esateko. Alderantziz, datu guztiak arabera, kaltegarriak direla esan dezakegu hanka sartzeko beldurrik gabe", dio Etxarri. Esaten duena adibideekin azaltzeko, Finlandiako eta Koreako ereduak aipatzen ditu.

## Lehen esperimentazioa

Bi herrialde horietako hezkuntza ereduak ikusita, bi ezaugarri aipatzen ditu Etxarri: "Topatu dudana lehen gauza bitxia izan da ikustea estatuan etxerako lanak defendatzen dituzten gehienak oso kontserbadoreak direla esparru ideologikoan. Horien artean, sutuenei, *Hezkuntzako Tea Party* deituko nieke nik eta, une honetan, Wert Legearen defendatzaile amorratuak dira. Kontuz zein nekin ari zareten etxerako lanak defendatzen! Eta bigarrena da, etxerako lanak defendatzen dituztenek erabiltzen dituzten argudioak frogatzeko inongo ebiden-



Boligrafo bat koaderno gainean. | ANGELIQUE HAYNE

tziarik ez dutela eskaintzen". Horrela, etxeko lanen aldeko eta kontrako argudioak ere batzen ditu. "Aldekoak dira, adibidez: esfortzua, diziplina, lan ohiturak, autonomia, antolaketa eta emaitzak. Kontrako argudioak gehiago dira, eta horietan lehena da hezkuntza sistemaren porrota adierazten dutela, ikasleek eskolan landu beharko lituzketen lanekin ginkargatzen dituztelako. Hezkuntza sistemak dituen mugak agerian uzten dituzte, izan ere, ikastetxeetan egiten dena nahikoa ez dela azaltzen dute-eta".

Horrez gain, etxeko lanak nolakoak diren ere kritikatzeko du Mikel Etxarri: "Irakasle gehienek agintzen dituzten etxe-

rako lanak oso kalitate txarra dute. Ez dira pertsonalizuatuak izaten. Ikasle batek izan ditzakeen hutsuneak betetzeko ez dute laguntzen eta, gainera, kasu gehienetan, denbora gehiegi eskatzen dute".

Sarean begira ere ibili da Etxarri eta etxerako lanen aurkako argudioen artean, hauexek dira: ez dela inongo abantaila pedagogikorik frogatu, eskolarekiko jarrera ezkorra sustatzen dutela, denbora librea murrizten dutela, ikasleen garapenerako beste aukera batzuk kentze dituela edo ez diotela aniztasunari erantzuten.

Artikulu osoa irakurtzeko, hauxe da helbidea: *www.guraso.com*.

# Ume batzuk kasu egiten diote gurasoek esandakoei, beste batzuek, jaramonik ez

Guraso eta seme-alaben arteko harremana ez dela berdinen artekoa uste du Garrido pediatrak

O.E. | ARRASATE

Ume batzuk entzuten dute gurasoek esandakoak, beste batzuk, ordea, ez dute kasurik egiten. Jesus Garrido pediatrak dio *Guraso.com* web orrian, gurasoen eta seme-alaben arteko harremana ez dela berdinen artekoa. "Helburua hori da, baina ez du zentzurik bere ingurunea ezagutzen ez duen, eta bere ekintzen ondorioak neurtzeko gaitasunik ez duen haurra berdinkide moduan tratatzea", dio Garridok.

## Nola jokatu

Garridok dio harremana konfrontazioan eta nagusitasunean oinarrituz gero, litekeena dela umeak jaramonik ez egitea.

"Jasanezina ipintzen denean, eman besarkada bat eta esan maite duzula. Emaitzak harrituko zaitu. Ez atera zure onetik berak berdin jokatzen ikasiko du-eta", dio.

Bestalde, harremana maitasunean, konfiantzan eta irmotasunean oinarritu behar dela dio: "Ume guztiek behar dute maitasuna. Konfiantza lortzen da esandako hitza beti betez, beteko ez ditugun promesak edo mehatxuak egitea kaltegarria da ume horren heziketarako, umeak ulertzen duelako ez garela fidagarriak. Eta hiru-garrenik, irmotasunez jokatu behar dugu uste osoa dugunean erabaki dugun hori onuragarria dela umearendako".



Umea tximeletari begira. | AQUILES CARATTINO

# KULTURA



Oñatiko gaztelekuan Su Ta Gar taldeak egin zuten *Bizirik gaude* lan berriaren aurkezpeneko uneak. | AITZIBER ARANBURUZABALA

## Oñatiko gaztelekua bizirik, Su Ta Garren azkeneko lanaz

- ▶ 'Bizirik gaude' disko berria gogotsu hartu zuten zaleek egubakoitzean
- ▶ Eibartarren hamargarren estudioko lana, 'on-line' eta dendetan salgai

**AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI**  
Eibarko Su Ta Gar taldeak *Bizirik gaude* taldearen hamargarren estudioko lana aurkeztu zuen egubakoitzean, eta lepo bete zen Oñatiko gaztelekua. Astean kale-ratu duen lan berriaren izenburuarekin bat dator gaztelekuan eibartarrek erakutsi zuten indarra eta jarrera. Bertaratutako adin askotako publikoak ere ederto erantzun zuen ordu eta erdi pasa iraun zuen kontzertuko minutu gutzietan.

### Kantu zaharrak eta berriak

Iron Maidenen kantu ezagunek egin zituzten egubakoitzean *teleno* lanak, eta 10:40 jo orduko igo ziren Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabel (gitarra eta ahotsa), Xabi Bastida (gitarra-jolea), Galder Arrillaga (bateria-jolea) eta Igor Diez (baxu-jolea) taularen gainera. Lehenengo akordeetatik, nabaria zen publikoaren eta taldearen arteko konplizitatea.

*Bizirik gaude* bildumako kantu berriei batera, taldearen ibilbide zabaleko kantuak aukeraturaz osatu zuten kantu zerrenda. Hortxe ziren, bada, bilduma berriko *Txakurrak solte*, *Nazkatu naiz* eta *Zure baitan*, besteak beste; baina baita taldearen hastapenetako *Begira*, *David eta Goliath*, *Mari*, *Jo Ta Ke*, *Nazka* (Orain

gutxi Venezuelan atxilotu zuten Oñatiko Asier Guridi *Firi* eta haren senideei eskaini ziotena) eta baita *Itxaropena* ere, beste batzuen artean.

Emanaldiaren lehenengo zatia egin eta minutu pare bateko atsendaldia eginda, berriz ere tresnak eskuetan hartu eta beste lau kanturekin borobildu zuten gaztelekuko gaua, aretotik mugitzeko asmorik ez zuten zaleei beste lau abesti oparitzuz; tartean, garai

baten egin zuten moduan, *La Polla Records* taldearen *No somos nada* kantu ezaguna.

Nekatuta zeudela nabaria zen arren, ez ziren eibartarrak kamerinora joan, bertaratutako gazte zein ez hain gazte zaleekin argazkiak atera eta sinadurak banatu aurretik. Diskoaren aurkezpenaren urduritasunak alboratuz, emanaldi osoan erakutsi zuten Su Ta Garrekoek ere zaleek beste gozatu zutela.

### Egia da, bai, bizirik daudela

*Zure baitan* single bihurtu eta bideoklipa ere egin dioten kantuak laburbiltzen du nolabait Su Ta Gar taldearen egungo egoera: "Urte gehiagorekin bada ere, hastapenetako indarra dugu; horrez gainera, ofizioa ikasi dugu eta orain gehiago baloratzen dugu daukaguna", dio Bastidak.

Lan berriaren biran murgilduta, datorren egunean, Donostiako Gasteszenan izango dira.

### Hastapenetako arima berriuz

Orain 25 urte sortu zuten taldeko bi kideak, Aitor Gorosabel eta Xabi Bastidak, jarraitzen dute oraindik ere, taldeko arima izaten.

Hala ere, eskenatetik kanpo bada ere, Borxa Arrillagak, orain 18 urte istripua izan zuen taldeko hastapenetako bateria-jolea eta egungoaren anaia dena ere, taldeko kideztat dute Su Ta Garrekoek, bera baita letra egileaz gainera, besteak beste, prentsa eta taldearen arteko zubi lanak egiten dituenak.



Diez, Gorosabel, Bastida eta Arrillaga kontzertuaren amaieran. | A. A.

### Gogorra eta melodikoa

10 abesti zuzen eta freskok osatzen dute *Bizirik gaude* bilduma. Orokorrean, nahiko arin eta erraz entzuten den diskoa dela dio Xabi Bastida kideak. Gaineratu duenez, diskoa oso Su Ta Gar den arren, baditu erregistro askotako kantuak ere: "Badaude abiadura handikoak eta *kañeroak* direnak; badago *balada* edo zati akustikoak dituzten une lasaiagoak ere. Guri bariatua izatea gustatzen zaigu, erritmoan eta tonuan ere bai. Oso melodikoa da diskoa; ahotsari dagokionez eta barrurarte sartzen diren *estribillo* asko daude".

### Izenburu esanguratsua

Iker Rokandioren *Bizirik gaude* abestiarekin izendatu dute lana. Egun bizi dugun krisiaren aurretik langileriak egindako borrokari esker lortutakoak ez ditugula galtzen utzi behar kontatzen du. "Hortik dator diskoaren izenburua; ez da horrenbeste, askok ulertu duten moduan, guri buruz ari garela; hala ere, asko gustatzen zaigu izenburuak ahalbidetzen dituen askotariko interpretazioak", azaldu du Bastidak, eta honakoa gaineratu du: "Krisiak presentzia handia du hitzetan; Aitor Gorosabelek eta Borxa Arrillagak ere krisiaren ikuspuntu bana idatzi dute. Gorosabelek, esateko, etxe-desjabetzeak direla-eta, egoera larrian bizi direnez jarduten du *Ez etsi orain* kantuan. Orokorrean, kutsu kritiko eta soziala dute, baina animo eta esperantza puntuarekin sortuta".

Badira Euskal Herriari eta euskarari buruzkoak ere: "*Nazkatu naiz* abestiak euskaraz jarduten dugunok sarritan euskaraz ulertzen ez dutenei eskatzen diegun barkamenaz jarduten du".



Diskoaren azala. | SU TA GAR

# Emakume trikitilaria jaun eta jabe Oñatin

- ▶ Lizargarate Trikitixa Elkartearen jaialdia izan zen
- ▶ Oraingo eta lehengo trikitilariak batu zituzten

**AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI**  
Oñatiko Santa Ana antzokia jendez bete zen, eta ez hori bakarrik, ikusleak guztiz inplikatu ziren Lizargarate Trikitixa Elkartekoek antolatutako emakume trikitilarien omenezko jaialdian, zapatuan. Hala, antzokiko agertokira igotzen zihozten trikitilari ezagunak txaloz hartu eta agurtu zituzten, eta kantuak ere txaloeekin lagundu zituzten. Oñatiko Lizargarate Trikitixa Elkartek antolatzen duen halako bosgarren jaialdia izan zen zapatukoa.

Oraingo jaialdiak ukitu berezia izan zuen, emakume trikitilariak izan ziren eta protagonista. Hori horrela, aspaldian taularen gainera igo bako musikariak eta sekula formatu horretan jo bako trikitilariak hartu zuten taula gaina. Horien artean zeuden Maixa Lizarribar (Maixa eta Itziar) eta Alaitz Telleria (Alaitz eta Mainer); eta Kristina Solano eta Amaia Orexa (Itziarren ahizpa). Jaialdiari ekin, baina, bertako musikarien doinuekin ekin zioten; Lizargarateko trikiti ikasleekin, hain zuzen ere.

## Sorpresaz jositako jaialdia

Sorpresak izan ziren ikusle eta parte-hartzaileendako, izan ere, emanaldi bakoitzaren aurretik, protagonista horien aurkezpen-bideoak eman zituzten. Bideo horietan, taularen gainean zeuden trikitilarien senitarteko eta lagunen adierazpenak batu zituzten antolatzaileek.

Gonbidatuen artean zeuden Elustondo ahizpak; hiruko horretatik, Agurtzane da plaza gehien zapaldu dituen, betiere, anaia-

rekin, baina oraingoan, emakumeen omenezko jaialdia zenez, bi ahizpak animatu zituen Santa Anara.

## Afaria eta erromeria gero

Santa Anakoa bukatuta, kalejira egin zuten elkarrekin eta, ondoren, gaztelekuan afaldu zuten herritarrekin batera. Horrelako jaialdietan ohikoa den moduan, dantza eginez borobildu zuten Lizargarate elkartearen bosgarren jaialdia.



Elustondo ahizpak. | AITZIBER ARANBURUZABALA



Afalosteko erromerian. | IÑAKI OLALDE



Kristina eta Amaia, Santa Anako agertokian. | AITZIBER ARANBURUZABALA



LARRAITZ ZEBERIO

## Yllanakoek, Espaloia poltsikoan

Urteroko bisitari muzin egin barik, egubakoitzean egin zuen Yllana antzerki talde madrildarrak *Far West* umorezko ikuskizuna Elgetako Espaloia antzokian. Bailaran ikusle fidelak dituzten erakusle, 200 lagun batu ziren; horietatik hiru lagun aktore lanetan ere jarri zituzten. Komiko onak direla eta aktore bakoitzak hainbat rol antzezteko duen abilezia erakutsi zuten oraingoan ere. Apenas berba egin barik, lan polita egin zuten, bestek beste, proiektio batek lagunduta.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## Etxahun Lekuek lortu du Txapelketa Nagusiko finalaurrekorako txartela

- ▶ Aretxabaletan bizi den Miren Amurizak bigarren egin zuen zapatuan
- ▶ Azken bi postuetan geratu ziren Maddi Sarasua eta Manex Agirre

**ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE**  
Etxahun Lekue larrabetzuarra izan zen garaile zapatuan Oionen egin zuten Bertsolari Txapelketa nagusiko azken kanporaketan. Lekuek 638 punturekin lortu zuen

txartela Aretxabaletan bizi den Miren Amuriza gutxigatik, 628,5 punturekin, atzean utziz. Kanporaketa berean izan ziren beste bi debagoiendar: Aretxabaletan bizi den Maddi Sarasuak bosga-

rren postua eskuratu zuen 579 punturekin eta Manex Agirre aramaioarra, berriz, azken postuan geratu zuen 578 puntuko emaitzarekin.

Sei kanporaketak jokatu ostean, 18 bertsolari sailkatu dira finalaurrekoetarako. Saio horiek irabazita, honako bertsolariak sailkatu dira: Jon Martin (Villabonako irabazlea), Agin Laburu (Markina-Xemeingo irabazlea), Julio Soto (Hendaiako irabazlea), Beñat Gaztelumendi (Altsasuko irabazlea), Igor Elortza (Legazpiko irabazlea) eta Etxahun Lekue (Oiongo irabazlea).

Azaroaren 10ean Tolosan izango den finalaurrekoan arituko da Lekue, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Iñigo Mantzizidor *Mantxi* bertsolariekin.



Oiongo Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketa. | ALBERTO ELOSEGI

# Zaitegi, Altube eta Garibairen eskutik, Arrasate literarioa deskubritu zuten

Jerardo Elortzarekin, Ibilaldi Literarioa egin zuten Idazle Eskolakoek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hitzaldia entzunda eta testuak irakurrita, lehenengo, eta Arrasateko literaturarekin zerikusi handia duten lekuak bisitatuz, gero, ezagutu zituzten hobeto

herriko literaturgileak Bergarako Idazle Eskolakoek zapatu goizean, Ibilaldi Literarioak izeneko ekintzan. Seber Altube, Jokin Zaitegi, Loramendi... plazak eta kaleak oso ezagunak dira, baina

izen horien atzean nortzuk zeuden eta ze lan egin zuten azaldu zien Jerardo Elortza oñatiarrak. Bere esanetan, zer deskubritu edo ezagutu badago Arrasaten: "Uste izan da idazle inportanteak Tolo-

satik behera, Donostian, Andoainen, Oiartzunen... izan direla, baina hemen ere euskal literaturak bere garrantzia izan du, garai oso desberdinetan eta arlo ez hain ezagunetan".

**Erdi Arotik XX. mendera**

Garai askotako testuak hobeto ezagutu zituzten zapatuan: "Erdi Aroan, kanta zaharrek inportantzia handia izan zuten; hemen, Garibai, Juan Carlos Guerra eta beste liburugile batzuen bitartez gorde eta jaso izan dira". Horietako batzuk irakurri zituzten Idazle Eskolakoek: *Milia Lasturko*, *Arrasateko erreketeta* (1448) edo *Ibarretako hilketeta*, esaterako.

Beste aro batzuetako idatziak ere eman dituzte Arrasateko egileek: XVIII. mendeko *Actto para la Nochebuena* delakoa, Pedro Ignacio de Barrutiarena. Barrutia aramaioarra zen izatez, baina urte askoan eskribaua izan zen Arrasaten.

Sebero Altuberaren *Laztantzua eta Betargi*, Loramendiren *Otoi, adiskide...!* eta Jokin Zaitegiaren *Euzko-Gogoa* aldizkaria ere izan zituzten irakurgai eta berbagai.

**Laugarren ibilaldia**

Kulturartetik irtendakoan, batik bat Arrasateko erdigune historikoko leku esanguratsuenak bisitatu zituzten, idazleon jaiotetxeak, bizi izan ziren etxeak eta beste batzuk; Elortzaren hitzetan, "izena duten paraje horiei izana ere emateko" helburuarekin.

Eskolak egiten duen halako laugarren ekintza izan da; aurretik Bergara ezagutu zuten Telesforo Monzonen lana aitzakia hartuta; Arantzazu, Mitxelena, Gandiaga eta Villasanteren lana aztertu zuten; eta Orexan, *Orixen* -ren lana.



Arrasatearren testuak irakurri zituzten Kulturaten. | JOSETXO ARANTZABAL



Ibilaldi literarioa egin zuten, Jerardo Elortzarekin, erdigunean. | JOSETXO ARANTZABAL

## Bergararrak, pozik Kurasaalean 'Peter Pan' antzeztu ondoren

L.K. | DONOSTIA

Bergarako Musika Eskolako kideek asko disfrutatu dute Donostian *Peter Pan* musikala egiteaz. Zapatuan bi emanaldi egin zituzten Kurasaalen, eta bereziki gozatu zituzten instalazioak: "Horrelako azpiegiturerekin, hain egokiak eta handiak, errazagoa da dena ondo egitea eta gauzak politago irteten dira", esan digu Valen Moñux zuzendariak.

Antzezle txikiak ez ziren batere urduri egon: "Ez, kontrako; segurtasun handia daukate. Lanean oso sartuta egoten dira eta edonon antzezteko moduan daude", esan digu Moñuxek.

**Umeen harrera ona**

Bi emanaldi egin zituzten, eta lehenengoan, batez ere, publiko asko joan zen; tartean zeuden Martin Garitano -Peter Panena egiten duen Aitor Garitanoren osaba- eta Jaione Isazelaia, Bergarako alkatea. Bergarar gehiago ere joan ziren musikala Donostian ikustera. Publikoan zeuden umeen erantzuna azpimarratu du Valen Moñuxek: "Ume asko zeuden, txaloka, Garfio kapitainari gauzak esaten... Oso giro polita sortu zen".

Hurrengo *hegaldian*, *Peter Pan* Gasteizko Buesa Arenan izango da, abenduaren 29an, eta gero, Iruñeko Baluartean, urtarrilaren 3an.

## 80ko hamarkadako soul atsegina Amaia antzokian

L.K. | ARRASATE

Giro lasai eta atseginean izan zen J.C. Brooks & The Uptown Sound talde estatubatuarren kontzertua zapatu iluntzean, Amaia antzokiko hall-eanean. Gaztemaniak ekimenak antolatutako emanaldian 70 lagun inguru batu ziren eta gustura entzun zituzten Chicagoko boskotearen soul doinuak. Soul klasikoa barik, 80ko hamarkadako soul musika jorratu zuen taldeak, soinu onarekin.

Arrasateko Udaleko Kultura teknikari Karmelo Alberdiren esanetan, "inguruan ez da soula entzuteko aukera askorik izaten", eta "kontzertu polita" izan zela diosku.

Aurretik, Unai Azkarate bergararraren taldeak jo zuen, blues eta rock-and-roll estiloen, eta haiek ere giro polita sortu zuten.



J.C. Brooks & The Uptown Sound taldea, Arrasaten. | JOSETXO ARANTZABAL



Peter Pan-eko antzezleak, Kurasaalean. | KARMELE ETXEBERRIA

## la 300 lagun gaztetxeko kontzertuan

Arrakastatsua izan zen Musika Zuzenean webgunearen 3. urteurrenako kontzertua Arrasateko Gaztetxean; ia 300 lagun bildu ziren. Angerrek (argazkian) jo zuen, besteak beste.



JOSETXO ARANTZABAL

Amaia  
Txintxurreta  
Kantariko  
aurkezlea



# 4. edizioa Kantari

## Bergarako saioa!



**Bergara, Antzuola eta Elgetako** partaideok, eman azken errepassoa abestiari eta koreografiari!



### ENTSEGUAK

**BERGARAN**  
Azaroaren 3an  
Zabalotegi aretoan.



### IKUSKIZUNA

**BERGARAN**  
Azaroaren 9an  
Zabalotegi aretoan.



***Etorri zuen lagunak animatzera.  
DJa ibiliko da giroa animatzen. Etorri disko-festara  
dantzara eta Kantariko gaztetxoak animatzera!***

Informazio gehiago: 943 25 05 05  
<http://blogak.goiena.net/kantari/>

**goiena**



## GURE MUSIKA TALDEAK

# Arkada Social 'Hil orduko bizi' diskoa grabatzen dabil

## Usurbilgo Higain estudioan bi aste eman dituzte

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Arrasatearrak laugarren lana izango dena grabatzen murgilduta egon dira azkenengo bi asteak. Usurbilen Haritz Harreguyk duen estudioan grabatu dute. *Hil orduko bizi* izango da lan berriaren izenburua, eta, hamahiru kantu grabatu badituzte ere, baliteke diskoan denak ez sartzea.

Gaur hasiko dira lan berriaren nahasketak egiten, eta, gutxi gorabehera, astebeteko lana aurreikusten dute. Helburua datorren abenduko Durangoko Azokarako diskoa kaleratzea da; oraingoan, baina, CD formatuaz gain, binilo formatuan ere kaleratuko dutela esan digu Hodei Beitiak, Arkada Socialeko abeslari eta baxu-joleak.

### 'Hil orduko bizi'

Esan bezala, Harreguy teknikariarekin lanean egon dira, eta oso eroso sentitu direla esan digu Beitiak. *Beste istorio bat* diskoa ere Harreguyekin grabatu zuten, eta, emaitzarekin gustura, errepikatzea erabaki dute.

Arkada Socialeko kideen uste-tan, disko berria aurrekoa baino landuagoa eta hobea izango da. "Urte osoa daramagu lanean; urtarrilean hasi ginen, eta estudioa etxeko lanak ondo eginda joan gara", esan digu Beitiak.



Hodei, Nako eta Arri, Higain estudioan. | HODEI BEITIA

New Yorkeko The Press taldearen *21 guitar salute* kantua ere grabatu dute: "Dropkick Murphys taldeak egiten duen bertsioa hartu dugu oinarri".

**ESANAK**

**"Etxeko lanak ondo eginda etorri gara estudioara"**

HODEI BEITIA | ABESLARIA

### Hurrengo urratsa, bideoklipa

Diskoa amaitu bezain laster bideoklipa egiten hasiko direla esan digu Beitiak, eta, horrez gain, *Hil orduko bizi*-ren grabazioaren *making-of-a* egin nahi dutela gehitu du abeslariak.

### Durangoko Azokarako

Diskoa Arrasateko Mauka Musikagintza diskoetxearekin kaleratuko dute. Bada, Durangori begira beste nobedade batzuk ere baditu diskoetxeak; besteak beste, Des-Kontrol-en *Behin eta berriz jarraituko dugu duintasunez eutsiz aurrea* begira disko berria, hura ere binilo formatuan.



JAGOBA DOMINGO

## No Hope, Krisis eta Material Rechazado 'Gipunkzkoa'-n

Duela aste pare bat kaleratu zuten *Gipunkzkoa*; *Fidelissima Bardulia Nunquam Superata* punk bilduma. Gipuzkoako punk taldeen bilduma horretan, Aretxabaletako Krisis eta No Hope eta Arrasateko Material Rechazado taldeek hartu dute parte. Talde bakoitzak bi kantu berri kaleratu ditu binilo bikoitz formatuan eta abesti guztiak Nekrosounds estudioan grabatu dituzte. Biniloa 12 eurotan dago salgai DAT tabernan.

# Bitter Honey arrasatearrek The Quireboys-ekin joko dute

Los Galerna, ostera, Puerto de Santa Mariara joango dira asteburuan, Monkey Week jaialdira

J.D. | ARRASATE

Albiste pozgarria jaso zuten joan den astean Bitter Honey arrasatearrek. Izan ere, Londresko The Quireboys talde mitikoarekin joko dute. Kontzertua abenduaren 15ean, domekan, izango da, Atarrabiatan Totem aretoan.

The Quireboisek *Beautiful Curse* diskoa aurkeztuko du eta Bitter Honey izango dute bide-lagun Totem aretoan. Kontzerturako gogo handiz dago taldea; izan ere, *Ota* gitarra-jolea Finlandian dago, eta zuzenekoak jotzeko gogotsu daude. Hard-rock deskarga ederra jasoko dute bertara gerturatutakoak, eta, ziur asko, The Quireboys ingelesek ez dute Bitter Honey taldea erraz ahaztuko.

### Los Galerna Cadiz-era

Eta, bestalde, Los Galerna boskote arrasatearra Puerto de Santa Marian (Cadizen) egingo den Dezer Monkey Week jaialdian izango da datorren aste bukaeran.



Bitter Honey-ko abeslaria. | GOIENA

Egubakoitzean, hilak 1, Rodeo eta Mondongo tabernetan kontzertuak eskainiko dituzte, *showcases* izeneko formatuan. Izan ere, Monkey Week jaialdian 100 taldek baino gehiagok joko dute hiru egunean, eta egunean zehar, tabernetan 40 bat minutuko kontzertuak izango dira nagusi.

Jaialdian, besteak beste, The Cubicall, The Damned, Lisa and the Lips eta Guadalupe Plata talde ezagunek joko dute, talde txikiak laguntzen.



Governors taldearen formazio berria. | GORKA LASA

# Governors taldeak 'Morphinapolis' lan berria kaleratzeko prest du

J.D. | ARRASATE

Aste honetan kaleratuko du Baga-Bigak Governors-en laugarren lana. Uztailla eta abuztua Higain estudioan eman dute buru-belarri *Morphinapolis* lana grabatzen; eta Juan Sangre abeslariaren esanetan, "diskoa osotasunean oso ondo geratu da; emaitzarekin pozik gaude".

Haiek ere Haritz Harreguy izan dute kontsolan, eta hainbat kolaborazio izan dituzte grabazioan. Besteak beste, hitzak idazten, Eider Zumalderen, Mikel Etxabururen, Iñaki Biñaspren eta Aiert Goenagaren laguntza izan dute. Musikari dagokionez, aipatzekoak dira Napoka Iria

taldeko Mirenen kolaborazioa eta presentzia handiagoa izan duen Koldo Uriarterena. Uriarterek sintetizadore eta teklatuaren ardura hartu du.


Diskoarekin bat, gitarra-jole berria estreinatuko dute: Enkore taldeko Urtzi Iza. Diskoa Aitor Antruejok grabatu duen arren, lan kontuak direla-eta Iza izango da zuzeneko gitarra-jolea, Pakorekin batera.

### 'Zuloan' kantua entzungai

Joan den astea ezkerreko, *Zuloan* abestia entzungai dago Interneten, besteak beste, *Morphinapolis* lana aurreratzeko eta betiko zaleen grina baretzeko.



# Debagoieneko GREMIOAK



## AROSZTEGIAK

### AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

## ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

## LOREZAINNTZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK


### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iPad-ik berrienaren promozio irudia. | APPLE.COM

## iPad Air arina eta Mavericks sistema eragilea, nobedade nagusien artean

Datorren urtera begira, berritasun nagusienak aurkeztu ditu Apple-ek

JON BEREZIBAR | ARRASATE

iPad tabletari iritsi zaio oraingoan berritzeko txanda. Arinagoa, finagoa eta azkarragoa da. Deitura ere aldatu diote eta Apple-en tabletaren bosgarren belaunaldia

iPad 'Air' deiturarekin bataiatu dute. Esamesak konfirmatu besterik egin ez diren aurkezpena izan zen joan den eguaztenekoa eta diseinu ezaugarriek piztu zuten gehien arreta. Merkatuko

tabletik arinena da iPad berria; 453 gramo eta 5,7 mm-ko sendoera; laugarren belaunaldiko modelo baino %28 arinagoa da iPad Air-a. Arinagoa izan arren, ahalmen aldetik, potentzia gehiago

dauka modelo berriak, 64 biteko A7 prozesatzailearekin, eta errendimendu grafikoari dagokionez, bikoiztu egiten du iPad 4arena, esate baterako. Bigarren prozesatzaile batekin ere badator *tablet* berria, errendimendu horretan laguntzeko. Ezaugarri orokorrei dagokionez, pantailak *Retina* delakoa jarraitzen du izaten eta haririk gabeko konexioa ere azkartu egin diote iPad-ari.

### Aurkezpen gehiago

iPadaz gain, makina bat nobedade gehiago eman ditu ezagutzera Apple-ek aurkezpenik berrienean. Tabletaren barruan iPad Mini modelo ere berriztu egin dute eta mahaigaineko ordenagailuentzat, gertu daukate sistema eragilearen bertsio berria: OS X Mavericks. MacBook Pro berriekin ere badator Apple, Retina pantaila ekarriko dutenak eta software-ari dagokionez, iLife eta iWork suite-ak berritu dituzte iOS eta Mac-entzako, doan.

### Mavericks ordenagailuentzako

Sistema eragile berriak dakartzan aldaketek eman zuten atentzio gehien. Izen estiloan aldaketa ekartzeaz gain, felidoen gaitziznak alde batera laga dituzte-eta. Lehen begiradan iOS berriaren diseinuaren garbitasunera gerturaten da mahaigainentzako eta eramangarrientzako Apple-en sistema eragile berria. Ohar sisteman, Finder delakoan eta etiketatze sistema berrian daude nobedade garrantzitsuenak.

## Argindar bidez Internet garraiatzea lortu da

Mikroprozesatzaile batekin hornitutako LED bonbillei esker lortu dute sarea osatzea

J.B. | ARRASATE

Shangaiko Fisika Teknikoko Institutuko ikertzaile talde batek argiaren bitartez distantzia handian Internet garraiatzea lortu du. Teknologia garatuz, arginda-

rrarekin batera Internet ere garraiatzea lortzea da zientziariaren helburua.

Oraingoan lortu dutena da lau ordenagailu konektatu ahal izatea watt bateko LED argi igor-

gailuei esker. Bonbilla txiki horiek, mikroprozesatzaileei esker, 150 Mb-eko datu fluxura hel daiteke. Edimburgon ere beste ikertzaile talde batek dihardu aukera hau aztertzen eta *lifi* (wifi-ko *w-a light* berbaren, 'argia' ingelesez, *l-a* rengatik ordezkaturaz) izenarekin bataiatu dute teknologia berria.

### Eraginkorragoa

Teknologia berri hau munduari erakusteko prest daukate. Azaroaren 5an Shangain Nazioarte-

ko Industriaren Azoka egingo dute eta hainbat ordenagailu konektatu gura dituzte *lifi* bitartez. Ikerlarien azalpenen arabera, *lifi*-a wifi tradizionala baino eraginkorragoa da eta, aldi berean, Interneten garraioaren haririk gabeko banaketa kostuak asko merkatu ditzake. Bonbilla bat dagoen lekuan Internet seinalea egotea da nahia. Aitortzen dute, hala ere, gaur egun daudenetan, teknologia berriari asko geratzen zaiola aurretik alternatiba bidegarri bihurtu arte.

## WhatsApp-ek jada, 350 milioi erabiltzailetik gora

J.B. | ARRASATE

Hilabetean aktibo 350 milioi erabiltzailetik gora dauka WhatsApp ezagunak. Abu Dhabin egiten dabilzan Nokia World kongresuan eman ditu datuak jakitera WhatsApp-eko CEOak, Jan Koum-ek. Bi hilabeteetan 50 milioi erabiltzaile irabazi ditu aplikazioak. Datu gehiago ere zabaldu ditu Koumek, esate baterako, 250.000 erabiltzaile berri dituztela egunero Nokia bat dutenen artean eta errekorra joandako abuztuan gairatu zutela 31.000 milioi mezurerekin; 11.000 milioi bidali eta 20.000 jasotako.

## Facebook adin txikikoen mugak kentzen dabil

J.B. | ALBISTEAK

"Nerabeei oihartzuna emateko" aldaketak iragarri ditu Facebook-ek eta aurrerantzean, orain arte ez bezala, adin txikikoen euren informazioa publiko egin ahal izango dute. Iragarpenaren aurrean adin txikikoen babeserako elkarrekin kezkak daude, nerabeen segurtasuna kolokan ikusten baitute. Facebook erabili ahal izateko 17 urte baino gehiago izan behar ditu erabiltzaileak baina 13 urtetik gorakoek profila ere zabal dezakete tutore baten baimenarekin.

## Datorren urtean aterako du HP-k bere 3D inprimagailua


Datorren urtean merkaturatuko du HP enpresak lehen 3D inprimagailua. 2012an 3D inprimagailuen merkatuak izandako hazkunde handiaren aurrean, alorreko handikiak prest dauka bere modeloa. Orain arte enpresa txikiak ibili dira mota horretako inprimagailuak egiten eta HP lehen enpresa handia da merkatu horretan sartzen dena.

## Twitter '#Music' zerbitzu atera berria ixtekotan da

Musika partekatze zerbitzuarekin ez bide du asmatu Twitter-ek eta #Music zerbitzua ixtekotan dela iragarri dute. Hasiera baten erabiltzaileek biziki gogotsu hartu zuten zerbitzu berria baina gainbehera osoa ere berehala etorri da. Gaur egun oso gutxi erabiltzen egi da.

## Samsung-ek ere baditu bere betaurrekoak patentatuta

Samsung-ek ere erregistratu du betaurreko inteligenteetarako bere diseinuaren patentea. Diseinu hutsa denez, zehaztapen teknikoak berri ezin jakin, bistakoa denaz harago. Izena bai, Samsung-en betaurrekoek Spectacles izango dute izena.



ARGAZKILARIAXXX

## TELE-BEGI

OIHAN  
VEGAPublizitatearen  
beharra

Azkenaldian, telebista kate guztietan ikusi dugu publizitatearen aldeko publizitatea, funtzio metalinguistika deritzo horri, ezta? Mikel Olazabal ETBko kirol aurkezleak deitzen dien bezala: merkatal aholkuak. Zeinen garrantziak diren!

Hainbat iragarkitan publizitatearen onurak azpimarratzen dituzte, berauen kontrola beharrezkoa dela argi utziz; gainera, zenbait telebista katetan ere, iragarkien tartera joan aurretik, mezu hau entzun dut egunotan: "Bost minutuko publizitate tartea, saio hau ikustea posible egiten duen publizitatea".

Arrazoi guztia! Eskuaratean duzun komunikabide honek ere (Goiena papera) publizitatea behar du bere biziraupenerako. Telebista ez litzateke jasagarria iragarkirik gabe. Izan ere, ikus-entzule maiteok, zuek ez zarete telebista kate bateko bezeroak. Ez. Benetako bezeroak ordaintzen duten horiek dira. Legezkoa eta bidezkoa da, ala ez? Inoiz ez da berandu, baina antza denez, konturatu gara azkenik zeinen garrantzitsua den publizitatea... Hori bai, horretarako pikutara joan behar izan dira gure ongizatea, diruaren gizarte kapitalista eta orain arte bizi izan dugun luxuzko egoera kontsumista. Zeinen paradoxa zoragarria, ezta?

## ASTEAGOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 28



## 'Harmailatik'

Joan zen astean Manchesterren izandako realzaleak izango dira kirol saioan, besteak beste. | 21:25

12:00 Magazinea  
12:45 Kantari  
13:15 AsteON  
13:45 Ekogune  
14:15 Onein  
14:41 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:15 Eguraldia  
15:18 Zorion Agurrak  
15:23 Handik eta hemendik  
15:57 Zorion Agurrak  
16:04 Onein  
16:39 Berriak  
17:09 Eguraldia  
17:12 Zorion Agurrak  
17:17 AsteON  
17:47 Altxorren bila  
18:23 Ekogune  
18:53 Zorion Agurrak  
18:58 Berriak  
19:23 Eguraldia  
19:26 Kantari  
19:56 Erreportajea  
20:10 Magazinea  
20:55 Berriak  
21:20 Eguraldia  
21:25 Harmailatik  
22:10 Berriak  
22:35 Eguraldia  
22:38 Magazinea  
23:23 Gurean gaur.

MARTITZENA, 29



## 'Berriak'

Gure bailaranegunean albiste izan direnak jaso ahal izango dituzue Monika Belastegiren eskutik. | 14:45

12:00 Magazinea  
12:45 Harmailatik  
13:25 Kantari  
13:50 Erreportajea  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Harmailatik  
15:53 Onein  
16:28 AsteON  
16:58 Berriak  
17:18 Eguraldia  
17:21 Zorion Agurrak  
17:26 Erreportajea  
18:21 Harmailatik  
19:06 Berriak  
19:31 Eguraldia  
19:34 Kantari  
20:04 Zorion Agurrak  
20:10 Magazinea  
20:55 Berriak  
21:20 Eguraldia  
21:23 Bertso Txapelketa Nagusia  
22:08 Berriak  
22:33 Eguraldia  
22:36 Magazinea  
23:21 Gurean gaur.

EGUAZTENA, 30



## 'Asmatu baietz!'

Irabazi sariak eguaztenean Goiena telebistako lehiaketara deituta: 943 25 05 03 da telefonoa. | 19:41

12:00 Magazinea  
12:45 Onein  
13:05 Kantari  
13:35 Handik eta hemendik  
14:10 AsteON  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Erreportajea  
16:08 Harmailatik  
16:48 Berriak  
17:13 Eguraldia  
17:16 Harmailatik  
17:56 Onein  
18:22 Handik eta hemendik  
18:56 Zorion Agurrak  
19:01 Berriak  
19:21 Eguraldia  
19:24 Bideo klipak  
19:41 Asmatu baietz!  
20:11 Magazinea  
20:56 Berriak  
21:21 Eguraldia  
21:23 Ekogune  
21:53 Magazinea  
22:38 Berriak  
23:23 Eguraldia  
23:53 Gurean gaur.

EGUENA, 31



## 'Planik bai?'

Asteburura begira jarriko gara Debagoienera izango diren kultura emanaldien berri emateko. | 17:09

12:00 Magazinea  
12:50 Onein  
13:10 Kantari  
13:40 Ekogune  
14:10 Bideo klipak  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:10 Eguraldia  
15:13 Erreportajea  
15:28 Zorion Agurrak  
15:33 Altxorren bila  
16:09 Berriak  
16:34 Eguraldia  
16:37 Onein  
17:09 Planik bai?  
17:29 Erreportajea  
18:24 Ekogune  
18:54 Zorion Agurrak  
18:59 Berriak  
19:19 Eguraldia  
19:22 Planik bai?  
19:42 Kantari  
20:10 Magazinea  
20:55 Berriak  
21:20 Eguraldia  
21:23 Planik bai?  
21:43 Berriak  
22:13 Eguraldia  
22:16 Magazinea  
23:01 Gurean gaur  
23:31 Planik bai?

EGUBAKOITZA, 1



## 'AsteOn'

Astean zehar gure bailaran albiste izan diren berrien errepasoa egingo dugu, besteak beste. | 21:17

10:00 Planik bai?  
10:20 Magazinea  
11:20 Kantari  
11:45 Bideo klipak  
12:10 Ikusi irratia: Goierriko Kasta  
12:57 Planik bai?  
13:17 AsteON  
13:47 Magazinea  
14:47 Zorion agurrak  
14:53 Planik bai?  
15:17 Berriak  
15:32 Gernika Lumo rallya  
16:32 Ekogune  
17:02 Bideo klipak  
17:22 Altxorren bila: Martxel Aizpuru  
17:58 Planik bai?  
18:18 Zorion agurrak  
18:23 Ikusi irratia: Goierriko Kasta  
19:10 Berbetan: Zesta punta  
19:42 Kantari  
20:12 Planik bai?  
20:37 Zorion agurrak  
20:42 Berriak  
20:57 Planik bai?  
21:17 AsteON  
21:47 Ekogune  
22:17 Planik bai?  
22:37 Berriak  
22:52 AsteON  
23:22 Gernika Lumo rallya

## ARRASATE IRRATIA

Martitzeneko Iktusaren  
Eguna berbagai izango  
dugu Arrasate Irratian

Bihar, martitza, ospatuko da Iktusaren Eguna. Aita Mennik Azoka kalean daukagun Eguneko Zentroan aldezturik hitzordua lotzen duen edonori doako balorazio eta iktusa ekiditeko neurriak azaltzeko aukera emango die. Gai horri buruz hitz egingo dugu bihar 11:00etan.

'Correos' taldearen  
emanaldirako sarrerak  
zozketatuko ditugu

Donostiako Correos taldeak hainbat lehiaketa irabazi ditu power-pop, baxu distortsionatuak eta elektronika batzen. Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan izango dira gaztetxean eta sarrerak zozketatuko ditugu 943 25 05 05era deitu edo irratia@goiena.com-era idazten dutenen artean.

Egubakoitza, Domu  
Santu eguna, ez dugu  
zuzenkorik egingo

Egubakoitz honetan, azaroak 1, Domu Santu eguna da eta ez dugu Igo autobusera! irratsaioa izango. Hala ere, musika entzun ahal izango duzue 107.7an. Astelehenetik eguenera bitartean irratsaioa normalean, musikaz eskainiko dizuegu, ohiko moduan, 10:00etatik aurrera, Arrasate Irratian. Hortxe nahi zaituztegu.

## TELE-ALBISTEAK

'Magazinea' saioa gai  
ugarirekin dator aste  
honetan ere, 20:10ean

Gaur, astelehena, Larraitz Ugarte Bide Azpiegituretako diputatua izango da gurean



Txomin Madina, saioaren aurkezle eta gidaria. | GOIENA

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE  
Askotariko gaiak landuko ditugu iluntzetan izaten dugun Magazinea saioan.

Gaur, astelehena, Larraitz Ugarte Bide Azpiegituretako diputatua etorriko da eskualdeko garraio publiko hobetzeko martxan jarri duten prozesuari buruz hitz egitera. Ondoren, bihar, martitzena, Iktusaren Eguna ospatuko denez, Aita Menniko Naiara Mimentza neuropsikologoa izango da gurean biharko antolatutako dituzten kontuei buruz berba egiten.

## Askotariko gaiak

Martitzenean, Arrasaten egingo den zarzuelaren berri jaso ahal izango dugu eta ekonomia kontuak ere izango ditugu.

Eguaztenean, berriz, Goiena.net-eko blog komunitateari buruz hitz egitera etorriko da Miren Arregi kazetaria eta osasun kontuak ere izango ditugu.

Eguenean, berriz, gazteen tertulia izango dugu, besteak beste. Beraz, ez galdu aste honetako saioak.

Marimaistrak euskararekin  
ditugun zalantzak argitzen  
laguntzen digu eguenetan

Bidali zure kezka @mari\_maistra-ra, galdetu@marimaistra.com-era edo 668 889 192ra

A.T. | ARRASATE  
Euskarari lotutako kezka, zalantza eta galderak argitzen dizkigu Marimaistrak eguen iluntzetan Magazinea-ren amaieran, Goiena telebistan. Euskararen kontsultorio moduko bat dauka martxan eta Marimaistra.com helbideko blogean ere ikus daitezke bere bideoak.

## Hartu parte

Euskararen inguruko galderaren bat badaukazu, jar zaitez harremanetan Marimaistrarekin eta berak emango dizkizu aholkuak. Bidali mezua Twitter bidez @mari\_maistra-ra, idatzi

galdetu@marimaistra.com-era edo bestela bidali Whatsapp bidez zure galdera 668 889 192 telefono zenbakira. Animatu eta bidali zure galderak!



Marimaistra. | GOIENA

## ZORION AGURRAK



BERGARA  
**Unai Eguren Guereñu**  
Azaroaren 2an, 8 urte.  
Zorionak, Unai! Patxo  
handi bat denon partetik.



BERGARA  
**Jokin Alberdi Garitano**  
Urriaren 31n, 4 urte.  
Zorionak gure etxeko  
txiki handiari! Muxu  
potolo asko opa dizugu  
etxeko guztien partetik.  
Ondo ospatu eguna.



BERGARA  
**Ane Jauregi Elorza**  
Urriaren 31n, 6 urte.  
Zorionak, Ane, eta muxu  
potolo-potolo bat danon  
partetik. Ondo pasatu  
zure urtebetetze eguna.




ARRASATE  
**Saioa Bergaretxe  
Astigarraga**  
Urriaren 30ean, 2 urte.  
Zorionak! Ondo pasatu  
zure egunean. Muxu  
handia familia guztiaren  
eta, bereziki, ahizpa  
Arrateren eta lehengu-  
sina Alaitz, Maddi eta  
Malenen partetik.



ESKORIATZA  
**Elder Garcia  
Hermosel**  
Urriaren 29an, 2 urte.  
Zorionak, *granuja!*  
Ederto pasatu zure  
egunian eta patxo bat  
etxeko danon partetik!



OÑATI  
**Paul Anduaga Arregi**  
Urriaren 29an, urtebete.  
Zorionak, Paul! Dago-  
eneko urtetxo bat gure  
mutikutxuak! Musutxuak  
famiariaren eta, be- reziki,  
arriba Sara eta lehengu-  
gusu Martinen partetik.  
Asko maite zaitugu!



ARRASATE  
**Saul Atxa Bastida**  
Urriaren 29an, 9 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Ondo pasatu zure  
urtebetetze eguna eta  
muxu handi bat etxekoan  
partetik.



ESKORIATZA  
**Iker Elorza Agiriano**  
Urriaren 28an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo  
pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko guztien  
partetik.



BERGARA  
**Ander Labrador San  
Vicente**  
Urriaren 27an, 3 urte.  
Zorionak Osintxuko  
famiariaren eta, batez ere,  
Nahiaren eta Unairen  
partetik. Patxo handi bat,  
maitte.



LEINTZ GATZAGA  
**Xabat Otazu Arzelus**  
Urriaren 27an, 6 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Patxo handi bat etxeko  
danon partetik!



ARRASATE  
**Eider Muñoz Morales**  
Urriaren 27an, 8 urte.  
Zorionak, Eider! Ondo  
pasatuko dugu zure  
zortzigarren  
urtebetetzean. Musu  
potolo bat etxekoan eta,  
batez ere, zure  
lehengusuen partetik.



ANTZUOLA  
**Amair Legorburu  
Rodriguez**  
Urriaren 27an, 11 urte.  
Zorionak, Amair!  
Aioraren eta inguruko  
danen partetik.



OÑATI  
**Haizea Aramburu  
Moreno**  
Urriaren 26an, 5 urte.  
Zorionak eta muxu handi  
bat Uxeren, amaren eta  
aitaren partetik. Asko  
maite zaitugu.




BERGARA  
**Nekane Gabilondo  
Ugarte**  
Urriaren 26an, 39 urte.  
Zorionak, amatxo. Hau  
argazki polita 39 urte  
betetzeko!



DEBAGOIENA  
**Cecilia Guevara  
Muñoz**  
Urriaren 26an, 37 urte.  
Zorionak, Ceci! Muxu  
handi bat zure "zurda de  
oro"-ren, semearen eta  
famiariaren partetik!



ARETXABALETA  
**Maren Lazpiur Eraña**  
Urriaren 25ean, 7 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Patxo pilua etxeko  
guztien partetik.  
Ondo-ondo pasatu  
eguna zure primotxo eta  
lagun guztiekin! Mila kilo  
zorion!




DEBAGOIENA  
**Sandra Mariela  
Guevara Santos**  
Urriaren 25ean, 28 urte.  
Zorionak, maitia! Jada  
28 urte. Muxu handi bat  
zure famiariaren  
partetik. Asko maite  
zaitugu.




BERGARA  
**Haritz Bilbao Iñarra**  
Urriaren 24an, 6 urte.  
Zorionak, "artista",  
dagoeneko sei urte!  
Patxo handi-handi bat  
gure mutiko jator, alai  
eta maitakorrarendako,  
etxeko guztien partetik  
eta ia zure urtebetzea  
ederki ospatzen dugun!



ARRASATE  
**Ekain Agirre Lete**  
Urriaren 24an, 3 urte.  
Zorionak, pitusin! Denon  
partetik, bereziki  
Aimarren partetik musu  
handi-handi bat.



ARRASATE  
**Itxaso Saizar Cazalis**  
Urriaren 24an, 5 urte.  
Zorionak, neska handi!  
Ondo pasatu zeure  
egunian. Patxo potolo  
bat Ane, Izar, aita eta  
amatxoren partetik. Mua!



OÑATI  
**Maialen Goñi Arévalo**  
Urriaren 23an, 5 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Ondo ospatu zure eguna  
famiari guztien eta,  
bereziki, Eiderren  
partetik.




ARRASATE  
**Julen Gomez  
Ibaibariaga**  
Urriaren 23an, 10 urte.  
Zorionak, mutikote.  
Ondo pasatu zure  
urtebetetze eguna eta  
laztan handi-handi bat  
famiariaren  
partetik.



OÑATI  
**Madalen Etxegarai  
Zelaia**  
Urriaren 23an, 8 urte.  
Zorionak eta muxu handi  
bat etxeko danon  
partetik.



ANTZUOLA  
**Beñat Azkarate**  
Urriaren 22an, 6 urte.  
Zorionak gure etxeko  
mutikotxuari. Etxekuen  
partetik.



ESKORIATZA  
**Nora Berezibar  
Arevalo**  
Urriaren 22an, 5 urte.  
Gure etxeko printzesari!  
Zorionak eta jarraitu  
horrelakoxea izaten.  
Familia eta lagun guztien  
partetik.



OÑATI  
**Javier Inza  
Cortabarría**  
Urriaren 21ean, 66 urte.  
Zorionak eta urte  
askotarako, osaba.  
Primerako eguna izan!  
Muxu handi bat.



ARETXABALETA  
**Lia Larrinaga Urzelai**  
Urriaren 21ean, 5 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Zelako ondo ospatu  
gauen zure eguna! Patxo  
bat danon partetik!



ARRASATE  
**Imanol Gallego  
Mezquita**  
Urriaren 18an, urte asko.  
Zorionak, maitia! Ze  
azkar pasatzen dian  
urtiak. Muxu handi bat  
zure koadrilakoen eta  
Koldoren partetik. Maite  
zaitugu.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte  
jasotako zorion agurra  
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak  
hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.****ASTE BARRUAN, BAITA ERE:****ARRASATE** Goiena: Oñati Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## ESKER ONA

**Antonio  
Bian Bian**

2013ko urriaren 22an hil zen, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,  
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko urriaren 22an.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta  
ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta  
traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-  
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55  
BERGARA**JAIOTAKOAK****Eider Bruna Aiastui**

Oñati. 3,380 Kilo. Urriaren 19a. Gurasoak: Susana eta Antxon. Argazkian, Eider aitaren besoetan.

**Aner Tola Torres**

Arrasate. 3,250 Kilo. Urriaren 19a. Gurasoak: Rebeca eta Igor. Argazkian, Aner amarekin.

**Jare Ugarte Andres**

Oñati. 3,300 Kilo. Urriaren 20a. Gurasoak: Onintza eta Arkaitz. Argazkian, Jare sehaskan lo.

**Martin Diez Amozarrain**

Arrasate. 3,260 Kilo. Urriaren 21a. Gurasoak: Nekane eta Jokin. Argazkian, Martin gurasoekin batera.

**Egoi Chaparro Dominguez**

Antzuola. 4,110 Kilo. Urriaren 21a. Gurasoak: Oihana eta Iker. Argazkian, Egoi sehaskan lasai-lasai-

**Saioa Garcia Solaguren**

Debagoiena. 2,700 Kilo. Urriaren 23a. Gurasoak: Ainhoa eta Imanol. Argazkian, Saioa amarekin eta aitarekin.

**Enaut Arenaza Arriaran**

Oñati. 3,800 Kilo. Urriaren 22a. Gurasoak: Iñaki eta Nerea. Argazkian, Eñaut amamaren besoetan.

**Alaitz Izurrategi Uriarte**

Eskoriatza. 3,320 Kilo. Urriaren 20a. Gurasoak: Ixone eta Jose Manuel. Argazkian, Alaitz aitarekin.

**Danel Urzelai Azkargorta**

Eskoriatza. 3,610 Kilo. Urriaren 23a. Gurasoak: Itsaso eta Asier. Argazkian, Danel aitarekin.

**Eroski hipermerkatuaren partetik,  
zorionak**

jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,  
**10 euroko bonua\*** egingo dizue opari  
Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30Arrasateko hipermerkatua  
**EROSKI**  
zurekin

\* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

**Jaio da!****Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora  
edo zatoz GOIENAREN ordezkaria batera.**Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AI, ENE!

### Zuk ezin baduzu lo egin, berak ere ez

Bikotean lo egiteak baditu era-gozpenak; horien artean ohikoenak, zurrungak, konponbidea edo mendekua, biak izan daiteke hau. [www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## AHOBERO

### "Zu eta zure jiteko guztiak hiltzea berdina kostatuko zaigu"

JAIME MORA | NNGG-EKO KIDEA

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Parot doktrinaren inguruan emandako ebazpenak mugimendu handia sortu du sarean. IUko diputatu Alberto Garzon poztu egin zen, eta horrelaxe erantzun zion dagoeneko PPko kide gazteen taldetik bota duten Morak. [www.twitter.com](http://www.twitter.com)

## EGURALDIA



Max. 19°

Min. 9°

Haizea iparrera aldatu egingo da eta berarekin eguraldi aldaketa ekarriko du. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2013-10-28

## HAMARREKOA

**Asisko Urmeneta** Ilustrazioak, komikiak, telebista, irratia, liburuak, zinema... Ez dira asko gaur egun Nafarroa Beherean bizi den iruindarrak jorratu gabe utzi dituen soroak | TXOMIN MADINA

## "Dударik gabe, eskua burua baino azkarrago doakit"

### 1. Pizkundean jaito izan bazina, euskal Da Vinci zinateke?

Ez; gehienez ere Iñaki Perurenaren jarraitzaile xumea. Inoiz ez dut lortuko berak lortutakoa: harakina, poeta, harri jasotzailea, aktorea, historialaria, aktibista politikoa...

### 2. Marraztean, eskuak ala burua, zer doakizu azkarrago?

Eskua, dudarik gabe. Gertatzen da mezua bidali gura bada, gidoilaria behar dela ondoan; edo bestela, asko marraztu eta agertuko da bat ulertuko dena.

### 3. Behar den balioa ematen al diegu komikiei?

Zibilizazio honek, formalki, ez: nahiz eta komunean liburu bat eta ondoan komiki bat ikusi eta gehienok komikia hartu, kosta egiten zaigu onartzea. Baina era naturalean, konbentzitura nago baietz.

### 4. Zenbatetan jarri dituzu komikietako protagonisten ahotan zeu esaten ausartzen ez zarenak?

Figura literarioa da; liburuetan ere pasatzen da: pertsonaia bakoitza egilearen desdoblamentua izaten da. Komikigile batzuek joera dute bere burua marraztua agertzeko; ni ez naiz horretara ausartzen: nire pertsonaiak aunitzetan dira nigandik arras urrun daudenak.

### 5. Irudigilea bai, baina beti hizkuntzarekin jolasean.

Komikigileok bi makulu baliatzen ditugu eta ni makulu bakarrarekin aski erren ibiltzen naiz.



AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Gaur bertan, independentzia"

"Independentzia eskatuko nuke; eta ezin bada, kataluniar bihurtuko nintzateke. Makila zinez magikoa bada, gaur bertan lortuko nuke independentzia eta hortik, gainerakoak erabaki: poesia edo komiki ministeriorik muntatu behar dugun ikusi; probintzialismo barregarria gaindituz zein eskualde antolatu; demokrazia eratu..."

### 6. Euskararekin serioegiak gara?

Hemen ere, formalki: izu handienetakoa dugu barregarri geratzea. Hizkuntza idealizatzen dugu egoera linguistiko eta politikoagatik eta Sabino Arana bezalako umoregileen purismoak segurtasun falta dakar. Normala da seriotasuna; aurkako ekimenak ere bai: gureak oso ondo hartu dira.

### 7. Irudimenari inoiz jarri behar izan diozu mugarik?

Bai. Ditugun legeak haustek ondorio penalak eta ekonomikoak dakartza; eta autozentsura politikoaz gain badira argitaratzen ez direnak kolektibo batzuek iraingarriak izan daitezkeelako.

### 8. Egungo Euskal Herria edo duela 500 urtekoa, zein interesatzen zaizu gehiago?

Oraingoa; hau tokatu zaigu, eta dentistarenean bada anestesia, Internet dago... Baina gaurkoa ulertu eta Euskal Herria inoiz libratzeko duela 500 urte ginena eta egin digutena behar dugu jakin.

### 9. Aitatasunak baretu ala eroagotu egin zaitu?

Baretu. Era naturalean, pentsatzen duzu ezin zarela desagertu gauetik goizera. Erotasun kalkulatu da: ekonomia planifikatu sozialista, ez segida seguru gabeko istorioa.

### 10. Iruñea hiria utzi, eta Hozta herrixkara. Damutu zara inoiz?

Ez. Teknologiari esker bada konsumismo ero eta suizidatik ihesi herri txikietan bizitzeko modua.

## AZKEN BERBA



IXIDOR SOLUPE

Bake bidetik askatasunera!

Europako Giza Eskubideetako Auzitegiak gaitzetsi eta bukatutzat eman du *Parot doktrina* izeneko interpretazio juridikoa. Bake bidea egonkortu eta bultzatzeko urrats garrantzitsua, ez bairik gabe. Eta gai honi lotuta Imanol kantautoreak 1972an Parisen grabatutako *Askatasunaren pausoak tinkatzen* ari diskoko abesti bat datorkit burura. Honela dio:

*Zuek hil zineten / atomo huts / hauts bihurtu zineten / zuek hil zinetenek / ezin dezakezute gehiago sofri / berriz bizi gizonaren nekea konpreni (bi). / Zuek zarete egi egiz alaiak / lurpean hezur mendiak / gu bizitzaren / morroi ta mandatariak (bi). / Bizitzak garamazki arrastaka / bere eskutik / hemen ez dago / ez poza ez egun senti / beti, gaur eta bihar, katez lotuta / bizitzaren bidetik (bi). / Hemen ez dute balio libertadeek / gizon dirudunek maltzur dizkioten legeek, / Eleizaren bakeek (bi). / Zuek ez dakizue zer den betikoan bizitzea / pausa leku batez dugula egunerokoan jarraitzea / beharrezkoak ez garela sentitzea (bi). / Gu zapalduta gaudenok / ez gara zoriontsu (bi). / kantu hau aditzen baduzue ere / ez esnatu, ez urriki galdu, / ez naiz, ez gara zoriontsu (bi).*

R.P.S. Nº 149/10 I.L.G.

ZURE BIGARREN

# VARILUX®

LEIAR PROGRESIBOAK

# OPARI\*

\* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA  
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

## MULTIÓPTICAS

lehen zerbitzu optikoetan